

Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak Disposiciones Generales del País Vasco

GARRAIO ETA HERRILAN SAILA

593

283/1989 DEKRETUA, abenduaren 19koa, Euskal Autonomi Elkarteko Errepideei buruzko 1987-1998 eperako Plan Orokorra onartzen duena. (Jarraipena).

III. ATALBURUA: TEKNIKAZKO ETA SEINALEEI BURUZKO ARAUAK

SARRERA

Lurralde Historikoen Legeak («Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze Erakundeen Arteko Harreman»ei Buruzko Azaroaren 25eko 27/1983 Legea) honako hau ezartzen du bere 7 a) 8. atalean:

«Autonomia-Elkarteko errepide-sareen behar bezalako egokitasuna bermatzeko, Kondaira-Lurraldeek, beren bide sareetan, Euskal Herri Osorako Erakundeek onartutako Orotariko Errepide-Egitamuan jarri daitezten teknikazko eta bide seinaleentzako arauak jarriko dituzte indarrean».

Bestalde, irailaren 26ko 2769/80 Errege Dekretuak, errepideen alorrean Estatuaren esku zeuden esku-duntza eta zerbitzuak Euskal Autonomi Elkarteari eskuratzen dizkionak, honako hau dio:

«Ahalmen horien egiteratzean, Autonomi Elkar-teak, N-1, N-240 errepideen zatiei, eta bere Lurralde-tik pasatzen diren Estatu emakida menpe ez dauden gaurregungo autopistei, indarrean dagoen Estatuko legerian jasotako teknikazko eta seinaleei buruzko arauak aplikatuko dizkie.

Era berean, Nazioarteko hitzarmen, akordio eta gomendioak aplikatzean, errepideak egin eta iraunerazteko Estatuak orokorki ematen dituen teknikazko araei atxiki beharko zaio Euskal Autonomi Elkarte, Autonomi Estatutuaren 20.3. atalean ezarritakoarekin bat etorritz.

Era berean, errepideak egin, iraunerazi eta ustiatzeko, defentsa nazionala dela-eta, arrazoiak adieraziz, Estatuaren argibideei jarraitu beharko die Euskal Autonomi Elkar-teak».

Horiek horrela, aipatutako Lurralde Historikoen Legeak dioena betetzeko, Eskualdatzea egiten duen Errege Dekretuan ezarritako minimoak kontutan hartuz, agiri honetan jasotzen dira Euskal Autonomi Elkartearen Errepideen Proiektu eta Zainketa egiteko indarrean egon behar duten Teknikazko eta Seinaleei buruzko Arauak

Proiektuei buruzko Teknikazko Araua egiterakoan Bizkaiako Foru Diputazioan (BAT) egindako lanak hartuko dira oinarritzat, hortik Autonomi Elkarteko hiru Lurralde Historikoetan aplikatzen diren printzipio eta erizpideak ateratzen direlarik, osotasunari aplikatzen zirelako haietan jasotzen ez zirenekin, eta indarrean dagoen Estatuko legeritik datozenekin bat eginez.

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS

593

DECRETO 283/1989 de 19 de Diciembre, por el que se aprueba el Plan General de Carreteras del País Vasco para el periodo 1987-1998. (Continuación). en pág. 1.541.

Azkenik Iraunerazpenari buruzko Teknikazko Araua egiterakoan ez da Estatu espainiarrean inongo lege aurrerakaririk aurkitu, eta horregatik, atzerrian dauden arauetara jo da: Frantzia, Suiza eta Estatu Batuetakoetara batez ere, helburu nagusizat teknologiaren gaurregungo egoerarekin bat datorren sistematika praktikan jartzen hastea duen agiri bat egin delarik, hasierako datuak, neurketa gailuak eta errepideen zenbait ezaugarri mantentzeko gutxienezko mailak emandako Zerrenda eta Argibideak ezartzen batez ere, hortarako zeharo konpondu beharrekoa heldu baino lehenagoko mantentzea egingo delarik, hiru Lurralde Historikoetarako gutxienezko ezaugarri batzuekin.

Azpimarratu beharra dago era honetan Euskal Autonomi Elkartearen esku dauden errepideen obretan aplikatzeko baldintzak agiri bakar batetan jasotzea lehenengo aldiz egiten dela. Horretxegatik, agiri hau ez da itxita gelditzen, hobetua izango da indarrean jartzeak ekarri dezan esperientziaren bidez alde bategatik, eta lehenengo idazketaren akats eta hutsen zuzenketa eta errepideen alorreko teknologiazko berrikuntzen bidez bestetik.

EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO ERREPIDEEI BURUZKO PROIEKTUETARAKO TEKNIKAZKO ARAUA.

EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO ERREPIDEEI BURUZKO PROIEKTUETARAKO TEKNIKAZKO ARAUA.

AURKIBIDEA

1. IHARDUTZE-OINARRIAK
2. TAIUKETA ARAUA
3. FIRMEAK ETA ZELADURAK
4. ERREPIDEETAKO SEINALEEI BURUZKO TEKNIKAZKO ARAUAK
5. NEURKETA PLANA ETA TRAFIKOAREN AZTERLANAK
6. INGURUGIROAREKIKO ERAGINAREN AZTERLANA
7. LANEKO SEGURASUN ETA HIGIENEARI BURUZKO AZTERLANA

1. IHARDUTZE-OINARRIAK

AURKIBIDEA

- 1.1. Sarrera
- 1.2. Trafikoaren Plangintza
 - 1.2.1. Oinarrizko trafiko edo Mugatzailea.
 - 1.2.2. Zerbitzu-mailen arabera onartzen den har-mena eta karga.
- 1.3. Proiektua garatzearenaldiak

1.- IHARDUTZE-OINARRIAK.

1.1. SARRERA.

Atalburu honetan nahi dena zera da: ihardutze-oinarriak planteatzea eta Proiektua idaztea edo plangintza aldiaren eta Proiektu edo azterlan baten eduki orokorraren aurretiko kontzeptuak ematea. Planaren Gai den Sarean egiten diren obra berriko errepideei buruzko edozein azterlan edo proiektuak betetzea gomendatzen da.

Trafikoaren harmenaren neurketak zehatzak ez direnez, beste metodo antzerakoak erabili ahal izango dira, behar den neurrian egiztatuz gero. Guzti hau Euskal Autonomi Elkartearen barruan beti.

1.2. TRAFIKOAREN-PLANGINTZA

1.2.1. Oinarrizko trafikoa edo Mugatzailea.

Definizioa.-

Oinarrizko trafikoa edo Mugatzailea, bideen azpiegituren (zeharkako sekzioak, bideen zk., e.a.), eta zirkulazioa errazteko beste instalazio batzuen (gurutzeguneak, seinalizazioak, e.a.) nerketak egiteko erabiltzen dena da.

Oinarrizko trafiko hau ohi denez ordu zehatz batetan sekzio batetatik pasatzen den ibilgailuen kopurua neurtuz emango da, ordu honek hartuko duen izena: Orduko Zenbateko Mugatzailea (OZM) edo proiektu ordua izango delarik, eta orduko hainbat ibilgailutan emango da, eta zehatzago, orduko ibilgailu arinen zenbatekoaren arabera, ibilgailu arinen eta astunen arteko baliokidetasuna egiten delarik.

Hasierako datuak.-

a) Bidearen kokapena eta funtzioa.

Bide baten trafiko Mugatzailea bidearen kokapena eta funtzioak ematen dute, eta beraz, zirkulazio moetak.

Ondorio hauetarako, gutxienez, bide moeta hauek bereizi ditzakegu:

A maila: hiri zirkulazio-bideak.

B maila: herri zirkulazio-bideak (udalerrri bat maila handiagoko errepide batekin lotzen dutenak)

C maila: lurralde zirkulazio-bideak (Lurralde Historiko baten barrukoak)

D maila: lurraldeen-arte zirkulazio-bideak (Lurralde Historikoetan sartu, atera edo zeharkatzen dituztenak)

E maila: turismo zirkulazio-bideak.

Azterlanaren xede den bidezatia zabalik badago eta orduko zenbatekoaren urteko bihurtzea ezagutzen bada, bihurtzea horren forma izango da klasifikapena egiterakoan oinarri onena.

Bideen azpiegitura berrientzako bidearen maila kontutan hartutako zatiaren kokapena eta, itxuraz, beteko duen funtzioaren arabera aukeratu beharko da, kasu bakoitzean, zabalik dauden beste bide batzuekin analogia ginez.

b) Trafikoaren aldaketa bihurtzeak

Neurketa toki iraunkorrak dauden bidezatietan bakarrik jaso daiteke urte guztiko egunen orduko informazioa; beraz, azterlanaren xede den bidezatiak denboraldi zehatz bati buruzko (urte, hila,

aste, egun) orduko-orduko aldaketa bihurtzerik ez izatea da normalena.

Informaziorik eza, gehienetan, honela bete beharko da:

1.- Hartutako zatiarekin antz handiena duen neurketa toki iraunkorra aukeratu da, horrela urteko orduko-orduko aldaketa bihurtzea lor dezakegularik.

2.- Gaurregun, hartutako zatiaren muturrak lotzen dituen taitak antzeko errepideren bat egonez gero, eskuz edo kontadore automatikoz egindako neurketa batzuk egin beharko dira astebetean zehar, errepide horri dagokion trafikoaren orduko-orduko banaketa ezagutzeko asmoz, eta horrela erreferentzia bezala aukeraturako neurketa toki iraunkorarekiko antzerakoefizienteak ematen dituen informazioa eskuratzeko.

3.- Aztergai den zatia bide-lotune berrikoa izanez gero, eta gaurregun erreferentzi-errepiderik ez egotera, trafikoaren izendapena egingo zaio dagokion ereduaren aplikazioaren bidez, zati horren urteko egunez-eguneko batzuek zenbatekoa (EBZ) jakiteko; hartutako toki iraunkorari dagokion datuekin konparaketa eginez urteko orduko-orduko bihurtzea finkatuz.

Trafiko Mugatzailearen Kalkulua.

a) Orduko-orduko trafikoa egunez-eguneko batzuek zenbatekoaren (EBZ) portzentaia hartuz.

Orduko-orduko zenbatekoaren urteko bihurtzeak, hartutako urte bati dagokion trafiko handieneko orduak hierarkikoki ordenatzea dakar.

Proiektuen neurriak ematean trafiko mugatzailea neurtzeko, OZ 100a erabiliko da, EBZrekiko ehunekotan neurtuta, orduko trafiko zenbatekoa handienetatik txikienera ordenatu eta 100. tokian dagoen orduan emandako zenbatekoari dagokio.

Hartutako errepide moeta desberdinei dagokienez, honako hauek dira gutxi gorabehera OZ 100ak, EBZrekiko ehunekotan emanda:

1.2.1. zk.dun TAULA

ORDUKO TRAFIKO MUGATZAILEAREN GUTXI GORABEHERAKO BALIOA

Maila Errepide mota	OZ100aren balioa EBZrekiko %-an
A) Hiri zirkulazio-bideak	% 8,0
B) Herri zirkulazio-bideak	% 9,5
C) Lurralde zirkulazio-bideak	% 9,5
D) Lurraldeen arteko zirkulazio-bideak	% 10,5
E) Turismoaren zirkulazio-bideak	% 15-20

b) Norabide bietako trafikoa.

Bideetan karrilak zirkulazio zentzu bietan daude, norabide trafikoz egingo dira kalkuloak. Emanik gehieneko orduetan norabide neurketarik ez dagoenean, norabide bakoitzari dagokiona aterako dugu, ondoren ematen den taula erabiliz.

1.2.2. zk.dun TAULA

NORABIDE BAKOITZAREN ARABERAKO BANAKETA

BIDE MAILA	ORDU MUGATZAILEAN ZEHAR NORABIDEEN ARABERAKO BANAKETA
Hiri zirkulazio-bideak (A) Herri eta Lurralde zirkulazio-bideak (B eta C)	% 50-60 % 65-70
Lurraldeen arteko zirkulazio-bideak (D)	% 60-65
Turismoaren zirkulazio-bideak (E)	% 70-80

c) Ordu laurden mugatzailea

Trafiko mugatzaileak normalean orduz-orduko neurketak egiten ditu, nahiz eta ordu batek dituen 60 minutuetan, trafikoaren neurria berdina izan ez, batez ere hiri bideetan. Horrexegatik, bide moeta hauetako neurketak egiteko «emanik gehieneko orduak faktorea» erabiltzen da, eta hau mugatzeko honela jokatu da: trafiko handieneko 15 minutuetan pasatzen dena bider lau egin eta honek ordubetean duen lotura aztertuko da.

Aldizkako hiri-zirkulazioa ematen denetan, normalean jo daiteke 0,85 inguruko «emanik gehieneko ordu» bat eta trafikorik handiena duten 15 minutuei ordu laurden mugatzailea deitzen zaio, honen balioa 1.2.1. Taulan emandako orduz-orduko trafikoaren %30aren ingurukoa delarik

1.2.2.- Zerbitzu mailen arabera onartzen den harmena eta karga.

- Xedeak eta aplikapenak.

Errepideetako bideei neurriak ematerakoan onartzen den trafikoa, trafiko mugatzailearen parekoa edo handiagoa izan dadin eran egiten da, horrela, zirkulazio arin bat bermatzen delarik, urtean zehar erabilerarik gehien duten 100 orduetan izan ezik.

Zama onargarria eta bidearen gehieneko harmena finkatzeko era, arau honen xede da.

- Definizioak

Bide bat erabiltzeko eskaera trafiko mugatzaileak ematen dute.

Eskeintza, bideak onartzen duen harmena eta kargak ematen du.

Harmena (H), ordu betean zehar bide bateko sekzio jakin batetik pasatu daitekeen ibilgailuen gehieneko zenbatekoa da. Honek, hartutako bidezatiak jasan dezakeenaren gehiena adierazten du.

Bide bateko zerbitzu-mailak (ZM), gidariek, bide hori zeharkatzean, ibilgailuek harantz-honantz ibiltzeko duten askatasuna adierazten du. Logikoa denez, bide bateko trafikoa bide horrek duen harmenaren ingurukoa denean, era mugatuan zirkulatzen da bertatik, abiadura txikiz, geldialdi ugarietaz eta tentsiopean gidatu beharra dakar.

Zerbitzu maila on bat hartu nahi bada trafikoaren neurria harmena baino txikiagoa izan beharko da, zerbitzu maila edo kalitater bakoitzeko gehieneko kopuru bat onartzen delarik.

Onartzen den karga (OK) edo zerbitzu maila bati dagokion Zerbitzu Kopurua (k), erabiltzailearentzat zirkulazioari buruzko baldintza zehatzetan bide bate-

ko sekzio batetik pasa daitekeen ibilgailuen orduz-orduko gehieneko zenbatekoa da; baldintza horiek, bidezati horri dagokion zerbitzu-mailak ematen dituelarik.

- Etengabeko zirkulazio-bideetako zerbitzu-mailak.

A maila trafiko arin baten egoerari dagokiona da, trafikoaren kopurua txikia delarik eta bidearen zernolako fisikoek bakarrik baldintzatzen duten zerbitzu abiadura handikoa. Gidariak askatasun handia dute beren ihardutzerako, eta ez daude, beste ibilgailu batzuek direla eta, abiadura mugatu bat mantentzera behartuak.

B maila zirkulazio iraunkor bati dagokio, abiaduraren aldaketa handirik gabe, nahiz eta hau beste ibilgailuek baldintzatua izaten hasia dagoen, aurreratzeak eta karril aldaketak (bidetaren moietaren arabera) arazorik gabe egiten dira.

C maila ere zirkulazio iraunkor bati dagokio, baina oraingo honetan abiadura eta harantz-honantz ibiltzeko ahalmena, neurri handi batean, gainerako trafikoak baldintzapetzen du. Aurreratze eta karril aldaketak zailagoak dira, nahiz eta ihardutzerako baldintzak onargarriak izan.

D maila, aldakorrak izaten hasi diren egoerei dagokie, hau da, abiaduraren aldaketa gogorrek ematen direnetakoa, kola txikiak sortzen dira, aurreratzeak egiteko zailtasunak handiak, eta gidarien harantz-honantz ibiltzeko ahalmena ostantzeko trafikoa dela eta, oso murriztua dago.

E maila, trafikoaren kopurua bideen gehieneko harmenetik hurbil dagoela dakar, eta abiadurak ez dira 40 km/h baino askoz handiagoak. Gelditu beharrrak oso maiz ematen dira, nahiz eta denbora gutxi-koak, eta kola luzeak sortzen dira, zirkulaziorako baldintzak oso baldintzatuak daudelarik.

F maila, bidearen gainezka egiteko eta kolapsoa sortzeko hainako baldintza aldakorrei dagokiena da.

Zerbitzu maila bakoitza definitu ahal izateko, «neurri eraginkorrek» izeneko parametro batzuk daude, dentsitatea, zenbatekoa edo kopurua, erabilitako bataz-besteak abiadura eta ehunekotan ematen den atzerapena.

Aipatutako maila bakoitzaren ezaugarri diren zerbitzu abiaduraren eta trafiko kopuruaren baldintzak desberdinak dira bide batetik bestera. Lehenengo erabaki beharko dena da zirkulazioa etengabekoa edo aldizkakoa den. Arau honek etengabeko zirkulazioa bakarrik hartzen du (enborra, autopista eta autobideen loturako bidezatiak eta adarrak eta bi karrileko eta karrilanizdun errepideak)

- Bideen harmena baldintza egokienetan.

Zerbitzuen zenbatekoak edo kopurua eta harmenak finkatzeko eredu bezala «Highway Capacity Manual» delakoa izango du, bere 1985.eko bertsiotan, hori bai, aurrirusteekin bat ez etorritz gero, «Manual» horren 1965.eko bertsiara joko da, edo praktikan erabiltzen den edozein prozedurari jarraituko zaio.

1.3. PROIEKTUA GAUZATZEAREN ALDIAK.

Errepideetako bideei neurria emateko behar den xehetasun maila proiektua zein gauzatzealdi hauetan dagoen kontutan harturik egingo da:

- Plangintza eta Aurre Azterlana.

- Informazio Azterlana eta Aurreproiektua.

- Taiutze Proiektua eta Eraikitzeari buruzkoa.

Fase bakoitzarentzat, eskeintzari neurriak ematearen xehetasun mailak trafikoaren eskaera emanda dagoen xehetasun mailarekin bat etorri beharko du.

A.- Plangintza eta Aurre Azterlanaren aldiaren aurrez neurriak ematea.

a) Xedea:

Aurrez neurriak emateak, bide baten beharra edo ez, eta norabide bakoitzean zenbat karrilekin eta bere gutxienezko ezaugarri geometrikoekin, moeta bakoitzeko behar diren bideen kopurua finkatzeko balio du

b) Oinarrizko datuak:

Eskaera, orokorki, orduko hainbat ibilgailutan emango da, eta gainera, ibilgailu astunen ehuneko ere agertuko da.

Eskaintza, eraikitze eta ihardutzezeko baldintza egokienetan dagoela jotzen da, printzipioz.

c) Balio adierazleak:

Lurraldean arteko bideei, inguru lauetan C zerbitzu maila lortzeko moduko neurria emango zaie, eta D mailakoa inguru menditsu eta okerrunedunetan.

B.- Informazio Azterlana eta Aurreproiektua aldiaren neurri ematea.

a) Xedea:

Trafikoaren eraginaren ikuspegitik egindako neurria emateak, errepideen sareko bidezati desberdinetako zirkulazio karrilen kopurua finkatu ahal izango du, dituen behar berezietan erantzuna emanez. Hiri-barruko bidezatietan neurri bereziak emango dira eta ez ditugu jasotzen arau hauetan.

b) Oinarrizko datuak:

Orduz-orduko trafiko mugatzilearen (OZM), eta onartzen den karga edo zerbitzu kopuruaren (k) arteko lotura aztertu beharko da, bidezatiarentzat ohartemendako zerbitzu-maila eta baldintza egokienetan emandakoengandik desberdinak izango diren ezaugarri geometrikoak eta funtzionalak finkatu ondoren.

c) Metodologia:

Azterlanaren xede den bidea, bidezatitan banatuko da, taiuketa plantan eta alzadoan emango delarik, eta baita zeharkako sekzioak eta dagokion proiektu abiadura ere. Bestalde, trafikoaren aurrikusitako konposaketa ezagutu beharko da, arinek eta astunek osatzen dutena alegia, eta bi karriletako eta karrilanizdun errepideetan zirkulazio norabideen arabera sailkatua.

Horrela, bidezati bakoitzean onartzen den harmena eta karga, zuzenketagileak aplikatuz jakingo ditugu, baldintza egokiarekin konparatu ondoren.

d) Balio adierazle orokorrak:

Inguru lauarentzat C zerbitzu mailaren eta inguru menditsu eta okerrunedunentzat D-ren abiaduraren gutxienezko limiteak hartzen baditugu erreferentzi modura, bidearen mailaren (autopista, bi karrildun errepidea,...) arabera emango den zerbitzu-kopurua edo gehienezko karga jakingo dugu.

Badira balio adierazle teoriko batzuk, baldintza egokienetan emandakoak, galtzada edo karril bakoitzean onartzen den karga edo zerbitzu-kopuru eta harmenari dagozkienak.

Benetako baldintzak egokienetatik banatuz gero, «balio adierazle orokorrak» hurrengo e) idazatian emandako zuzenketagilekin edo faktoreekin bidertu

beharko ditugu.

e) Onartzen den karga edo harmenean eragina duten faktoreak:

- Karrilen zabalera: Zf. Zf1, 3,5 m-takoa izanez gero (3,60 Manual berrian)

- Bide-ertzetako oztupoak: Ef.

Galtzadaren alboetako edozein bide-ertzeko oztupok, jarri daitekeen 15 cm-tarainoko espaloi bat izan ezik, hestuera sortzen du, nahiko luzeera duen bidezati baten, batez ere abiadura handietan eta tartea 1,8 m baino txikiagoa denean.

- Karrilaren zabalera eta bide-ertzeko oztupoen arteko ondorio bateratua (w).

Gehienetan aurreko ondorio biak bateratuak ematen dira eta erabiltzen diren zuzenketagileak edo faktoreak (w), bidearen zerbitzu mailaren arabera emanak datoz.

- Abiadura zehatza eta alineazioa. Zerbitzu maila bakoitzarentzat hartutako bat baino txikiagoa izanez gero.

- Ibilgailu astunak (A). Af faktorea.

Harmenaren eta onartzen den kargaren murrizte ondorio bikoitza dakarte ibilgailu astunek; alde batetik, espazio handiagoa hartzeak ibilgailu arinak bazterteza dakar, bidezati batetik pasatu daitekeen hainbat ibilgailu orduko (ordezko ibilgailuak) kopuruaren murriztean ikusten dena; bestalde, galtzadaren luzetarako aldapak eragin txarra du ibilgailu moeta honen abiaduran, bideen harmenetan eragina izan dezakeela.

Norabide bakoitzean karril bat baino gehiago izanez gero, ondorio hauek kanpoko aldeko karrilean bakarrik izango dute eragina (astiro zirkultatzekeo karrila).

C.- Taiutze eta Eraikitze Proiektuari buruzko aldiaren neurriak ematea.

Eraikitzeari buruzko Proiektua aldiaren, azterlan zehatzago bat egin beharko da, zenbait zerbitzu maila desberdin eta bidezati bakoitzean dauden bidegurutzeen ondorioak kontutan hartuz, horretarako gaurrengungo eta etorkizuneko eskaeraren azterketa zehatz-meatza egitea beharrezko delarik.

2. - TAIUKETA ARAUTERIA

2.- TAIUKETA ARAUTERIA

AURKIBIDEA

2.1. SARRERA

2.1.1. XEDEA ETA ERABILTZE EREMUA

2.1.1. DEFINIZIOAK

2.1.3. ERREPIDE MOETAK

2.1.4. ABIADURA INTRINSEKOAREN ARABERAKO BALORE LIMITEAK

2.2. PLANTAN EMANDAKO TAIUKETA

2.2.1. ALINEAZIO MOETAK

2.2.2. ALINEAZIO ZIRKULARRAK

2.2.3. ESTEKAKETARAKO BIHURGUNEAK

2.3. ALTZATUKO TAIUKETA

2.3.1. RANPAK ETA ALDAPAK

2.3.2. SESTREN ARTEKO ESTEKAKETAK

2.3.3. TRAFIKO GELDOARENTZAKO ALBOKO KARRILAK

2.3.4. PLANTA ETA ALTZATUAREN KOORDINAKETA

- 2.4. ZEHARKAKO SEKZIOA
- 2.4.1. KARRILEN ZABALERA
- 2.4.2. KARRILEN PERALTEA
- 2.4.2.1. Peraltearen transizioa
- 2.4.3. ARZENEN ZABALERA
- 2.4.4. ARZENEN PERALTEA
- 2.4.5. BERMAK, ZABALERAK ETA PERALTEAK
- 2.4.6. BIZIKLETARIENTZAKO PISTAK
- 2.4.7. MEDIANA
- 2.4.8. GALIBOAK
- 2.5. BIDE GURUTZEAK ETA ESTEKAGUNEAK
- 2.5.1. KARRILEN ZABALERA
- 2.5.2. KARRIL BEREZI BATZUREN LUZERA
- 2.5.3. GALTZADA-ERTZEN GEOMETRIA
- 2.5.4. ISLETAK ETA TRAFIKOARI DEBEKATUTAKO

GUNEAK

- 2.5.5. ESTEKAGUNE-MOTA ERABILIENAK
- 2.5.5.1. Hiru adarreko estekaguneak
- 2.5.5.2. Lau adarreko estekaguneak
- 2.5.5.3.

Estekagune adarren eta bidegurutzen taiuketa eta geometria

2.1. SARRERA

2.1.1. XEDEA ETA ERABILTZE-EREMUA

Arau honen xedea, honako hau da: Planaren Xede den Sarearen barruko errepide berrien proiektuan, aurkakoa bidezkoa denean salbu, ez plantan ez eta luzaroko eta zeharkako perfilean ere ezin gainditu beharko diren taiuketako elementu geometrikoen gehienerako balioak definitzea.

2.1.2. DEFINIZIOAK

Abiadura espezifikoak

Errepide baten kalitatea definitzen duen abiaduraren balioa da, Km/h.-an adierazita eta, hori, organu planifikatzaileak finkatu beharko du honako hau kontutan izanik:

- Errepidea non dagoen.
- Sarearen barruan, bide horri eman zaion lurralde funtzioa.
- Inguruaren baldintzak (topografia, geologia, luraren erabilpena, ekologia, estrategia, etab.).
- Trafikoaren zenbatekoa eta osatze-modua.
- Ekonomiazko baldintzak.

Abiadura intrinseko puntuala

Galtzadaren elementu batek (rebanada elementala), plantako bere erradioaren, bere peraltearen eta luzerako bere pendizaren arabera, zera suposatzen du, hots, Arau honetan finkatzen diren luzetarako marruskaduraren koefizientearen balioak, zeharkako marruskaduraren koefizientearenak eta peralteak konpentsatu gabeko azelerazio zentrifugoarenak gainditu gabe, ibilgailu batek elementu horretatik zirkulatu ahal duen gehienerako abiadura. Abiadura horren balioari, Km/h.-tan adierazita, ematen zaio abiadura intrinseko puntual izena.

Galtzadako elementu baten abiadura intrinsekoaren balioa, inoiz ere ezin izango da errepidearen abiadura espezifikoak baino beheragokoa.

Horrez gain, segurtasun eta erosotasun aldetik begiratuta, taiuketaren kidekotasuna bermatuko duten proportzio jakin batzuek beharko dituzte euren artean bata bestearen ondorengo elementuen balio intrinsekoak.

Funtsean, aurreko lerroaldiko proportzioak, biragune zirkularrei eta estekaketa bertikalei buruzkoak dira eta, justifikaturik dagoenean salbu, honetan konkreta daitezke, hots, taiuketako bata bestearen hurrengo bi elementu, orduko 20 Km baino gehiagoko abiadura intrinsekoaren ondorioz ez dezatela elkarrekin alderik izan. Erizpide hori erabiltzekoan, 140 Km/h. da gehienerako abiadura intrinsekoa.

Taiuketa berriko errepideetan, abiadura intrinsekoa 20 Km/h.-ko baino gehiagoan aldatzea gerta dadinean, 20 Km/h.-ko mailatan egitera joko da, horrela, maila bakoitzari dagokion azpi-bidezatiak, $L = 4 V + 150$ ko gutxieneko luzera izan dezan, horretan:

- L = Luzerarik txikiena metrotan dela
- V = abiadura intrinsekoa Km/h.-tan

Hori hamabost segundoko ibilgune bati gehi egon daitekeen seinale baten luzerari dagokio.

Aztatutako batz-besteko abiadura intrinsekoa.

Galtzadaren banakako elementuak (transizio luzeak barne) hartu eta bakoitzaren abiadura intrinsekoak eta errepidearen luzera guztiaren arteko biderketen batuketaren koefiziente bezala azaltzen den balioa definitzen da aztatutako batz-besteko abiadura intrinseko lez.

Oso abiadura intrinseko handiko elementuen kasuan, edo bidezati artezen kasuan, lehen definitutako numeradorearen batuketa lortzeko, abiadura intrinsekoaren ordez, lehen aipatutako 140 km/h gehienerako abiadura erabiliko da.

Dudarik gabe, aztatutako batz-besteko abiadura intrinsekoak, abiadura espezifikoak baino handiagoak izan beharko du.

2.1.3. ERREPIDE MOETAK

Errepide moeta eta luraren ezaugarrien arabera, abiadura espezifikoak, koadroan ematen diren muga artetik jasotakoak izan beharko du (km/h-an).

Lur moeta	Laua	malda-tsua	malkar-tsua	Oso malk.
S. «Gorria»				
Err.	120	120/100	100/80	80/60
S. «Laranja»				
Err.				
herrietakoak:	100	100/80	80/60	60/50
hiritakoak:	80	80/60	60/40	40
S. «Berdea»				
Err.				
herrietakoak:	100/80	80/60	60/40	40
hiritakoak:	60	60/40	40	40

Aukeratutako bidezati baten naturalak ez diren oztopoak egoteak (hiri guneak, industri guneak, trenbideak, e.a.), luraren malkartasun maila handiagotzea ekar dezake, ekonomiaren ikuspegitik Proiektua aurrera eramateko bezalakoa izan dadin.

Lurren malkartasun maila zenbaki zehatzetan emateko, ondorengo erizpideari jarraitu beharko zaio:

Behin-behineko eje bat plantan hartuta, batetik bestera tarte berdin-antzeko hiru puntu hartuko dira kilometroko honen gainean. Puntu horietako bakoitzaren erditik, 100 m-ko erradioa duten zirkuluak egingo dira, eta horietako zirkulu bakoitzean, honek hartzen

duen neurri handien eta txikien artekoari hi deituko zaio. Hartutako kilometroaren hiru hi-en arteko batz-besteko balio aritmetikoari H deituko zaio.

- H 5 m edo gutxiagokoa bada, lurra lautzat joko da.

- H 5 m-tik gorakoa, eta 20 m edo gutxiagokoa bada, lurra maldatsutat joko da.

- H 20 m-tik gorakoa, eta 50 m edo gutxiagokoa bada, lurra malkartsutat joko da.

- Hren 50 m-tik gorako balioak, lur oso malkartsuenak izaten dira.

Zeinketa moeta hauek, 1 : 5.000 eskalakoak edo handiagoak diren lurren planoen gain egingo dira gehienbat. Kasu berezietan, 1 : 10.000 eskalako planoetan ere egin ahal izango dira, eta orduan, emaitzak zerbait aldatu ditzazketen neurrien balio-emate bat eskatuko da.

Luzera handiko errepide-moten sailkapena aldatu egin ahal izango da beren luzeran zehar, baina 5 km-ko luzerako bidezatiak jartzeko erizpidea mantendu beharko da, malkartasun maila beretsua eta aurreko bidezatiaren maila, edo bat gehiago edo gutxiagokoa dutela gutxienez.

2.1.4. ABIADURA INTRINSEKOAREN ARABERAKO BALORE LIMITEAK

Arau honi dagozkion ondorioetarako, luzetarako edo zeharkako marruskadurarako, peralteak konpentsatu gabeko azelerazio zentrifugorako, eta denboraren arabera aldaketarako hartzen dira ondorengo baloreak. Balore guzti hauek oinarritzkoak dira geroago zenbait elementuren muga geometrikoak finkatzera-koan.

Zeharkako eta luzetarako marruskadura koefizientei emandako baloreak ez direla itxiak jakinarazi behar da, ez bait dira abiaduraren arabera bakarrik ematen, baizik eta biragunetako erradioa eta firmearen egoera bezalako faktoreen arabera.

Balore hauek taiuketaren baldintza onenei dagozkie, eta beraz baliteke horietaraino ez iristea.

Ai (Km/h)	40	50	60	70	80	90	100	110	120
Luzetarako									
marruskadura	= 0,3800	0,3640	0,3500	0,3400	0,3350	0,3285	0,3245	0,3220	0,3200
Zeharkako									
marruskadura	= 0,200	0,176	0,158	0,145	0,135	0,127	0,120	0,115	0,110
Kompensatu gabeko azelerazio zentrifugoa									
=	0,250 g	0,190 g	0,160 g	0,142 g	0,130 g	0,121 g	0,115 g	0,110 g	0,106 g
Kompensatutako azelerazioaren aldakuntza denboran									
=	0,800	0,725	0,650	0,575	0,500	0,450	0,400	0,350	0,300
(m/seg ³)									

(*) OHARRA: $g = 9,81 \text{ m/seg}^2$.

2.2. PLANTAN EMANDAKO TAIUKETA

2.2.1. ALINEAZIO MOETAK

Gehienetan, plantan emandako taiuketa transizio bihurtzeko elkarlotzen dituzten alineazio zuzen eta zirkular batzuek osatuko dute. Bihurguneok, printzipioz, klotoidal moetak izan beharko dute (luzerarekin batera lerroan aldatzen den bihurtgunea).

Beste taiuketa moeta batzuk ere onartuko dira, garapenaren arabera bihurtguneen aldaketak eta hartutako peralteekin duten loturak, taiuketa hori Arau honen mugen barruan kokatzen dutela ziurtatzen den guztietan.

2.2.2. ALINEAZIO ZIRKULARRAK

Gutxienezko erradio absolutu bezala, %7ko peraltearekin batera, zeharkako marruskadura koefizientea eta peralteak konpentsatu gabeko azelerazio zentrifugoa gainditu gabe, proiektuaren abiadura bakoitzean zirkulatzeko ahalmena ematen duena definitzen da.

Erradio horren balioak honako hauek dira:

GUTXIENEZKO ERRADIO ABSOLUTUAK (Peraltea %7)

V (Km/h)	40	50	60	70	80	90	100	110	120
R7 (m)	45	80,125	180	250	335	425	530	650	

Abiadura bakoitzarentzat indar zentrifugoaren herena hartzen duena definitzen da %2ko peralteari atxikitako erradio lez. Honako hauek direla horren balioak:

%2KO PERALTEARENTZAKO ERRADIOAK

V (Km/h)	40	50	60	70	80	90	100	110	120
R2 (m)	210	330	475	645	840	1060	1310	1580	1890

Balore bien artean eta abiadura bakoitzarentzat aldatzeko matematika lege bati jarraituz gero, 1 irudiko bihurtguneak ematen dira.

Taiuketaren praktikazko ondorioetarako hiruga-

rren balore bat ematen da, hots, gutxienezko erradio normala, %5 peralteari dagokiona, eta bere balioak honako hauek direlarik:

GUTXIENEZKO ERRADIO NORMALA (%5 Peraltea)

V (Km/h)	40	50	60	70	80	90	100	110	120
R5 (m)	70	120	180	255	345	450	560	700	850

Euskal Herriko eguraldiaren baldintza zehatzak direla eta, gutxienezko peralte bezala %2 balioko peralte hartzea gomendatzen da, gaineko uren ustuketa

azkarra eta eraginkorra bermatzen duten xedapen berezietan esaten dena izan ezik.


Proiektu guztietan, gutxienezko normala bezala definitu den gutxienezko erradioaren balioa mugatu beharko da. Erradio txikiagoak hartzeko, gutxienezko absoluturartekoak, proiektuaren agirietan aurkeztu beharko dira zehatz-meatz arrazoiak.

Gutxienezko normala baino erradio txikiagoak hartzea, errepidearen ezaugarrien maila galtzea da, segurtasunaren mugak gainditu ez baditu ere eta ez dira erabiliko, ahal izanez gero, batez ere errepide berrien proiektuetan.

ERRADIOAK

PERALTEAK	A=40	A=50	A=60	A=70	A=80	A=90	A=100	A=110	A=120
p = % 7	* 45	* 80	* 125	* 180	* 250	* 335	* 425	* 530	* 650
p = % 6,5	50	88	136	194	268	357	452	562	688
p = % 6	56	97	148	211	289	383	484	600	733
p = %5,5	63	107	163	231	314	414	522	645	785
p = % 5	** 70	** 120	** 180	** 255	** 345	** 450	** 560	** 700	** 800
p = % 4,5	82	136	203	283	381	496	622	763	926
p = % 4	95	155	230	320	427	553	690	845	1.022
p = % 3,5	111	180	265	366	486	625	779	950	1.146
p = % 3	133	213	312	428	565	722	897	1.090	1.311
*** p = % 2,5	164	260	377	515	675	857	1.062	1.286	1.543
p = % 2	210	330	475	645	840	1.060	1.310	1.580	1.890

- (*) GUTXIENEZKO ERRADIO ABSGLUTUA
- (**) GUTXIENEZKO ERRADIO NORMALA
- (***) GUTXIENEZKO PERALTE GOMENDATUA



1. IRUDIA

2.2.3. ESTEKAKETARAKO BIHURGUNEAK

Bihurgune baten eta bihurgune zirkular baten arteko estekagunea edo batabestearen ondorengo bi bihurgune zirkularren arteko estekagunea, klotoide erako arku baten bidez gauzatu da.

Honako hauetarako bide ematen du horrek:

- Konpentsatu gabeko azeleraketa zentrifugaren denborazko aldaketaren balioa mugatzea, honek, konforta gehitzen duela eta gehiago eskatzen duela abiadura handitzen den heinean.
- Kaltzadaren alabeoari arrazoizko mugen barruan eustea (gehienera %3koa segunduko).
- Gidariak taiuketaren berri zehatza izan dezala beti.

Aukeratu behar den «A» parametroak, honako baldintza hauek bete behar ditu, konpentsatu gabeko azeleraketa zentrifugaren aldaketa mugatu ahal izateko:

GUTXIENEZKO BALOREA, ABIADURAREN ARABERA

V (Km/h)	40	50	60	70	80	90	100	110	120
A (m)	35	50	70	90	120	150	180	225	275


Horietaz aparte, $R0/3 < A < R0$ izate-baldintza bete beharko du ($R0$, bihurgune zirkularren erradioa izango dela), gidariak ongi ikusi dezala bermatu ahal izateko.

Erradio handia duten bihurgune zirkularrak egoitea gerta dadinean, klotoidea kendu ahal izango da hurrengo mugetatik hasi eta abiaduraren arabera:

V (Km/o.)	40	50	60	70	80	90	100	110	120
R (m)	350	500	650	800	1000	1200	1400	1600	1800

2.3. ALTZATUKO TAIUKETA

Bigarren graduko parabolazko arkuez elkarren artean lotuko diren hainbat alineazio zuzenez (erranpak eta aldapak) osatuta egongo da perfil longitudinala duen taiuketa, ardatza, bertikala izango dela.




1. Irud. GELDIALDI BISIBILITATE TARTEA

Kv-z aditzera ematen den parametroekin bat datorren erpinaren kurbatura-erradioz definitzen dira parabola hauek.

Honako ekuazio hau dute parabola hauek:

$$Z = \frac{x^2}{2.Kv}$$



Zera da X, hau da, T letraz aditzera ematen den tangenzia-puntu batetik hasita hartuko den eta horizontalki hartzen den aldea. Eta honako hau da Z, hots, dagokien rasanteko kotari gehitu behar zaion kota.

Honako hauek hartu dira kontutan estekagune bertikalen balioa ezartzeko: Geldialdi eta aurrehartzeko bisibilitateak dituen tartek alegia, honako erizpide hauen arabera:

- Geldialdi bisibilitate tartea.

Hona hemen formula:

$$D_p = V \cdot t_r + \frac{V^2}{2} \cdot g(f_i \pm i)$$

D_p = Geldialdi tartea, metrotan.

V = Abiadura, m/sg.

t_r = Erreakzio denbora, segundotan.


f_i = Luzetarako marruskaduraren koefizientea.

i = Rasantearen inklinazioa, %tan (+ igotzea baldin bada, - beheraka baldin bada).

t_r -ri dagozkionetan, bi segunduko balioa eman zaio beti.

Geldialdi bisibilitate tartearen aldaketa jasotzen da hurrengo grafikoan abiadura eta rasanteen arabera eta bai gehienezko ranpa eta aldapa normal eta berezientzako ezartzen diren mugak ere.

Honako suposizio hau eginez aterako dira estekagune bertikalen parametroak: Eragozpenen altuera 0,2 m.-koa eta bisio-altuera 1,2 m.-koa gutxienezko absolutuarentzako eta, eragozpenen altuera zero, gutxienezko normaletarako.



SESTREN INKLINAZIO ETA LUZERAREN ARABERAKO IBILGAILU ASTUNEN ABIADURAREN ALDAKUNTZA

2.3.1. RANPAK ETA ALDAPAK

Abiadura eta lur-moetaren arabera onar daitezkeen gehienezko aldapek, ez dituzte gaindituko honako balore hauek, %-tan ematen direla:

GEHIENEZKO ALDAPA ETA RANPAK

V (Km/h.)	40	60	80	100	120
(A) Lur laua	2,0	2,0	2,0	2,0	2,0
(A) Lur gorabeheraduna	4,0	3,5	3,0	3,0	3,0
(B) Lur akzidenteduna	8,0	7,0	6,0	5,0	4,0
(C) Akzidente ugaridun lurra	12,0	10,0	8,0	6,0	(D)

(A) baloreak, abiadura bakoitzarentzako aholkupeko baloretzat jo behar dira; (B) balorea, ohizko gehienezkotzat eta, (C) balorea, ezohizko gehienezkotzat.

(D) balorea ez da sartzen, izan ere, ez bait da 120 Km/h. abiadura har daitekeeneko errepiderik proiektatu behar, akzidente ugaridun lurretan.

2.3.2. SESTREN ARTEKO ESTEKAGUNEAK

Abiaduraren arabera K_v baloreak, ez dira izango honako hauek baino txikiagoak:

V (Km/h.)	40	60	80	100	120
Estekagune konkaboak					
K_v (m)	800	1500	2500	3500	5000
Estekagune konbesoak					
K_v (m) gutxienezko absolutuak	500	1500	3500	6500	10500
K_v (m) ohizko gutxienezkoak	1500	3500	6000	9500	13500

Metrotan ematen den estekagunearen luzera, Km/h. tan ematen den V balorea baino handiagoa izango da beti.

Estekagune bertikal konbeso batetan, aurrehartzearen bisibilitatearen tartea bermatzea nahi baldin

bada, honako hau izango da F_v -aren gutxienezko balorea:

V (Km/h.)	40	60	80	100	120
K_v (m)	5500	13000	21000	32000	50000

2.3.3. TRAFIKO GELDOARENTZAKO ALBOKO KARRILAK

Aldapa gogor eta oso luzeek trafiko geldoarentzako alboko karrilen eraikitzea eragin dezakete. Hauen beharra, kokaketa eta luzera, jarraian ematen diren erizpideen arabera finkatuko dira:

1.- V_c abiadura kritiko bezala, bide nagusitik ibilgailu geldoen zirkulazioa onartzen ez duena ezagutzen da. Abiadura espezifikorekiko duen lotura hau da:

V (Km/h)	60	80	100	120
V_c (Km/h)	40	45	50	55

2.- 2 irudiko bihurtzeen hedapena eginda, sarbide abiaduraren arabera lortzen da aldapa baten abiaduraren aldaketa lortzen da.

3.- Bihurgune horietan, ranpan eramaten den abiadura abiadura kritikoa baino txikiagoa duen puntu bat aurkituz gero, puntu horretatik aurrera ibilgailu geldoentzako alboko karrila sartuko da.

4.- Hurrengo sestrara heltzean (estekagune bertikalak kontutan hartu gabe) bihurtgunea berriz aplikatzen da, abiadura kritikoa gainetikoa den abiadura puntu bat lortu arte. Puntu berri hortan amaituko da alboko karrila.

Aurreko estekagunea bidezati zuzena eta laua izatera, gehienez gomendatzen den sarbide abiaduraren balioa 0,7 V_{koa} da, V_a errepideko abiadura espezifikoa delarik.

Ibilgailu geldoentzako alboko karrilak, aurreko arauari jarraituz teoriari bete behar duten luzerari gehituko zaizkion gutxienez 40 m-ko luzerako elkarbideen bitartez lotuko zaizkie dagozkien karrilei.

Norabide bakoitzeko bat baino karril gehiago dutenetan, 1. erizpidean emandako 5 km/h. abiadura kritikoko baino txikiagoak onartuko dira. Bestalde, eskubiko karrilarekiko ibilgailu geldoen karrilaren jarraipena luzatzea komeni den aztertuko da, eta, aldiz, medianaren zabalera, ibilgailu azkarrentzat karril bat sortzea.

Gainera, honako erizpide hauek hartuko dira kontutan:

- Alboko karrilak eta beren arteko bidezati normalak ez dute motzegiak izan beharko, bidearen homogeneitatea bermatu ahal izateko.

- Alboko karrilak bukatzen diren puntuetako atzerako bisibilitatea hartuko da bereziki kontutan.

- Bere behar bezalako erabilera bermatzeko, alboko karrila seinalatzea eta markatzea ezin-gehiagoan zainduko dira.

2.3.4. PLANTA ETA ALTZATUAREN KOORDINAKETA

Plantan eta altzatuan emandako taiuketaren elementu geometrikoen arteko lotura bereziki hartuko da kontutan. Baldintza hau, abiadura handiko errepideetan oinarritzakoa dena, errepide guztietan zaindu beharra dago eta moldatu ere bai, onodorio ekonomikoaren eraginez atzera botatzen ez denetan.

Taiuketa bietako elementu geometrikoen aukeraketaren eta duen kokapen erlatiboan kontu piska bat hartu ezker, oharren optikoaren ikuspegitik emaitza on bat lortuko da, eta bidearen ezaugarrien aldaketa zakar eta bapatekoak eragindako gidariaren usteka-beak eragotziko dira.

Arau praktiko bezala, honako hauek eman daitezke:

- Aldapen aldaketak ahal den neurrian mugatzea, batez ere plantan emandako taiuketa oso okertsua denean

- Estekagune bertikaleko bihurtuneak, plantan bihurtune zirkularra arkoekin bat etorri beharko dute kokapenean, eta ahal den neurrian, luzera berdintsuak izaten. Kokaera honek gainera, gaineko uren hustuketa errazten du.

- Erradio oso handia duten bihurtuneen bitartez erabakiko dira alineazio zuzenen edo aldameneko estekaguneen arteko angelu txikiak

- Aldapa eta alineazio zuzen eta oso motzak eragotzi egingo dira, eta, ordez, aurreko eta hurrengo bihurtuneak hedatuko dira.

- Peralteen transizioak bereziki hartuko dira kontutan, beren forma norabidearen aldaketa jakiteko oso lagungarria izan daitekeelako, batez ere estekagune bertikal konbesoetan.

Emandako arau guztiak, edo bat edo beste, ez dira beti bete ahal izango, baina beti eragotziko da:

- Plantaren bi elementu desberdinen artean estekagune bertikaleko bihurtuneak kokatzea.

- Bat datozen bihurtune bertikal eta horizontalak, eta oso luzera desberdinekoak.

- Plantan emandako taiuketaren inflexio-puntuak, altzatuan emandako bihurtune konkabo nahiz konbesoen erpinekin bat datozenak.

- Derrigorrez bidezatiak kentzean, honen puntu

arriskutsuak gorde nahia: norabide aldaketak, bidegurutzeak, e. a.

- Egiatzapen azkarrak egin ahal izateko formula erre bezala $D=7 \cdot (V-20)$, (V km/h-tan eta D m-tan), gidariaren begibistan bidezati bat berragertzeko tarte optimoarentzat. D baino balore askoz txikiagoek ondorio gogaikarriak izan ditzakete.

Arazo guzti hauek argitzeko orduan zalantza handienetako kasuetan oso lagungarriak izango dira perspektiben irudiak.

2.4. ZEHARKAKO SEKZIOA

2.4.1. KARRILEN ZABALERA

Karril baten zabalera normala 3,5 m-koa izango da.

$V=120$ km/h duten errepideetan, zabalera 3,75 m-ra gehituko da eta $V=40$ km/h duten errepideetan, 3,00 m-ko zabalera karrilak onartu ahal izango dira.

Hiri barruetan eta dauden espazioen behar bezalako onura ateratzeko, lehenago emandakoengandik desberdinak diren baloreak eman ahal izango dira, arrazioak eman ezker.

Trafiko geldoarentzako alboko karrilek gutxienez 3,00 m-ko zabalera izango dute.

3,00 m-ko zabalera errepideetan, eta 2,00 m baino gutxiagoko erradiodun bihurtune guztietan, karrilen gehizabalerak jarri beharko dira. Gehizabalerak honek, karril bakoitzarentzat, $S=40/R$ (S eta R metroan) balioa izango du, eta gehitu, bihurtunearen barrukalderantz gehituko da bi karrilotan.

Gehizabaleraren transizioa 30 m-ko luzeran egingo da, horietatik 7,50 m, gehien jota, R erradiodun bihurtunean egon daitezkeelarik.

Gehizabalera osoa S_t bada, eta gehizabalera horren transizioaren luzera L_t , transizioa hasten denetik x tartera dagoen puntuaren gehizabalera honako formula honek emango digu:

$$S_x = S_t \cdot \text{sen}^2 \frac{\pi \cdot x}{2 \cdot L_t}$$

Bihurtunearen barrukalderako ardatzaren alboraketa $S_x/2$ izango da puntu bakoitzean.

Kanpoko ertza aldaketarik gabe geldituko da.

2.4.2. KARRILEN PERALTEA

Zirkulazio karrilen peralte, plantan erradioari dagokiona izango da.

Alineazio zuzenetan %2,5ko bonbeo bat ezarriko da.

Rekta oso motzen kasuan bakarrik onartu ahal izango da bonbeorik gabeko sekzio bat, %2ko gutxienezko malda sortuz, eta aurreko eta hurrengo bihurtuneen zentzuen araberrako alderantz %2,5eko gutxienezko malda sortzea gomendatzen delarik.

Ibilgailu geldoentzako alboko karrilak alboko karrilak duen peralte berdina izango du beti.

2.4.2.1. Peraltearen transizioa

Alineazio zuzen baten eta beste zirkular baten artean, edo peralte desberdindun hauetako biren artean, peraltearen transizio bidezati bat ezarri beharko da, dagoen kasuetan, estekagune bihurtu-nearekin bat etorri beharko duelarik.

Peraltearen transizioa kontu handiz aztertu beharko da, eragina hauetan duelako:

- Gaineke uren hustuketa.
- Konpentsatu gabeko azelerazio zentrifugoaren aldaketan.
- Taiuketaren estetikan.

Galtzadaren ertzak, bidezati zuzenean luzerako perfila bat datorrena dutenak, transizio bidezatian perfil independenteak dituzte bai beren artean, bai galtzadaren luzerako perfilarekiko.

Ertzetako perfilen eta luzerakoaren artean sortzen den Δ_i angelua da peralte transizio baten egokitasuna finkatzen duen parametroa.

Gaineke uren hustuketa bermatzeko, galtzadaren gehienezko aldapadun lineak ahalik eta motzenak izan behar dute. Transizio bidezatiatan, $\Delta_i > d/10$ betetzen den guztietan lortzen da hau, d-a, aztertutako ertzaren eta peraltearen bira ardatzaren arteko tarte dugularik, m-tan emandakoa.

Δ_i -ren balioa, ordez, gehienezko balio bati mugatu beharko zaio arrazoi dinamikoak eta estetikoak direla eta. Balio hori, abiaduraren arabera, honako hau izango da:

V (Km/h)	40 baino txik.	40-80	80tik gorak.
Δ_i (%)	1,5	1,0	0,8

Gehienezko eta gutxienezko baloreak beren artean bateragarriak direnean, peraltearen bira ardatzaren kokapena berraztertu beharra izango da, eta oso kontutuan hartu beti lurgeaineko uraren hustuketak garrantzi handiagoa duela (segurtasunean du eragina) dinamikak edo estetikak baino (konfortean du eragina). Hori dela eta, beti bete beharko da Δ_i -ren gutxienezko baldintza, nahiz eta gehienezko balioarena gainditu.

Peraltearen biraketa ardatza, orohar, galtzadaren ardatzarekin bat etorriko da (medianarik gabeko errepedeetan), nahiz eta biraren ardatza ertzetatik edozein edo galtzadaren ardatzetik paralelo dihoan rekta bat, irtenbide lez onar daitezkeela.

Galtzada bananduak dituzten errepedeetan, peraltearen bira ardatza, bakoitzaren ertzetatik edozeinekin etorri daiteke bat, edo edozein puntu izan, medianaren ardatzetik tarte berdineran egon dadila gomendatzen da, guzti hori honen forma eta zabaleraren arabera, eta galtzadak maila berdinean egotea edo ez egotearen arabera.

Plantan emandako transizio bihurtunerik ez egotera, rekta eta bihurtune zirkularren arteko peraltearen transizioa honela egingo da: bonbeo sekzioetik rektaren, luzeran zehar, peralte batera (p-2)% eta peraltetik (p-2)% bihurtune zirkular baten (p)%ra pasatzen.

Gomendagarriak ez diren bi bihurtune zirkularren kasuan, bai zentzu berdinekoak zein desberdinekoak izan, tangenzia punturako, bien baturaerdi algebraikoa egingo da, eta bihurtune zirkular bakoitzaren barruan egingo da transizioaren loti bat.

2.4.3. KUADROA

EZAUGARRI GEOMETRIKOEN LABURPEN KUADROA

SARE, LURSAIL ETA TRAFIKO HIERARKIAREN ARABERAKO GUTXIENEZKO SEKZIO EREDUAK

SAREA	TRAFIKO KOPURUA	LURSAILA		
		Laua	Maldatsu malkartsua	Oso malkartsua
Autopistak eta Autobideak	EBZ 10.000	0,5ko bermadun eta gutxienez 3,00 m-ko bermadun 7/20,5, bi galtzada		Idem 7/20,5 galtzadak 1,6 m-ko mediana berezia
Nazionala	2.000 EBZ 10.000	7/10,5	7/9	7/9
Autonomi Elkarteko Oinarritzakoa	1.000 EBZ 10.000 EBZ 1.000	7/10 6/8	7/9 6/7	6/7 edo 6/6 (mugekin) 6/7 edo 6/6 (mugekin)

2.4.3. ARZENEN ZABALERA

Arzenen zabalera, honako hau izango da:

- $V = 120$ Km/h eta 3,75 m-ko zabalera karrilarentzat, arzenaren zabalera 2,50 m-koa izango da.

- 120 km/h. eta 50 Km/h-ko abiadura eta 3,5 m-ko karrilaren zabalera, arzena 2,50, 2,00, 1,50 edo 1,00 m-koa ahal izango da, abiaduraren eta lur moztaren arabera.

- 40 Km/h-ko abiadura eta 3,00 m-ko karrilaren zabalera, arzenak gutxienez 1,00 m-ko zabalera izango du

- Trafiko geldoarentzako alboko karrilen ertzeko arzenak 1,50 m-koa izan beharko du, eta kasu berezietan, 1,00 m-koa.

- Banandutako galtzadadun errepideetan bigarren arzen bat jarri beharko da, madianaren alboan, 1,00 m-ko zabalera.

Gutxienezko zeharkako sekzioa 2.4.3. koadroan emandakoa izango da

2.4.4. ARZENEN PERALTEA

Arzenaren peralte, alineazio zuzenean, %4koa izango da, zelaiduraren kanpo alderantz.

Bihurgunedun alineazioetan:

- %3 eta +%4 arteko alboko karrileko peraltearen baloreentzat arzenaren peralte %4koa izango da, kanpo alderantz. (- zeinuak, peraltearen kontrako zentzua adierazten du)

- %4a baino alboko karrilaren peralte handiagoetan, arzenak peralte berdina izango du.

- Alboko karrileko peralte %3a baino handiagoa bada (%7ko angelu konbesoa) arzenak transizio bidezati bat izango du, karrilaren peralte berdina hartu artekoa.

- 1,50 m baino zabalera gutxiagoko arzenek alboko karrilak duen peraltearena bera izango dute beti.

- Ezkerreko arzenak, banandutako galtzadadun errepideetan, alboko karrilaren peralte bera izango du beti.

- Fabrika-obretan alboko karrilak duten peralte bera izango dute arzenek.

2.4.5. BERMAK, ZABALERAK ETA PERALTEAK

Terraplanean egindako sekzioaren kasuan, $V = 120$ Km/h-rako, kanpora aldeko %8ko aldapa eta 1,00 m-ko zabalera duten bermak jarriko dira arzenen alboan; 0,50 m-koak 100 km/h. eta 50 Km/h arteko abiadurarentzat, eta 0,25 m-koak $V = 40$ Km/h-ko abiadurarentzat.

Mendi-ebaketak izan dituzten lurren sekzioan, erabili den luzetarako drenaiak bereganatuko du bermak.

2.4.6. BIZIKLETARIENTZAKO PISTAK

Bizikletarienezko pistak bi gurgildun eta abiadura txikiko ibilgailuentzat gordetzen diren aldeak dira (kontzeptuak ziklomotore txikiak ere hartzen ditu), errepidearen galtzadatik fisikoki bereiztuak edo ez, eta osotasunaren barruan ibilgailu moeta horren ehunekoa garrantzitsua denetan, helburutzat segurtasuna eta harmena areagotzea dutenak

Fisikoki bereiztuta ez dauden kasuetan, seinalizazio horizontal argia jarriko da, autoen gidariak pista horien helburua zein den jakin dezaten.

Pistek zabalera hau izango dute:

- 1,75 m-tik 2,50 m-arteak fisikoki bereizitak daudenean eta zirkulazioaren norabide bakarra izatera.

- 2,50 m-tik 3,00 m-arteak aurreko kasuan eta zirkulazio norabidea bikoitza denean.

- 1,00 m-tik 1,50 m-arteak fisikoki bereizitak ez egon ezkerre, kasu honetan beti norabide bakarrek zirkulazioak izango direlarik: alboko karrilari dagokiona.

Ranpa eta aldapen baloreak hauek izango dira:

- %3 mugatu gabeko luzeraz.

- %4 eta, gehien jota, 200 m-ko luzeraz.

- %5 eta, gehien jota, 50 m-ko luzeraz.

Muga horiek gainditu ezkerre, bizikletaria oinez joan beharko da.

Kontu berezia hartuko da, pista hauek bidegurutzeetan antolatzerako orduan, arau orokorrik ematea ezinezkoa delarik.

2.4.7. MEDIANA

Berezitako galtzadak dituzten errepideetan medianak bat (lehen definitu ditugun ezkerreko arzenak honen zabalera hartuko dituelarik) jarriko da, eta honen zabalera proiektu bakoitzean definituko da (ikus 2.4.3. irudia)

Gutxi gora-behera, eta gainetikako pasuak bertan euskarrirituta egon ezkerre, medianak gutxienezko zabalera hau izango du:

- 3,00 m + habeen zabalera, hesi ezmalgugarritz babestuta daudenean.

- 3,60 m + habeen zabalera, hesi semimalgugarritz babestuta daudenean.

Medianaren zabalera fabrika-obra guztietan mantendu beharko da, hutsik gelditu ahal izango delarik, beharrezko babesketaz, tableroen kostoak ekonomizatzeke asmoz.

Medianaren zabalera aldaketa beharra izan ezkerre, zabalera transizioa bihurtune zirkularrean zehar egin beharko da, rektan egitera izango zukeen itotze eragina ebakitzeko.

2.4.8. GALIBOAK

Euskal Autonomi Elkartearen errepideetako bidegurutzeetan egiten diren obretako galibo bertikalak gutxienez 4,5 m izango ditu. Errepideen azpian bidegurutzeetako obren zabalera zera izango da: azpiko sekzioarena gehi 1,25 m-ko zabalera bi espaloi, izatez oinezkoentzat eta kondukzioen pasua ere egin ahal izango delarik.

2.5. BIDEGURUTZEAK ETA ESTEKAGUNEAK

Beren artean sekanteak edo tangenteak izan daitezkeen bi zirkulazio bideren arteko maila berdineko estekatze-puntuari esaten zaio bidegurutzea.

Bi zirkulazio bideren loturari eta maila desberdinean egindako gurutzari esaten zaio estekagunea. Estekagune guztiek, maila desberdinean gurutzatzen diren bide nagusien eta elkarlotzeko balio duten

loturazko bi-norabideko adarren arteko zenbait bidegurutze sortzen dituzte.

Dauden aukeren sorta oso zabala da eta argibide bat edo besteren bat aukeratzea aldagai askoren arabera dago, horietatik oinarrizkoak hauek direlarik: trafikoaren zenbatekoa, bai bide bietakoa eta bai batetik besterako bira mugimenduetan, batez ere ezkerretarako birenara; inguruko topografia, maila desberdinean gurutzatzeak erraztu edo eragotzi ditzakeena; bideetako sestren aldaketa zailagotu edo ezinezkotu egiten duten lurraz baliatzeko ezaugarriak, alboko funtsetara sarbideen galtzarekin, e. a. Ez da ahaztu behar, gainera, mailako gurutze bide zabalaren eta maila desberdineko estekagunearen artean, askotan, semaforoz araututako behin-behineko edo behin-betiko gurutze bidearen aukera dagoela.

Bidegurutzeetako proiektuentzat gomendagarri diren arau orokorrak jasotzen ditu atalburu honek, edozein zirkulazio bideren segurtasunarengan eragin handiena duten eta puntu zailenak direnak.

2.5.1. KARRILEN ZABALERA

Bidegurutze guneetako karril guztien zabalera, dagokion sarbidearen berdina izango da eta bere gehizabalerak arau orokorrari jarraituz kalkulatu dira. Kasu berezietan, eta arrazoiak emanda, bakarrik jarri ahal izango dira zabalera txikiagoak.

Karril bakarra eta zirkulazio norabide bakarra duten adarretan, gutxienez zolatutako zabalera 6 m-koa izango da; galtzada eta arzenen arteko bereizketa bideetako marken bidez, erarik egokienean, egingo delarik, karrilaren zabalaren, plantan emandako erradioaren eta gehizabaleraren baloreen arabera. Matxuratutako ibilgailu bakar batek ezingo du, horrela, adarreko zirkulazioaren itomena sortu.

2.5.2. KARRIL BEREZI BATZUREN LUZERA

Dezelerazio karriletan eta ezkerretarako biretarako aurreselektzioa egiten dutenetan, hiru gune desberdin bereizi daitezke, zirkulazioaren norabidean:

- Bereizketa gunea
- Dezelerazio gunea
- Biltegi gunea

Gune hauetako azkena ez da behar izango ibilgailuen irteera debekurik gabekoa izatera; ez da gertatuko horrela ezkerretarako bira eta paretik datozenekin gurutzatzea tokatzen den bideetan, edo dezelerazio bideetan, eskubirako bira eta irteeratik hurbil semaforoa dutenetan.

Bereizketa gunearen plantak hirukiaren forma izango du, bere zabalera hasieran hutsekoa delako, eta karril normal baten formakoa azkenean. Bere luzera, bi puntu hauen artekoa, errepideetako abiaduren arabera emango da eta balore hauen artekoa izango da:

V (km/h)	40	60	80	100	120
L (m)	20	40	40/60	50/80	60/90

Dezelerazio guneak, zabalera bakarra eta karril batenaren berdina duena, L₀ luzera bat izango du, 0,75 V-ko balioa emango zaion (V, bidearen abiadura espeziфика) (V_E) sarrera abiaduraren arabera, (V_S) irteera abiaduraren arabera (hutsa izango da biltegi gunez egon ezkerre), eta (j) batz-besteko dezelerazioa-

ren eta (i) bidearen aldaparen arabera:

$$L_D = \frac{V_E^2 - V_S^2}{26(j + 10i)}$$

V_E eta V_S Km/h-tan
i 1-eko hainbatetan (+ igotzen, - bajatzen)

j-rentzat 1,5 m/seg.² eta 2 m/seg.² arteko baloreak har daitezke

Gutxienez 10 m-ko luzera izango du, eta gehien jota 200 m-koa, kasurik aldeko eta kontrakoenetan, hurrenez hurren.

Biltegi gunea, dagoenean, 20 m-tik eta 40 m-ra artekoa izango da, erabiliko duten ibilgailu kopuruaren eta horien konposaketaren arabera (ibilgailu astunen ehuneko handiago edo txikiagoa)

Irteeraren antolaketa semaforoen bidez egiten denean, argi gorriaren aurrean geldirik dauden ibilgailu kopuruaren azterlan sakon bat izango da gune horrek beharko duen luzera finkatzeko erabiliko den oinarria

Azelerazio karrilek ere hiru gune dituzte, zirkulazio norabidean emanda:

- Azelerazio gunea
- Egokitze gunea
- Bateratze gunea

Azelerazio guneak L₀ luzera izango du, (V_E) sarrera abiaduraren arabera (hutsa semaforo baten ondoren badoa), (V_S) irteera abiaduraren arabera, dezelerazio bideetan bezala, 0,75 V-ko balioa ematen zaiolarik, eta (a) batz besteko azelerazioa eta (i) aldaparen arabera:

$$L_A = \frac{V_S^2 - V_E^2}{26(a - 10i)}$$

V_S eta V_E Km/h-tan
a m/seg.²-tan (orohar, a = 1 m/seg.²).
i 1-eko hainbatetan (+ igotzen, - bajatzen).

Dena dela kalkuloak emandako balioa, L_A-ren balioa ez da 150 baino handiagoa izango.

Egokitze guneak, bide nagusiarekin bat egin nahi duen gidariari bere abiadura beste hortara egokitzen utzi beharko dio, eta bere maniobra bukatzeko bi ibilgailuren artean hutsune bat bilatzen. Gune honentzat 150 m-ko luzera bat gomendatzen da, gutxitu ahal izango dena, V < 80 Km/h eta/edo trafikoa gutxi bada, baina inoiz ez da 50 m baino motzagoa izango.

Azkenik, hiruki formadun bateratze guneak, sorreran karril baten zabalera normaletik, azkenean hutsako zabalera izatera dihoanak, 50 edo 75 m-ko luzera izango du, abiadura 80 Km/h baino handiagoa edo txikiagoa denaren arabera.

2.5.3. GALTZADA-ERTZEN GEOMETRIA


«T» bidegurutzeetako galtzaden ertzak, beren artean tangenteak diren bihurtune zirkulardun hiru arkoren bidez moldatuko dira gehienetan, eta horietatik erdikoa eta erradio txikiena duenak 10 m baino erradio handiagoa izan beharko du.

Ezkerretara bira egiteko erdiko karrilak sortzeko

gertatzen diren galtzadaren zabaltze guneek, gutxienezko luzera hau izango dute:

$$L = V \cdot \sqrt{d}$$

L (m), V (Km/h) abiadura jenerikoa, d (m) irudiko d'edo d baloreetatik handiena, eta AB bidezati guztietan eta BB rektetan bigarren graduko arkodun parabola geometria izango du.



Lehenago azelerazio eta dezelerazio karriletan bereizketa edo bateratze gune bezala definitutako hiruki formako guneetan berdin jokatu da.

2.5.4. ISLETAK ETA TRAFIKOARI DEBEKATUTAKO GUNEA

Bien helburua berdina da, egiteratzekoan hartzen dute era desberdina, lehenengoak koskadun isletak diren bitartean, bigarrenak bideko marka soilak dira.

Hauen helburu nagusia bidegurutze batean biltzen diren trafiko desberdinak banandu eta bideratzea da, daramaten norabidearen arabera, maniobra erraztuz.

Isleten itxuren kopurua oso handia denarren, bere helburuagatik honela sailkatu ditzakegu:

- Bereizlea: isleta luzekina, zabalera uniforme, zirkulazio norabide biak bereizten dituena.
- Malkoa: isleta luzekina, zabalera aldakorrekia eta ertz borobilduduna, helburutzat biraketak erraztea duena.
- Direkzionala: gehienetan hiruki formakoak eta ibilgailuak nahitaezko bira egitera behartzen dituena.
- Babesa: nahiz eta aurrekoetatik edozein forma hartu ditzakeen, trafiko korrante bat zeharkatzeko zai dauden oinezkoak babestea da honen oinarritzko helburua.

Bereizleek 1,20 m-ko gutxienezko zabalera izango dute, edo 1,50 m-koa, babeste helburua dutenean.

Edozein isletak 4,50 m²-ko gutxienezko azalera izan behar du, bestela bideetako markek ordezkatu ditzutelarik.

Malkoek, 40 m-tik 20 m-rarteko luzera izango dute, bira aurreauketara karrilak izatearen edo ezaren arabera, eta bere ertzaren erradio nagusia 18 edo 10 m-koa izango da, hurrenez hurren. Bere alde hes-tuenaren zabalera 1,50 m-koa izango da eta puntak borobiltzeko erradioak 0,60 m-koak. Behar izan ezke-ro, bidearen markekin osotuko dira hauek.


Isleta dirkzionalakak, hiruki formadunak, aldeak zuzenak izango dituzte luzera 4,50 m baino gutxiago-koa denean, eta okerrak eta galtzadarekin paraleloak luzera handiagoa izatera. Alde hauek, 0,30 eta 0,60 m arteko hutsunea utzi beharko dute, galtzada bakoitzaren ertz teorikotik, abiadura handiago edo txikiagoaren arabera. Angelu zorrotzak 0,60 m-ko zirkuloko arkuekin borobilduko dira, eta 0,75 m-tik 1,00 m-koekin angelu zuzen eta kamutsak.

Azelerazio eta dezelerazio bideen kasuan, inburtu geometrikoa eta zirkulazio karriletako ertzetatik 50etik 100 m-rarteko tartean kokatu beharko da inburtu fisikoa. 0,75tik 1,00 m-rarteko erradiodun zirkulu arko baten bidez borobilduko da punta.

2.5.5. ESTEKAGUNE-MOTA ERABILIENAK


Nahiz eta estekaguneen kopurua eta forma neurri-gabea izan eta eragile askoren arabera ematen den, proiektu-egile beraren fantasia hauen artean, kokape-naren arabera baldintza zehatzei behar den neurri-ko egokitzeak eginda, hauek baten proiektu zehatz batentzat oinarri izan daitezken betiko zenbait irten-bide jasotzen ditugu jarraian. Aipatutako estekagu-neek jarria zabalik mantentzeko xedez dute, sarbi-deak mugatuz.

2.5.5.1. Hiru adarreko estekaguneak



Oharra: (a) nahiago izaten da (b) baino, bigarren honen adarra, dezelerazio bidean, lakio formakoa denez, beti izaten da arriskutsu eta zailagoa.

«Y»-an




(A), (B) eta (C), angelu zorrotzean ezkerretarako biraren irtenbide alternatiboak

Oharrak: (A) irtenbidea hiru mailako egituraz era-baki ahal izango da, bi mailako hiru egituraren orde-z.

(B) irtenbidea onena da, bidetik ateratzeak eta bideratzeak eskubiko aldetik egiten direlako, baina adarren luzera handiagoa eta espazio handiagoa eskatzen ditu.


(C) irtenbidea gutxien gomendatzen dena da.

«T»-an



2.5.5.2. Lau adarreko estekagunea

DIAMANTEAN




Sarri gomendatzen da, espazioa hartzeko duen behar txikiagatik, baina bigarren mailako bideetan arazo-bide izan daitezkeen puntu asko dituela.

Arazo hauek konpontzeko: bertako galtzadak bereizten eta aurreaukeraketa edo ezkerretarako biren bateratze karrilak jarritz.

Ezkerretarako biraren bat garrantzitsua izan ezke-ro, lakio formadun adarrak eta estekaguneak sortzen dira:

HIRUSTA EZ-OSOIA




Ezkerretarako bira
Ezkerretarako bira

garrantzitsu bat
garrantzitsu bi


Bi lakio ez dira gomendagarri bata-bestearen alboko kuadranteetan, sortzen diren kordontze bidezatiak direla eta, irtenbide hau izan dezaketelarik:

- Sarrera eta irteeren arteko tartea nabarmenki gehitzen.

- Biltze eta banatze bideak sortuz.




HIRUSTA OSOA



- Arazo punturik ez dago bira bakar baten ere.
- Eragozpena: kordontze bidezati ugari.

BILTZE ETA BANATZE BIDEDUN HIRUSTA OSOA



Irtenbiderik onena, baina gehienetan oso garestia eta trafiko kopuru oso handientzat bakarrik justifika daitekeena.

2.5.5.3. Adarren eta estekagunetako bidegurutzeen tziuketa eta geometria.

Adarrei eta estekaguneei Arau honetako dagozkien atalburuetan jasotako erizpide guztiak aplikatuko zaizkie, ematen zaien abiaduraren arabera.

3.- FIRMEAK ETA ZELAIDURAK

AURKIBIDEA

3.0. ARAUAREN XEDEA

3.1. FIRME MALGUGARRIAK

3.1.1. Zenbatekogileak

3.1.2. Firmearen egitura sekzioen zerrenda

3.1.3. Arzenak

3.1.4. Zelaiduraren eta firmearen kapen albotarako isuriak

3.2. FIRME EZ-MALGUGARRIAK

3.2.1. Zenbatekogileak

3.2.2. Firmearen egitura sekzioen zerrenda

3.2.3. Juntak

3.2.4. Arzenak

3.2.5. Zelaiduraren eta firmearen kapen albotarako isuriak

3.0. ARAUAREN XEDEA

Agiri hau Arau lez egituratzen da, baina proiektu-egileak, firmearen zenbatekoa finkatzerako orduan, arrazoizkotzen duen prozedura bati jarraituko dio.

3.1. FIRME MALGUGARRIAK

3.1.1. Zenbatekogileak

Kontutan hartzen diren eragileak honako hauek dira:

A) Trafikoa

Firmearen egitura parametro hauen arabera emango da:

- Proiektuak dirauen bitartean proiektu karrilak ustez jasan beharko duen ibilgailu astunaren kopurua.
- Ibilgailu horien ezaugarriak

Proiektua egiteko 20 urteko denboraldi bat onartzen da, Azterlan Aginduak besterik esaten ez duen artean.

Aldizka egiteratzea egin ahal denetan, proiektuak egiteko denboraldien batuketa ez da aipatutako 20 urtekoa baino gutxiagokoa izango.

Trafikoa faktore erabakiorra denez egitura sekzioaren tipologia egokienaren aukeraketan, hau da, materialen eta kapa osagaien zelakotasunean, eta bai beren lodieraren zenbatekoa finkatzeko orduan ere, trafiko honen beharrezko azterlanak egingo dira hauek neurtzeko:

- Trafikoaren kopurua
- Ibilgailu astunen ardatzen tipologia
- Ardatz bakoitzak hartzen duen zama, eman daitezkeen gehizamaketak kontutan hartuz bereziki.
- Proiektuak dirauen artean ematen den trafikoaren hazkuntza tasa

Azterlan honek garrantzi berezia hartzen du oinarri hidraulikoa (legarra-porlana, lurra-porlana) edo puzolanikoa (legarra-zepa) duten egitura sekzioen proiektuaren kasuan, nahiz eta txikiak izan, gehizamaketen aurrean, edo lodierari emandako neurri txikiagiaren aurrean, bere egitura portaerak agertzen duen kritikotasuna dela eta.

13 toneladako (t.) ardatz bakuna hartzen da ardatz eredu baliokide bezala. Proiektuko karriletik ardatz baliokidetan zirkulatuko duten benetako kargen multzoa bihurtzea, honela egingo da:

$$N = (P/13)^4$$

Non:

N = P toneladako pisua duen ardatzaren baliokide diren 13 t.ko ardatz kopurua.

Formula hori honako kasuan aplikatuko da bakarrik:

P < 15 TONELADA

Ardatz bakuneko balio hori baino handiagoak (P > 15 TONELADA) dituzten zamentzat azterlan berezi bat egingo da, firmearen kapen gogordura eta forma aldaketen egoera aztertuz, eta antzerako eguraldiko aldeetan gehizamaketa berdintsuak jasaten dituzten firmeen jokaera kontutan hartuz.

Zenbaterainoko lodiera izango duten finkatzerako orduan, ez dira kontutan hartuko astunak ez diren ibilgailuen jasatzeak. Tandem ardatzak baliokide diren ardatzetan bihurtzerakoan, ondorengo erlazioa hartuko da kontutan:

P (toneladak) pisua duen tandem ardatz batek P/2 (toneladak) pisua duten 1,8 ardatzen balioa du.

Berdintasun horrek kasu honetan izango du balioa:

Tandem ardatzaren pisua < 25 tonelada

Tandem ardatzeko balio hori baino handiagoak dituzten zamentzat azterlan berezi bat egingo da, firmearen kapen gogordura eta forma aldaketak zehaztuz, eta antzerako eguraldiko aldeetan gehizamaketa berdintsuak jasaten dituzten firmeen jokaera kontutan hartuz.

13 TONELADAKO ARDATZ BALIOKIDEEN KOPURUA

ARDATZ BAKUNAK		TANDEM ARDATZAK	
Zama ardatzeko (t)	Baliokidetasun Kofizientea	Zama ardatzeko (t)	Baliokidetasun Kofizientea
5	0,02	10	0,04
6	0,04	11	0,06
7	0,08	12	0,07
8	0,14	13	0,11
9	0,22	14	0,14
10	0,35	15	0,20
11	0,51	16	0,25
12	0,73	17	0,33
13	1,0	18	0,40
14	1,3	19	0,51
15	1,8	20	0,63
> 15 t	Azterlan berezia	21	0,77
		22	0,92
		23	1,10
		24	1,30
		25	1,54

Ardatz bakoitzari dagokion zamari buruzko datu zehatzik ez izatera, honako baliokidetasuna emango da:

Ibilgailu astun 1 = 13 toneladako 0,8 ardatz

Eta ondorengo mugapen hauek batera ematen direnean bakarrik izango du balioa baliokidetasun horrek:

1.- Firmeak jasan beharko duen gehieneko karga ardatz bakunarentzat, 15 tonelada, eta tandem ardatzarentzat 25 tonelada baino txikiagoa, izan dadila.

2.- Gehien jota, ardatzeko, legezkoak (13 tonelada ardatz bakunean, 25 tonelada tandem ardatzean) diren zamen %15a baino handiagoak izan daitezela.

Aipatutako mugapenak betetzen ez badira azterlan berezi bat egingo da.

Gainera, trafikoaren hazkundearen nondik-norakoa eta karriletikako banaketatari buruzko datu zehatzik ez dagoenean, honako hauek onartuko dira:

1.- Proiektua egiteko epealdian, trafiko astunaren urteko hazkuntza %4ean finkatzen da.

2.- Bi karrileko eta zirkulazio norabide bikoitzeko galtzadetan, ibilgailu astunen %50ak du eragina proiektu karrilean.

3.- Norabide bakoitzeko bi karrildun galtzadetan,

hartutako norabidean zirkulatzen duten ibilgailu astunen %100ak du eragina proiektu karrilean.

4. - Norabide bakoitzeko hiru karril edo gehiagodun galtzadetan, hartutako norabidean zirkulatzen duten ibilgailu astunen %85ak du eragina proiektu karrilean.

3.1.2. idazatian ezartzen den Arau honetako firmearen egituren zerrenda erabiltzeko, bost trafiko maila ematen dira, proiektua egiteko epealdian proiektu karrila ustez erabiliko duten 13 toneladako baliokidetasuna duten ardatzen kopuru batuaren arabera sailkatuak daudenak.

Trafiko mailak	Deitura	Proiektu epealdian eta karrilean 13 t.ko baliokidetasuneko ardatzen kopuru batua
T0	Oso astuna	10 ⁷ baino handiagoa
T1	Astuna	5 X 10 ⁶ - 10 ⁷
T2	Erditsutik Gorako	10 ⁶ - 5 X 10 ⁶
T3	Erditsutik Beherakoa	10 ⁵ - 10 ⁶
T4	Arina	10 ⁵ baino txikiagoa

Ohartemandako trafiko batutakoa 10⁷ ardatz baliokide baino handiagoa denean, instrukzio bereziak eskatuko dira.

Aldizka egiteratzea egin ahal izango denean, lehenengo aldiari dagokion trafiko maila ezingo da proiektua egiteko epealdiari dagokiona baino gradu bat txikiago edo gehiago. Gainera, kasu hauetan, Arau honetan ezarritako bigarren aldiari gehitu beharreko zoladuraren lodiera, argitasun bezala hartuko da bakarrik, eta egiteratu aurretik bera finkatzeko behar diren azterlanak egin beharko dira.

B) Zelaidura

Firmeari neurriak emateko orduan zelaiduraren bi maila emango dira, laborategian finkatzen den CBR neurriaren bidez emandako karga jasatzeko duen ahalmenaren arabera:

Zelaiduraren maila	Karga-jasatzeko ahalmena
1 ZELA.	8 < CBR ≤ 20
2 ZELA.	CBR > 20

Emandako bi maila hauetako batean sailkatu ahal izateko, kontutan hartuko diren erizpideak 1 zk.dun irudian azaltzen dira

Karga-jasatzeko ahalmenari dagokionez, lurrei CBR neurrian balore hauek eskatzen zaizkie sailkatuak izan daitezten:

CBR > 3 duen lursail onargarria
(CBRa 3 baino handiagoa)

CBR > 8 duen lursail egokia
(CBRa 8 baino handiagoa)

CBR > 20 duen lursail aukeratua
(CBRa 20 baino handiagoa)

Karga jasatzeko ahalmenaren ezaugarri honetaz gain, lursailek, aipatutako mailetan sailkatuak izan daitezten, Teknikazko Arau Orokorren Pleguan jasotako granulometria, zabalkortasun, harrotzea, e. a.en beharrak bete beharko dituzte. Onargarriei eskatzen zaizkien gutxienezko arauak betetzen ez dituzten lursailak ez egokitzen joko dira.

Terraplen eta pedraplenetan, aipatutako maila bietako baten sailkatuko da zelaidura (1 ZELA. edo 2 ZELA.), burutzean erabilitako materialaren ezaugarrien arabera.

Terraplena burutzeko ontzat ematen diren lurak, honako hauek dira:

- Egokiak.
- Aukeratuak.
- «In situ» gogortutako onargarriak, karez edo porlanez, gutxienezko 25 cm-ko lodiera baten, horrela, 1 ZELA.an sailkatu daitekeen zelaidura dugularik horrela.
- «In situ» gogortutako egokiak, karez edo porlanez, gutxienezko 20 cm-ko lodiera baten, horrela, 2 LAUTEan sailkatu daitekeen lautada bat dugularik horrela.

Mendi-ebaketak egindako lursailetan, lautada, honen arabera sailkatuko da:

- Lurraren berezko ezaugarriak, gutxienez 60 cm-ko sakontasunean.
- Erabilitako materialaren ezaugarriak eta lodiera, berez dagoen lurra «in situ» ordezkatu edo gogortzen denean.

Garaiera gutxiko terraplenetan egindako sekzioetan indusketa bat gehitu beharra izango da, batzutan, lautada eraikitzeke.

Terraplena egokia ez den lursailean oinarritua badago, bere gutxienezko lodiera 1,30 m-tik gorakoa izango da.

Terraplena eta mendi ebaketak, biak, egindako sekzioetan, terraplenean egin ahal izango da sekzioa, batasun, eraikuntzaren erraztasun eta dreinaiaaren ondorioz.


Haitzean egindako mendi ebaketetan, urak gordetzen dituzten zokoguneak porlanezko hormigoiaz betetzea gomendatzen da. Halere, lan hauek eraikitzeke zailtasuna eta garestitasuna adierazi du esperientziak, eta horregatik, irtenbide alternatibo lez, haitzaren gainean, hezetasunaren gai ez den lurra jartzea planteatzen da.

Lautadaren gainak, gutxienez, kapa freatikoa erabiltzeko puntu altuenaren gainetik metro batetara geliditu beharko du beti, hortarako beharrezko diren neurriak hartuko direlarik, lurrazpitikako drenak jartzea, sestrak jasotzea, arekak sakontzea, eta abar.....

Firme eta arzenetako kapetatik zehar sartutako uraren hustuketa segurtatzea garrantzitsua da, hortarako, lautada, egokiak diren batasun, berdintasun eta aldapekin eraikiko delarik.

Idazati honetan jasotzen ez diren kasuak, eta aipatutako materialen artean jasotzen ez direnekin egindako lautaden proiektua, azterlan berezi baten bidez argituko dira.

1 ZK. KOADROA



c) Firmeen materialak

Urrutitik ekarritako materialen erabilera, orohar, gario kostu handiak direla-eta ezinezkoa egiten den ezkeror, neurri handi edo txikiagoan Euskal Autonomi Elkartearen dauden materialak bakarrik kontutan harturik, aztertzen dira firmearen kapa desberdinak Arau honetan.

Bestalde, kontutan hartutako obra unitate bakarrik, Euskal Herriko eguraldi, trafikoa eta orografia baldintza berdintsuetako beren jokaeretan esperientzia kontrastatua dagoenekoak dira.

Halere, errepideen alorrean ematen den aurrerabide teknikor moldaketa etengabekoa egiten jarraitu ahal izateko, Arau honen izpirituak, ustezko material berri eta obra unitateen pausuz-pausukako erabilera bat egitea uzten du, laborategian bere azterketa eta ezaugarriak finkatzea, eta entseiu bidezatieta duen jokaeraz oharrematea egin ondoren, beharrezko eta ezinbesteko kontuak harturik.

Firme Malguen Zerrendan jasotako obra unitateak honako hauek dira:

- Nahaste bituminosoa.
- Legarra-porlana.
- Lurra-porlana.
- Legarra-zepa.
- Lastra artifiziala.
- Lastra naturala.
- Zepa geldoak.
- Azaleko tratamenduak.

Material eta obra unitateen egiteratzezko ezaugarri orokorrak, Betekizun Tekniko Orokorren Pleguaren dagozkien ataletan definituak datoz, eta behar denean, obra bakoitzaren Betekizun Tekniko Partikularren Pleguko zehaztasunekin osotua.

3.1.2. Firmearen egitura sekzioen zerrenda.

Zoladura bituminosoa duten firmeen egitura sekzioen sorta bat definitzen da ondorengo irudietan.

Zerrendaren aurkezpena, zelaidura maila bakoitzarentzat eman daitezkeen irtenbide desberdinak birzitatzen egiten da:

1 ZELA (8 < CBR < 20) eta 2 ZELA (CBR > 20)

Teknikazko, ekonomiazko eta eraikuntzari buruzko arrazoiak direla batetik, eta errepideetako firmeen jokaeraz oharrematetik bestetik, legarra-porlanezko

oinarria duten sekzioak ez dira egokitzen T3 eta T4 trafikoa mailentzat (erdietsutik beherakoa eta arina, hurrenez-hurren).

Bestalde, legarra-porlanezko basea duten lurra-porlanezko kapetan oinarritutako sekzioek, azalean erretrakzio pitzaduren isladapena ahalbideratzen dute, pitzadura horien zabalera, porlanaren ezaugarrien, aridoen tipologiaren, trafikoa, ingurugiro baldintzen eta eraikuntza alderdien arabera delarik. Beharrezko diren azterlanen ondoren, sartutako ura, zelaiduraren edo firmearen beste kapen ezaugarriak aldatzeko gai den kasuetan, beste irtenbide alternatiboren bat aukeratzea gomendatzen da (legarra-zepa, Olurra-porlana, lastra artifizialak edo zepa geldoadun oinarriak, edo bituminosoa).

Firmearen jokaeran erabateko eragina duten inprimatze, atxekidura eta apainketa arregaketen egiteratze egokiari garrantzi berezia emango zaie.

Bi egitura sekzioen talde bakoitzaren barruan, irtenbide alternatiboen sorta bat eskeintzen da, eta horien artean, teknikazko, ekonomiazko eta eraikuntzari buruzko alderdiak kontutan harturik, egokiena aukeratu du proiektugileak.

Aurrerago jaso den bezala, oinarri hidraulikodun egitura sekzioen bat aukeratu ezkeror, ez da gomendatzen aldiz-aldiko zoladuraren egiteratzea.

Aldiz-aldiko eraikuntza egiten denetan, lehenengo aldirako proiektuan jasotako firmearen azpiko kapak, proiektu guztiaren epealdiari dagokion trafikoa mailarentzat aurrikusitako egiturari egokitu beharko zaizkio.

Baseko eta base-azpiko kapek, alde bakoitzetik, hurrena gainean dituztenek baino 15-30 cm arteko zabalera handiagoa izango dute.

Nahaste bituminosoko kapa bat bota, edo azaleko tratamendua egin aurretik, zera bota beharko da:

- Inprimatze arregaketa bat, oinarrian dauden kapak bituminosoa ez izatera.
- Atxekidura arregaketa bat, kapa bituminosoen gainean izan ezkeror.

Izaera hidraulikodun kapen gainetik (legarra-porlana, lurra-porlana), apainketa arregaketa bat bota beharko da, inprimatze ezaugarria ere izan dezakeena. Halaber, legarra-zepadun kapen gainean ere arregaketa bera egingo da.

ZELAIDURAREN MAILA: ZE 1
(8 < CBR ≤ 20)

TRAFIKO MAILA	EGITURA SEKZIOAK (Lodierak zentimetrotan)				
T1					
T2					
T3					
T4					



















OHARRA: T4 trafiko mailaren kasuan eta proiektatuko den firmea gehien bat turismo edo merkatal ibilgailu arinek arabiltzen badute, (1) irteerak onartuko da.

Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan definituko da nahaste bituminosoen tipologia.

- | | | |
|----------------------------------|------------------------------------|--------------|
| ERRODADURAKO NAHASTE BITUMINOSOA | LASTRA ARTIFIZIALA EDO ZEPA GALDOA | LEGARRA-ZEPA |
| ERDIGUNEKO NAHASTE BITUMINOSOA | LEGARRA-PARLANA | A. T. B. |
| OINARRIZKO KAPAKO BITUMINOSOA | LURRA-PORLANA | |


(1)

ZELAIDURAREN MAOLA: ZE 2
(CBR > 20)

TRAFICO MAILA	EGITURA SEKZIOAK (Lodierak zentimetrotan)				
T1	 6 7 8 9 30	 6 7 9 22 25	 6 7 9 22 25	 6 11 17 20 20	 6 9 15 25 15
T2	 6 7 10 23	 6 11 17 25	 6 9 25	 6 7 13 20 20	 6 7 13 20 20
T3	 5 6 7 18	 5 7 12 20	 5 7 12 20	 5 5 10 20	
T4	 4 8 12	 9 20	 6 20	 DTS 30	(1)


OHARRA: T4 trafiko mailaren kasuan eta proiektatuko den firmea gehien bat turismo edo merkatal ibilgailu arinek arabiltzen badute, (1) irteerak onartuko da.
Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan definituko da nahaste bituminosoen tipologia.

 ERRODADURAKO NAHASTE BITUMINOSOA

 LASTRA ARTIFIZIALA EDO ZEPA GELDOA


 LEGARRA-ZEPA

 ERDIGUNEKO NAHASTE BITUMINOSOA

 LEGARRA-PORLANA

 A. T. B.

 OINARRIZKOKAPAKO BITUMINOSOA

 LURRA-PORLANA

3.1.3. Arzenak

'Arautegi honetako xede diren taiuketa berriko errepideetako arzen guztiak galtzadako zoladurarekin kontrastatuz (kolorea, tankera, e.a.) izango dira zolatuak.

Ondorengo erizpide hauek izango dira kontutan:

a) Trafikoko T1, T2 eta T3 mailentzat, zoladura galtzadakoaren berdintsuko den nahaste bituminoso-lodierak osatuko du.

Oinarrizko kapa bezala, ondorengo irtenbide hauek onartuko dira:

a1) Kapa granular bat, zelaiduraraino sakonduko dena, oinarri eta oinarri-azpi funtzioak betetzen dituena. Euskal Autonomi Elkartearen oinarri-azpi granularrik ez dagoenez, Araban izan ezik, erabiliko diren materialak lastra artifizialak edo tokiko antzerako materialak izango dira (zepak) gehienetan, T2 eta T3ren kasuetan lastra naturalak ere erabiltzen dira, galtzadarako ere hauek jartzen direlarik.

a2) Hidrauliko edo puzolaniko moetak kapa bat, gutxienez 20 cm-ko lodiera duena. Azpi-oinarriko kapa bezala, zelaidurara heltzen den arteko behar den lodierarekin, lastra artifiziala, zepa geldoak edo lastra naturala erabiliko dira.

b) T4 trafiko mailarentzat, nahaste bituminosoaz gain, azaleko tratamendu bikoitz bat erabili ahal izango da arzenaren zoladuratzat. Oinarrizko kaparentzat ondorengo irtenbideak ematen dira:

b1) Zoladura azaleko tratamendu bikoitz bat denean, oinarrizko kapa material granularrekoa izango da, eta gutxienez 15 cm-ko lodierakoa. Azpi-oinarriko kapatzat, zelaidurara heltzen den arte, material granular bat erabiliko da, edo lursail aukeratua.

b2) Zoladura nahaste bituminosoak osatzen duenean, b1-ean jasotakoez gain, moeta hidraulikodun (lurra-porlana) oinarriak onartuko dira, gutxienezko 15 cm-ko lodierarekin.

Dena den, irtenbide guztien artean, galtzadaren firmarekin eraikuntza eta tipologiaren aldeetatiko elkargarritasunaren ikuspegitik egokiena aztertu beharko da. Era berdinean, irtenbide egokiena aztertuko da, baita ere, etorkizunean hori zabaltzeko proiekturen bat aurrikusten bada.

Metro bateko zabalera duten arzenak proiektatzen diren bideetan, arzenaren firmeak, eraikuntza arazoientzat, galtzadarenaren berdintsua izateko aukera izan beharko du, dagozkien azterlan tekniko eta ekonomikoak egingo direlarik.

Firmearen azpi-oinarriko kapak drenatzaileak izan ezker, terraplenaren dreñaia edo aldapa egiteko gai-luak arzenaren azpitik arekara heldu arte luzatuko dira, edozein kasutan, sartutako uren hustuketa egin ahal izateko.

Arzenaren azalak, gaineko uraren hustuketa azkar bat egiteko, egokiak diren aldapak izan beharko ditu.

3.1.4. Zelaiduraren eta firmearen kapen albotarako aldapak.

Zelaiduraren albotarako aldapa, bere luzetarako aldaparen balorearen arabera definituko da, dreñaia-aren diseinurako erizpide egokiak kontutan hartuz.

Azaleko albotarako aldapa eta zelaidurari dagozkion aldaparen arteko desberdintasunak, lodiera

aldakorretan bihurtuko dira, zeharkako sekzioan, firmearen azpiko kapetako bat edo gehiagotan. Lodieren aldakortasun hori ez da onartuko zoladuraren kapetan, kontraktorik justifikatu ez ezik.

Zirkulazio norabide bakoitzeko bi karril edo gehiago dauden bideetan, eman daitezkeen lodieraren desberdintasunak proiektu karrilaren alde erabakiko dira, ibilgailu astunek erabiltzen dutena izatearren.

Egitura sekzioen zerrendan ematen diren lodierak galtzadaren eskubiko ertzari buruzkoak dira.

Hidrauliko (legarra-porlana, lurra-porlana) edo puzolaniko (legarra-zepa) moetako kapak direnean, zeharkako sekzioaren edozein puntutan, lodierak ez dira inoiz egitura sekzioen zerrendan jasotakoak baino txikiagoak izango, material hauen jokabidearen aipatutako arazoak direla-eta jartzen da mugapen hori.

3.2. FIRME EZMALGUGARRIAK

3.2.1. Zenbatekogileak

Gogarpen orokorrak

Firme ezmalgugarri baten kapen izaera eta neurriak ematean eragina duten aldagai biak trafikoaren tipologia eta zelaiduraren maila dira, ondoren zehazten den eran:

- Trafikoak, hau da, proiektu karriletik ustez zirkulatuko duten ibilgailu astunen kopuru eta ezaugarriak, bere menpe bakarrik dagoen hormigoi lauzaren lodiera mugatzen du, lauz honek trafikoarekiko erresistentzi misio ia osoa betetzen duelako (eta lauzaren beraren aldaketa termikoekikoa), azpiko kapetara bidaltzen dituen tentsioak oso txikiak direlarik. Eta era berean, oinarriko kaparen beharrari eta izaerari buruzko eragina ere badu, honek ez bait du erresistentzi mekanikoaren misioa betetzen ia, trafiko astunentzat lauzaren oinarri izateko batasun eta higadurarekiko erresistentziarena baizik, harri xeheen arrastea dela eta, uraren ondorio txarrak uxatuz.

Zoladura lauzaren lodiera, trafikoaren arabera, balore kritiko edo hertsia baino zertxobait handiagoetan finkatzea komeni da, taiuketa berriko errepide zatietan horrek hasierako inbertsioaren garrantzi txiki gehitze erlatiboa suposatzen duelako; eta bestalde, Euskal Herriaren ezaugarri industrial dela eta, ardatz bakoitzeko zamaketa handidun merkatal trafikoaren kopuru handia jasan beharko duen firmearen egitura segurtasun koefizientea nahiko handitzen da. Alderdi hau, bestalde, laster eginbeharreko konponketak suposatzen duen ekonomi kostua eta teknikazko zailtasuna direla eta, garrantzitsuagoa da firme ezmalgugarri baten kasuan.

- Zelaiduraren kalitateak, azpiko oinarri kapa baten beharra finkatzen du, jasan dezakeenarena baino zabalkortasun ezaugarrien arabera gehiago dagoena, jasateko kapazitate txikiak: lur heterogeneoak edo aldaketen menpe daudenak, e. a. ekar ditzakeen beste moeta bateko arazoak direla eta, azpiko oinarri kapa honek gutxienezko balore batzuk gainditzen dituen guztietan.

Beraz, firmearen azpiko kapei neurriak ematerako orduan, ez dira erresistentzia mekanikoa edo jasan dezaketenaren erizpideak jarraitzen, baizik eta aipatutako besteak (materialen arraste edo sorketaren ondorioen aurre-hartzea, eta abar..)

Horiek horrela, kontutan hartuko diren faktoreak ondorengoak ditugu:

A) Trafikoa

Lehenago aipatu den bezala, proiektuak irauten duen bitartean eta proiektu karriletik ustez zirkulatu-ko duten ibilgailu astunen kopuru eta ezaugarrien arabera finkatuko da firmearen egitura. Denboraldi hau 30 urteko izango, Azterlan Aginduak besterik esaten ez duen bitartean.

Trafikoari buruzko azterlanak, kopuruen eta ardatze-ko zamaketen neurketa eginda, eta trafikoa aurrikus-teko dauden datuak hartuko dira oinarritzat; azertu-ko direnak, beraz:

- Trafiko astunaren kopurua.
- Ibilgailu astunen ardatzen tipologia.
- Ardatz bakoitzeko zamaketaren banaketa.
- Proiektu epealdian zehar trafikoaren hazkunde tasa.

Era berean, trafikoaren bilakaera eta karril bakoitzari dagokionari buruzko datu zehatzik eskuraterik ez dagoenetan, ondorengo onartuko da:

- 1.- Proiektu epealdian zehar trafiko astunaren urteko hazkunde tasa %4koa da.
- 2.- Bi karril eta zirkulazio norabide biko galtza-
detan, ibilgailu astun guztien %50a jasatzen du
proiektu karrilak.
- 3.- Zirkulazio norabide bakoitzeko bi karril dituz-
ten galtzadetan, hartutako norabidean zirkulatzen
duten ibilgailu astunen %100a jasatzen du proiektu
karrilak.
- 4.- Zirkulazio norabide bakoitzeko hiru edo
karril gehiago dituzten galtzadetan, hartutako norabi-
dean zirkulatzen duten ibilgailu astunen %85a jasatzen
du proiektu karrilak.

Trafiko maila karrilean eta epealdian 13 tonelada-ko baliokidetasuna duten ardatzen kopuru batuaren arabera ematen da. Hori bai, firme ezmalgugarrien kasuan, ardatzeko zamaketa desberdinek 13 tonelada-ko ardatz bakunarekin duten baliokidetasunen zerrenda bat egitea bereziki zaila gertatzen da, lodie-raren neurri txikiagiaren edo gehizamaketen aurrean duten hauen egitura jokiaeraren ezaugarri kritikoa dela eta. Egia da, 13 toneladatik gorako zamaketentzat, hormigoizko zoladurak har dezakeen gehienezko trak-zio absolutuaren eragina handiagotu egiten dela, zama txikiagoen errepikapenarekin egituraren nekez-ko ahultzearen ondoan. Beraz, zoladuraren lodieran duten eragin kritikoagatik, eman daitezkeen gehienez-ko gehizamaketa absolutuen garrantziaren aurrean, ibilgailu astunen kopuru guztiak baino eragin handi-
diagoa izan dezaketen ardatzeko zamaketen gehiengo maila horren ezaugarriak aurretik guztiz ezagutzea komeni da. Guzti horregatik, ardatzeko 15 toneladako zamaketak arte, proiektu karriletik benetan zirkulatu-ko duten karga sorta 13 toneladako baliokidetasuna duten ardatzetara aldatzea, ondorengo baliokidetasun erlazioaren bidez egingo da.

$$n = (P/13)^8, P \leq 15 \text{ t-entzat balio duena.}$$

P toneladako pisua duen ardatzaren baliokide diren, 13 toneladako ardatzen zenbatekoa delarik n hori.

Ardatz bakuneko 15 t.tik gorako zamaketak daudela jakiten bada azterlan berezi bat egingo da, lauzan dau-
den tentsio eta deformazioen zenbaterainokoa egiazta-
tuz, eta firmeari neurriak ematerakoan, trafikoaren maila
handiago bat hartzearen aukera aztertuz.

Astunak bezala definituak ez dauden ibilgailuen jasatzeak ez dira kontutan hartuko.

P pisuko tandem ardatz bakoitza, P/2 pisuko 2,5 ardatz bakunen baliokidetzat joko da. 25 t.tik gorako P pisu batentzat azterlan berezi bat egitea gomendagarri izan daiteke.

Ardatzeko zamaketen antolaketari buruzko datu zehatzik ez izatera, ondorengo baliokidetasuna emango zaie:

Ibilgailu astun 1 = 13 t.ko 0,70etik 0,90 ardatz

Hauen artean dagoen balore bat trafiko astunaren tipologiari buruz ezagutzen diren ezaugarri orokorren arabera aukeratuko da, eta legezkoak direnak baino gehizamaketa handiagoak ezagutzen diren kasuetan 0,90eko gehienezko balore hortara iritsiz. Balore norma-la 0,80koa izango da.

0,90ko gehienezko baliokidetasuna hartu ezkerero ere, muga bi hauek batera bete beharko dira:

- Ardatz bakunean 15 t.tik eta tandem ardatzean 25 t.tik beherako ardatzeko gehienezko zamaketak.
- Legezkoak direnak (13 t. ardatz bakunetan eta 21 t. tandem ardatzetan) baino ardatzeko zamaketa handia-
goen gehienezko %15eko portzentaia.

Bestela, azterlan berezi bat egin beharko da.

Trafiko mailen definizioa:

Firmearen egitura sekzioen zerrenda erabiltzeko, bost trafiko maila ematen dira ondoren, proiektua egite-ko epealdian eta proiektu karrilean ustez ibiliko diren 13 toneladako baliokidetasuna duten ardatzen kopuru batuaren arabera.

Trafiko mailak	Deitura	Proiektu epealdian eta karrilean 13 t.ko baliokidetasu- neko ardatzen kopuru batua
T0	Oso astuna	10 ⁷ baino handiagoa
T1	Astuna	5.10 ⁶ - 10 ⁷
T2	Erditsutik Gehiako	10 ⁶ - 5.10 ⁶
T3	Erditsutik Beherakoa	10 ⁵ - 10 ⁶
T4	Arina	10 ⁵ baino txikiagoa

B) Zelaidura

Firmeari neurriak emateko orduan zelaiduraren bi maila emango dira:

- 1 ZELA : CBR = 8-20
- 2 ZELA : CBR > 20

Alboko irudian azaltzen dira hauek sailkatu ahal izateko kontutan hartuko diren erizpideak.

ZELAIDURAREN SAILKAPENA

TERRAPLENAK ETA PEDRAPLENAK	EG. 60 ON.	GOG. ON. 25	EG. 60	
MENDI-EBAKETAK	EG. 60 ON.	GOG. ON. 25	EG. 60 GOG. EZEG. 20	EG. 60 A Haitza
TERRAPLENAK ETA PEDRAPLENAK	AUK. 60 ON.	GOG. 20 EG. 60 ON.	AUK. 60	GOG. 20 EG. 60
MENDI-EBAKETAK	AUK. 50 EG.	GOG. 20 EG.	AUK. 60 GOG. EZEG. 20	AUK. 30 B Haitza H-50 B. Haitza
	AUK. 60 ON.	GOG. 20 EG. 50 ON.		
				1 ZE CBR: 8-20.
				2 ZE CBR > 20

Lodierak zentimetrotan.

SINBOLOGIA

- EZEG: Lur ezegokia (BTOParen 330. atala, terraplenak).
- ON : Lur onargarria (BTOParen 330. atala, terraplenak).
- EG: Lur egokia (BTOParen 330, atala, baldintza gehigarri bezala CBR > 8 duela)
- AUK: Lur aukeratua (BTOPren 330, atala, -- baldintza gehigarri bezala CBR > 20 - duela).
- BOG: Karez edo porlanez "in situ" gogor tutako lurra (BTOParen 510 eta 512 atalak, hurrenez hurren: lur onargarri eta ezegoki kohesiboentzat - karez gomendatzen da).
- A HAITZA: Kalitate baldintzak betetzen ez dituen haitz materiala.
- B HAITZA: Kalitate baldintzak betetzen dituen haitz materiala.

Firme malgugarrientzat emandako zelaiduraren sailkapenarekin bat eetortzearen egin - da horrela.

Halere, lehenago esan bezala, firme ezmalgugarriei neurriak ematean zelaidurak hartu dezakeen pisuan eragin txikiagoa duenez, nahiz eta bere zabalkortasun ezaugarriak nabarmenagoak izan, azpi-oinarri drenatsaile bat jartzeko beharrari dagokionez, zelaidura mailak honako hauek izango dira:

- 1 ZE: CBR = 8 - 20 HARRI-XEHE ZABALKORDUNA
- 1 ZE: CBR = 8 - 20 HARRI XEHEK GABEKOA
- 2 ZE: CBR > 20

Terraplen eta pedraplenetan, burutzean erabilitako materialen ezaugarrien arabera egingo da zelaiduraren sailkapena, 8-20 bitarteko CBRetan harri-xehe zabalkorrak egotea edo eza kontutan hartuz. Burutzea egiteko material ontzat ematen dira lur egokiak eta aukeratuak, baita, gutxienezko 25 eta 20 cm-ko sakontasunean, hurrenez-hurren, karez edo porlanez «in situ» gogortutako lur onargarriak eta egokiak ere.

Mendi-ebaketak egindako lursailetan, zelaiduraren maila gutxienez 60 cm-ko sakontasunean lurraren berezko ezaugarrien eta erabilitako materialaren ezaugarri eta lodieraren arabera izango da berez dagoen lurra «in situ» ordezkatu edo gogortzen denean.

Garaiera gutxiko terraplenetan egindako sekzioetan zelaidura eraikitzeke, batzutan, indusketa bat gehitu beharra izango da. Terraplana egokia ez den lursail baten oinarritua badago, bere gutxienezko lodiera 1,30 m-koa izango da.

Terraplana eta mendi ebaketak, biak, egindako sekzioetan, terraplanean egin ahal izango da sekzioa, batasun, eraikuntzaren erraztasun eta dreñaia beharrek horrela gomendatzen dutenean.

Berezko lurraren ordezkatzeko egitea ekonomikoki ezinezkoa den hainako sakontasunean egokia ez den lurrek osatua dagoen ebaketetan, zelaiduran eragina izango duten ezarkuntzen eta bolumen aldaketen arriskurik ez dagoela egiaztatu beharko da, aipatutako ordezkatzeko edo gogortze gutxienezko lodierak errespetatuz. Bestela, azterlan berezi bat beharko da.

Haitzean egindako mendi ebaketetan, urak gordetzen dituzten zokoguneak H-50 moetak porlanezko hormigoiaz betetzea gomendatzen da. Halere, lan hauek egiterakoan eraikitzeke zailtasuna eta garestitasuna azalduko direla uste bada, batez ere kalitate txarreko haitzean, irtenbide desberdin bezala, haitzaren gainean, hezetasun gai ez diren ezaugarridun lur bat jartzea ematen da.

Zelaiduraren gaina, gutxienez, kapa freatikoren uesteko puntu altuenaren gainetik m. lera gelditu beharko du beti. Honetarako eta beharrezko denean, zelaiduraren sestrak jasotzea, arekak sakontzea, lurrazpitikako drenak jartzea, e. a. bezalako neurriak hartuko dira.

Batez ere arzena eta galtzadaren arteko eta zoladuraren juntetatik zehar sartutako uraren hustuketa segurtatuko da beti, hortarako, zelaidura, egokiak diren batasun, berdintasun eta aldapekin eraikitzea garrantzitsua delarik, haitzean egindako ebaketetan ere xehetasunok zainduko direlarik.

Zelaidurak aipatutakoen artean ez datozen materialekin proiektatzen direnean (zepak, airetikako hautsak, e. a.), ahal den neurrian analogiaz sailkatuko dira, eta bestela, azterlan berezi baten bidez.

C) Firmearen materialak.

C.1. Guztientzakoak.

Arautegi hau idazterako momenturainoko obra unitate erabilienetatik eta zerbitzuan jokaera ezaguna dutenetatik gain, teknikaren azken aurrerabide eta joeren arabera erabiltzen hasi direnak hartu dira kontutan, baita tokiko bertako materialen eta fabrikazio azpiproduktuen (zepa granulatu eta kristalduak, eta airetikako hautsak) onura handiago bat ahalbiderraten dutenak ere, eta bestalde, Euskal Herrian, Araban izan ezik, legar naturalen eza kontutan hartuz.

Lehenengoentzat, materialen ezaugarri orokorrak eta obra unitateen egiteratzea BTOP-aren (MOPUaren Errepideen Zuzendaritza Nagusiaren Errepide eta Zubien Obretarako Betekizun Tekniko Orokorren Plegua, PG-3/75) dagozkion ataletan datoz definituak, eta besteak beharrezkoa den Betekizun Teknikoen Pleguan jaso beharko dira, azpiproduktudun unitateen kontu bereziaz, normalean nondik datozenaren arabera, azterlan berezi bat beharko dute.

Era berean, eta errepideen alorrean ematen den teknikazko eboluziora moldaketa etengabekoa egiten jarraitu ahal izateko, Arau honen izpiritua, eman daitezkeen material berri eta obra unitateen pausuz-pausukako erabilera bat egitea uzten du, laborategian bere azterketa eta ezaugarriak finkatzea, eta entseiu bidez zati-tan duen jokaeraz oharrematea egin ondoren, beharrezko eta ezinbesteko kontuak harturik.

Horren jarraian, Proiektuaren Betekizun Tekniko Partikularren Pleguan, zenbait obra unitateentzat, ezarri beharreko zenbait betekizun gehigarri ematen dira, hartutako unitateen zerrenda osoa egiten delarik, arzenei dagozkienak barne.

C.2. Hormigoizko Zoladura.

Aipatzen diren hormigoi moetak BTOParen 550. atalean jasotakoak dira (lehenago aipatutako PG-3/75).

BTOP horren arabera, zoladura hormigoietan erabiliko den arido xehea mugarrezko hondar naturala izango da, Betekizun Tekniko Partikularren Pleguan besterik esaten duenean izan ezik. Baina edozein kasutan arido xehe horien mugarrezko partikulen portzentaia ehuneko hogeitamarrekoa (%30) baino handiagoa izango da.

T0, T1 eta T2 trafiko mailentzako zoladuretan, HP-45 edo HP-40 hormigoi moetak erabili ahal izango dira.

T3 eta T4 trafiko mailentzako zoladuretan, HP-40 edo HP-35 hormigoi moetak erabili ahal izango dira.

Juntei dagokienez, Arautegi honen 3.2.3. atalburuak dioena hartu beharko da, gainera, kontutan.

Orohar, zoladura ore hormigoi lau ezkoa izango da.

Halere, zenbait kasutan eta arrazoi tekniko eta ekonomikoak direla eta komenigarritasuna ikusten den guztietan, juntak dituen hormigoi armatuko zoladurak proiektatu ahal izango dira (arrazoi nahikoa ematen den kasuetan bakarrik, atzeraka bait doaz, eta abantaila bakarra kontrakzio junten arteko tarte handiagoa dutenak) edo etenik gabeko hormigoi armatuko zoladurak (armaduraren koste gehigarriaren zati bat juntak kentzearekin eta lauzaren lodieran gutxitze txiki batekin erdibanatzen da). Kasu hauetan ondorengoa hartu beharko da kontutan:

a) Juntak dituen hormigoi armatuko zoladurak:

T0 eta T1 trafiko mailentzat bakarrik izango dira.

Metro karratuko altzairuaren gutxienezko erabateko pisua ondorengoa izango da:

Trafiko maila	Kontrakzio junten arteko tarea	
	< 8 m	8 - 12 m
T0	2,5 Kg/m ²	3,0 Kg/m ²
T1	2,0 Kg/m ²	2,5 Kg/m ²

b) Etenik gabeko hormigoi armatuko zoladurak:

Orohar, T0 trafiko mailentzat bakarrik izango dira, eta kasu berezietarako.

Galtzadaren zeharkako sekzioan luzetarako armaduren gutxienezko zenbatasun geometrikoa ondorengo izango da:

Saltsarri moeta	Zenbatasun geometrikoa
HP-45	% 0,7
HP-40	% 0,6

Zoladuraren adarretan eta beharrezkoa duten sekzio berezietan, behar diren lurrarekiko ainguratzeak jarriko dira.

Azalaren tankera:

Tankera luzetarako edo zeharkako ahal izango da, bi zentzuetan ere konbinatu ahal izango delarik, ildaskatu (mikrotankera) eta bitarteduna (makrotankera). Erabiliko den azaleko tratamendu moeta Betekizun Tekniko Partikularren Pleguak finkatuko du, edo honek ez bada Obra Zuzendariak, kasu zehatz bakoitzeko zirkunstantzien arabera eta ondorengoak kontutan hartuz:

- Luzetarako moetak tankerek hau suposatzen dute:

- Errodadura zarata gutxiagokoa.
- Zeharkako atxekidura hobea (bihurgune itxiko bidezatietan eta zoladura bustiarekin istripuen estatistikek murriztuz).
- * Iraunkorragoa, seguraski.
- * Euri uraren zeharkako hustuketa txarragoa, luzetarako irristaduraren aurrean erresistentziaren murriztearekin eta txipristinen gehiagotzearekin.

- Zeharkako moetako tankerek kontrako ezaugarriak agertzen dituzte, hau da:

- Errodadura zaratatsuagoa.
- Trafikoaren eta pneumatikoen higaduraren ondorioz kiskaldura handiagoa.
- * Euri uraren hustuketa hobea, lehenago aipatutako eragozpenekin bukatuz.

Eraikuntza xedapen bereziak

- Fabrika-obren tableroen gaineko zoladura: nahiz eta orohar nahaste bituminosoko kapa bat, beroan, proiektatuko den (C.10 atalburuak dioenez), zenbaitetan, eta obraren garrantzitasunak eskatu ezker, zoladura hori konpresio kapa bera izatea eman daiteke, 5 cm-tan gehitua, bukaera-emale gailu egoki batekin burutzea beharrezkoa delarik.

- Fabrika-obretarako sarbiderako azken zoladura lauzan, ore hormigoizkoa bada, proiektuan mugatuko den azpiko armadura bat jarriko zaio, transizio lauza bezala; haien estriboak haitzaren gainean ez daudenean, gainera, firmearen kapen azpian, estriboan oinarritutako beste transizio lauza bat jartzearen kalteetan gabe.

- %7 baino ranpa handiagoetan, eman daitezkeen lauzen zamalkatzeak gerta ez daitezen, gutxigorabehera 100 m. bakoitzeko, metro bat baino zabalera handiagoko zarpa bat jarriko da, alboetako lauzei ziriakin lotuta, eta zelaiduraren azpian 0,30 m-ko gutxienezko barneratze batekin.

C.3. Hormigoi pobrea

Hormigoi pobre bibratuak, beste batzuen aurrean, higadurarekiko erresistentzia abantaila agertzen du, trafiko astun, eguraldi euritsu, dreñaia gutxiegi edo ziri gabeko juntadun lauzak, hauek guzti ondoriotan bateratu bezala azpi-zuloen agertzea eta beren mailakatze eta apurtzea baztertuz. Era berean, obraren trafiko berarentzako ere onuragarria da eta bere kosto handiagoa aztertzerakoan, hormigoizko zoladurarentzat erabili ziren ekipo berdinak erabiltzea kontutan hartu behar da bestalde, bai fabrikazioan eta bai obran jartzerakoan.

Guzti horrengatik, T0 eta T1 trafiko mailentzat honen erabilera kontutan hartu behar izango da, nahiz eta juntetan ziriak jartzea beharrezkoa izango den, baita T2 trafikoarentzat ere, ziri horiek jartzen ez badira.

Eman daitekeen jatorri zehatzeko airetikako hautsen gehitzea ere aztertu ahal izango da, bakoitzaren azterlan baten bitartez, porlana ekonomizatzeko asmoz eta lanerako erretasun handiagoa eta hidratazio bero bajuago bat lortzeko.

C.4. Legarra-porlana.

BTOParen 513. atalean jasotakoak jokatuko du (PG-3/75).

T0 eta T1 trafiko mailentzat eta T2arentzat juntetan ziriak jartzen ez badira, galtzadaren oinarritzko kapa bezala erabiltzen denetan, porlanezko gutxienezko %4,5eko edukina eskatuko zaio, higiduragarritasun handienaren puntu kritiko bezala ezagutzen dena.

Fraktura aldeei buruzko betekizuna ez betetzea ahal izango duten GC1 moetako granulometriak erabiliko dira.

Arzenetan GC2 moetako granulometriak ere erabili ahal izango dira.

Zenbait kasutan, porlanaren orde, airetikako hautsen eta karearen eman daitekeen erabilera aztertu ahal izango da, emaitza on batzuen berme diren azterlan zehatzak daudenean.

C.5. Legarra-zepa.

BTOParen 515. atalak jokatuko du (PG-3/75), zepa granulatuen jatorriaren arabera beharrezko diren betekizun gehigarriekin.

Higidurarekiko erresistentzia frogatuz kontrako arrazoitu ez ezik, ez da T0 trafikoentzat galtzadetako oinarritzat erabiliko.

Zepa kristaldua arido geldo bezala erabili ahal izatea ere aztertu ahal izango da.

C.6. Material iragazkor tratatua.

Sailkapen honen barruan hormigoi pobre poroduna eta legar-emultsio poroduna sartzen dira, bai galtzadan azpi-oinarri drenatzaile bezala edo bai arzenen azpitikako alboko dreñaia edo dreñaia erreten bezala erabili ahal izango direnak.

C.7. Lastra artifiziala.

BTOParen 501. atalak jokatuko du (PG-3/75).

3.2.4. atalburuan jasotako kasuetan arzenetan erabili ahal izango da.

C.8. Harri-xeherik gabeko lastra artifiziala.

Bere erabilera material iragazkor tratatua baino kalitate gutxiagoko galtzadaren azpi-oinarri drenatzaile

le bezala hartuko da kontutan, eta arzenetako alboko drenaia kapa bezala, luzetarako drenaiarako beste biderik ez dagoenetan (erreten drenatzaile eta zirrikituak dituzten hodiak).

C.9. Lastra naturala.

BTOParen 500. atalak jokatu du (PG-3/75), BH > 30 betekizun gehigarriarekin. T3, T4 eta T5 trafiko koei dagozkien egitura sekzioentzat kalitate gutxiagoko azpi-oinarriaren irtenbide alternatibo bat izango da. Arzenetan ere erabili ahal izango da, 3.2.4. atalburuan jasotako kasuetan, trafiko maila guztientzat.

C.10. Nahaste bituminosoak.

BTOParen 541. eta 542. atalek jokatu dute (PG-3/75).

3.2.4. atalburuan definitutako kasuetan arzenetako zoladura bezala erabiliko dira.

Era berean, fabrika-obretako zoladuretan ere erabiliko dira, gutxigorabehera 5 cm-ko lodierako D edo S moetak nahaste bituminosoa, beroan, botako delarik, tableroaren iragazkaitzaketa egoki batekin osoturik (beirazko fibradun mastik bituminosoa, bike-epoxya, e. a.); C.2. atalburuan jasotako kasu berezian izan ezik.

C.11. Azaleko tratamenduak

Arzenetako zoladurentzako BTOParen 532. atalak jokatu du (PG-3/75), 3.2.4. atalburuan definitutako kasuetan.

C.12. Beste obra unitate batzuk

- Apainketa arregaketa: bai hormigoi pobrezko oinarri kaparentzat, bai zoladurarentzat, produktu filmogeno bereziekin egin beharko dira, merkatuan dauden arteko petrolio-erretxinen bidez, hauen aukeraketa oso garrantzitsua delarik, BTOParen 285. ataleko (PG-3/75) betekizunak bete beharko direlarik.

Legarra-porlana edo legarra zepazko oinarrientzat, arregaketa nahasle bituminoso batekin egingo da.

- Atxekiduraren kontrako arregaketa: oinarriaren gainean, zoladura bota aurretik, pitzadurak hartatik honetara transmititu ezin daitezen erretxin eta parafindun produktu batekin egin beharko delarik. T1 eta T2 trafiko mailentzat eraikitze orri edo polietilenoazko orri batek ordezkatu dezake, nahiz eta hain gomendagarria izan ez.

- Inprimatze arregaketa: arzenetako lastra artifizialaren gainean, irtenbide hau ematen zaien arzenetan, aglomeratua bota aurretik, BTOParen 530. ataleko (PG-3/75) arauak bete beharko direlarik.

- Zirrikituak dituzten drenaiarako hodiak: galtzada-arzenaren juntaren azpitik proiektatzeko, dagozkien erreten drenatzaileak bilduta, azpi-oinarri drenatzailea ez dagoeneko kasuetan eta errepide garrantzitsuak direnez, arzenetako kapa drenatzaileen bidez zeharkako drenaia aukeratu beharrean, beste irtenbide hau aukeratzera eramango duen bide drenatzaile horien zaintze egoki bat kontutan hartu dadin kasuetan bakarrik.

- Geotestila: eho gabeko feldroa, harri-xeheak dituzten kapa edo zelaidurekin, eta xeheon kutsadura eman ez dadin, kontaktuan dauden arzenetako kapa edo drenaia erretenetako material iragazlearen kaptetan jartzeko dena. Zenbait kasutan lauza eta oinarriaren arteko ertzaren alboan ere erabilgarri izan daiteke kapa horien artean harri-xehea sartu ez dadin.

- Hormigoiaren gehigarriak: bere molderraztasun egokia eta Betekizun Teknikoen Pleguan zehastutako barruan duen aire portzentaia mantentzeko beharrezko diren plastikotzaile eta aireatzaileak.

3.2.2. Firmearen agitura sekzioen zerrrenda

Ondorengo irudietan definitzen dira, 3.2.1. atalburuan definitu diren zelaidura eta trafiko mailen arabera, galtzadentzat proiektatuko diren firme ezmalgarrien egitura sekzioak.

Ikusi ahal daitekeen bezala, zoladuraren lodiera zehaztutako hormigoi moetak arabera ematen da, firmearen azpiko kapen moetak arabera irtenbide alternatiboak ere agertzen direlarik.

Trafikoaren eta zelaiduraren maila berdinentzat, ore hormigoizko eta junten bidez armatutako hormigoizko zoladurek lodiera berdina izango dute, nahiz eta azken moeta honetakoak egingo ez diren, 3.2.1. atalburuan jasotakoaren arabera ziurtatze egoki baten bidez izan ezik.

Orokorki kapek aipatutako lodiera berdina izango dute zeharretara, ondorengo arauei jarraituz lodiera aldakor batekin egiten direnetan izan ezik:

- Zirkulazio norabide bikoitzeko bi karrildun galtzadetan, zoladurak lodiera konstantea izango du, zoladura eta zelaiduraren zeharkako aldapak bat ez datozenetan, firmearen azpiko kapan, definitutakoaren berdina edo handiagoa den beharrezko lodiera aldakorra emango zaiolarik.

- Zirkulazio norabide batentzat karril bi edo gehiago daudenetan, hormigoizko zoladura zeharkako aldakuntza uniformeko lodierakoa izan ahalko da, lodiera hori, proiektu karrilaren edozein puntutan karril horrek ustez jasan beharko duen trafikoarentzat definitutakoaren berdina edo handiagoa izan beharko denaren baldintza betez; beste karriletan, edozein puntutan zoladurak hartzen duen gutxienezko lodiera ez da proiektu karrilaren mailaren hurren azpikoari dagokiona baino txikiagoa izango. Kasu honetan, firmearen azpiko kapak beharrezkoa den lodiera izango du, zoladuraren lodiera horren eta zelaidura eta galtzadaren zeharkako aldapen arabera, hartutako edozein puntukoaren berdina edo handiagoa izango delarik.

Hormigoizko zoladuraren azpian dagoen oinarriko kapak, zoladura hori baino gutxienez 30 cm-ko zabalera handiagoa izango du alde bakoitzetik. Azpi-oinarriko kapa bat dagoenetan, oinarriko kapa baino gutxienez 20 cm-ko zabalera handiagoa izango du alde bakoitzetik.

Sinpletasun arrazoiengatik, 3.2.1. atalburuan aipatutako apainketa arregaketa eta atxekiduraren aurkako ez dira irudietan ezarri.

Kasu partikular bakoitzean Injenieri proiektatzaileak aukeratuko du teknikaz eta ekonomiaz egokiena egiten den irtenbidea, hortarako, zelaiduraren proiektuarekin duen lotura, firmearen kapentzat materialen erabilgarritasunak, obra unitateen kostua, obra bolumenak, e. a. kontutan hartuz, eta firmearen egitura moeta besteak kontutan hartzeke aukeratzea ezingo delarik egin, baizik eta aukeratu beharreko beste eraikuntza aldeekin bat eginda (junten tratamendua, galtzadaren gehizabalera, arzenen kalitatea, drenaia bideak, e. a.), guzti horrek aukerabide asko eskeintzen dituelarik.

Hau dela eta, juntadun hormigoizko zoladuraren kalitate mailan eta, beraz, iraunkortasunean, zerikusia

duten faktoreztat hauek hartuko dira kontutan, honek ez du esan nahi denak batera eta gradu gorenean hartu beharko direnik, teknikazko ikuspegitik oso ona izango litzatekeena, baina ez ekonomiazkotik, baina bai kasuan-kasuko egokienak aukeratu:

- Juntan zerratzte eta itxitzea (Euskal Autonomi Elkartean, bertan ematen diren euri maila handiak direla eta urak sartu ez daitezen, oso interesgarria dena; eta helburu honetaz gain, zoladuraren azpiko aldean batu daitezkeen harri-xeheak sartu ez daitezen ere balio du, eta ertzen markestea gerta ez dadin ere bai, hauen zatiak juntan sartzean narriadura progresi-boa sortu dezaketelarik. 3.2.3. idazatian ezartzen dira gai honi buruzko betekizunak).

- Juntetan ziriak jartzea (kostu handi bat suposatzen dute, baina kargak antolatzerako orduan erabateko garrantzia dute eta, beraz, lauzen mailakatzea eman ez dadin, eta horregatik ezinbestekotzat joko dira trafiko astunentzako, Euskal Autonomi Elkarteko egu-

raldia kontutan hartuz. Honi buruzko betekizunak 3.2.3. atalburuan jasota datoz).































- Higadurarekiko erresistentziadun oinarriak (3.2.1. idazatian aipatutako arrazoiengatik gomendagarriak, hots, lauzen azpiko zuloak agertu ez daitezen, eta trafiko kopuru handiek, urak eta harri-xeheen arrateak eragindako ondorioz lauak apurtu ez daitezen).

- Egitura drenatzaile egoki baten diseinua (bai 3.2.1. idazatian ezarritako dispositibo drenatzaileen bidez, edo arzenetan jarritako behar den bezala babestutako kapa drenatzaile baten bidez).

- Arzenetan legarra-porlana edo porodun hormigoia erabiltzea (lauzen ertzetan gogordura kritikoak eta deflexioak gutxiagotzeko).

- Arzenarekin kontaktua egiten duen edo eskubi-ko ertzean galtzadaren gehizabalera (trafikoa ertz hor-
tatik aldentzeko eta aurreragoko emaitza berak lortze-ko).

**FIRME EZMALGUGARRIETAKO EGITURA SEKZIOAK
TRAFIKO ASTUNAK**

Z	HARRI-XEHE ZABALKORDUN 1 ZE (8 < CBR ≤ 20)				HARRI-XEHE ZABALKORRIK GABEKO 1 ZE eta 2 ZE (CBR > 20)	
T						
T-0 > 10 ⁷	II-011-a IIA-011-a  28 II-012-a IIA-012-a  28 II-011-b IIA-011-b  30 II-012-b IIA-012-b  23	II-021-a IIA-021-a  28 II-021-b IIA-021-b  30				
	IIAC-011  24 IIAC-012  24 IIAC-013  24 IIAC-014  24	IIAC-021  24 IIAC-022  24				
T-1 5. 10 ⁶ - 10 ⁷	II-111-a IIA-111-a  25 II-112-a IIA-112-a  25 II-111-b IIA-111-b  27 II-112-b IIA-112-b  27	II-121-a IIA-121-a  25 II-121-b IIA-121-b  27				
	II-113-a IIA-113-a  25 II-114-a IIA-114-a  25 II-113-b IIA-113-b  27 II-114-b IIA-114-b  27	II-122-a IIA-122-a  25 II-122-b IIA-122-b  27				
	II-115-a IIA-114-a  25 II-116-a IIA-116-a  25 II-115-b IIA-115-b  27 II-116-b IIA-116-b  27	II-123-a IIA-123-a  25 II-123-b IIA-123-b  27				

Lodierak zentimetrotan

SIMBOLOGIA

Sekzioen nomenklatura:

- H : Ore hormigoizko zoladurarekin
 HA : Juntekin armatutako hormigoizko zoladurarekin (Ez proiektatu normalki)
 HAC : Etenik gabeko hormigoi armatutako zoladurarekin
 -a: HP-45 hormigoia
 -b: HP-40 hormigoia
 -c: HP-35 hormigoia

Firmeko kapen nomenklatura:

- P-45 : HP-45 (3.2) hormigoizko zoladura
 P-40 : HP-40 (3.2) hormigoizko zoladura
 P-35 : HP-35 (3.2) hormigoizko zoladura
 HP : (3.3) hormigoi pobrea
 CG : (3.4) legarra-porlana
 GE : (3.5) legarra-porlana
 MPT : (3.6) material iragazkor tratatua
 ZAD : (3.8) Harri-xeherik gabeko lastra artifiziala

FIRME EZMALGUGARRIETAKO EGITURA SEKZIOK
 TRAFIKO ERDITSU ETA ARINAK

Z	HARRI-XEHE ZABLAKORDUN 1 ZE (8 < CBR ≤ 20)				HARRI-XEHE ZABLAKORRIK GABEKO 1 ZE eta 2 ZE (CBR > 20)							
T							II-211-a HA-211-a 23 15 15	II-212-a HA-212-a 23 15 15	II-211-b HA-211-b 23 15 15	II-212-b HA-212-b 23 15 15	II-221-a HA-221-a 23 15	II-221-b HA-221-b 25 15
T-2 10 ⁶ - 5. 10 ⁶							II-213-a HA-213-a 23 15 15	II-214-a HA-214-a 23 15 15	II-213-b HA-213-b 25 15 15	II-214-b HA-214-b 25 15 15	II-222-a HA-222-a 23 15	II-222-b HA-222-b 23 15
							II-215-a HA-215-a 23 15 15	II-216-a HA-216-a 23 15 15	II-215-b HA-215-b 25 15 15	II-216-b HA-216-b 25 15 15	II-223-a HA-223-a 23 15	II-223-b HA-223-b 25 15
T-3 10 ⁵ - 10 ⁶	II-311-b 22 15		II-311-c 24 15		II-321-b 22	II-321-c 24						
T-4 < 10 ⁵	II-411-b 20 15		II-411-c 22 15		II-421-b 20	II-421-c 22						

Lodierak zentimetrotan

SIMBOLOGIA

Sekzioen nomenklatura:

- H : Ore hormigoizko zoladurarekin
- HA : Juntekin armatutako hormigoizko zoladurarekin (Ez proiektatu normalki)
- HAC : Etenik gabeko hormigoi armatuko zoladurarekin
 - a: HP-45 hormigoia
 - b: HP-40 hormigoia
 - c: HP-35 hormigoia

Firmeko kapen nomenklatura:

- P-45 : HP-45 (3.2) hormigoizko zoladura
- P-40 : HP-40 (3.2) hormigoizko zoladura
- P-35 : HP-35 (3.2) hormigoizko zoladura
- HP : (3.3) hormigoi pobrea
- CG : (3.4) legarra-porlana
- GE : (3.5) legarra-porlana
- MPT : (3.6) material iragazkor tratatua
- ZAD : (3.8) Harri-xehetik gabeko lastra artifiziala

3.2.3. Juntak**A) Luzetarako juntak**

Orokorki, zirkulazio karrilen artean jarriko dira.

Oinarriko kapan ere, zerrendan jarrita daudelako, luzetarako eraikuntza junta egon ezker, zoladura juntarekiko gutxienez 30 cm gorde beharko ditu.

Luzetarako juntak alabeokoak edo hormigoizkoak izan daitezke.

a) Luzetarako alabeo juntak:

Luzetarako alabeo juntak hormigoiazen zabalera 5 m-tik gorakoa denean jarriko dira.

Egin-berritan edo hormigoi gogortuaren zerratze bidez egin ahal izango dira.

T0 eta T1 trafiko mailentzat diren zoladuretan, zerratua eta ondoren itxitzea eginda gauzatu beharko dira, T2 eta T3 trafiko mailentzat ere gomendatzen delarik.

Zerratutako tarteko goiko aldearen hasierako zabalera, itxitze produktua sartu ahal izateko, 6 eta 9 mm artekoa izan beharko da, horretarako honen aurrekajaketa egiteko beharra aztertu ahal izango delarik.

Besterik ziurtatzea izan ezik, ebaketaren gutxienezko sakonera honako hau izango da:

Zoladuraren lodiera	Ebaketaren gutxienezko sakonera
30 cm.	10 cm.
28 cm.	9 cm.
25-24 cm.	8 cm.
23-22 cm.	7 cm.
20 cm.	6 cm.

b) Luzetarako hormigoizko juntak:

Alboan dauden bi zerrenden artean jarriko dira luzetarako hormigoizko juntak, hormigoiz betetzea zerrendetan egiten denetan. Bete-betetakoak edo tarte eta mihidunak izan daitezke, T0, T1 eta T2 trafiko mailentzat azken moeta hau gomendatzen delarik.

T0 eta T1 trafiko mailentzat diren zoladuretan, hauen itxitzea ere eginbeharrekoa izango da, T2 eta T3 trafiko mailentzat ere gomendatu egiten delarik. Itxitzea egin aurretik goiko aldeko kajaketa bat egingo da, alabeo juntentzat emandako zernolazok.

T0 eta T1 trafiko mailentzat diren zoladuraren luzetarako juntetan 12 mm-ko diametroko, 0,80 m-ko luzerako eta beren artean m 1 duten zeharkako bata-sun-barrak jarriko dira; beste trafiko mailentzat hauen erabilera gomendagarria delarik.

Soka baten bidez juntaren behin-behineko herspena egitea gomendatzen da, itxitze produktua botatzen den edo errepideko trafikoarentzat zabaltzen den arteko bere garbitasuna segurtatzeko.

Lehenago aipatutako junten elementu ezberdinak gomendagarri bezala dituztela finkatu diren trafiko mailentzat, erabilitako oinarrien kalitatearen arabera, gutxienez haietariko bat izan dezatelako ahaleginak egingo dira.

B) Zeharkako juntak

Zeharkako juntak kontrakzio, dilatazio eta hormigoizkoak izan daitezke.

a) Zeharkako kontrakzio juntak:

Hormigoiazen hasierako atzerapenak eta aldakuntza higrotermikoek eragindako pitzadurarik ez agertzea egiten dute.

Zeharkako kontrakzio juntak egin-berriaren gainean edo hormigoi gogortuaren zerratze bidez egin ahal izango dira.

T0 eta T1 trafiko mailentzat diren zoladuretan, eta T2arentzat, hormigoi pobrezko oinarririk ez izatera, zerratua eta ondoren itxitzea eginda gauzatu beharko dira, beste trafiko mailentzat ere gomendatzen delarik.

Zerratutako tarteko goiko aldearen hasierako zabalera ez da 6 mm-koa baino txikiagoa izango, itxitze produktua bota aurretiko kajaketa egiteko beharra aztertu ahal izango delarik. Itxitzea eginbeharrekotzat jo ez den trafiko mailentzat, tartea ahalik eta hasierako zabalera txikiena izango du, 3,5 mm baino txikiagoa izango dena, beti.

Besterik ziurtatzea izan ezik, ebaketaren gutxienezko sakonera lauzaren lodieraren laurdenaren berdina izango da, hau da:

Zoladuraren lodiera	Ebaketaren gutxienezko sakonera
30 cm.	7,5 cm.
28 cm.	7,0 cm.
25-24 cm.	6,0 cm.
23-22 cm.	5,5 cm.
20 cm.	5,0 cm.

Ore hormigoizko zoladuretan, eta T0 eta T1 trafiko mailentzat, zeharkako kontrakzio juntetan 25 mm-ko diametroko, 0,50 m-ko luzerako eta beren artean 0,30 m-ko tarte dute ziriak jarriko dira, zoladuraren lodieraren erdigunean kokatuak eta juntarekiko simetrikoak. T2 mailako trafikoentzat, ziriak ezartzearen irtenbide alternatibo bezala, hormigoi pobrezko oinarri bat aukeratzeaz gain, bertatik trafiko aldendu eraziz, bere eskubiko ertzean galtzadari gehizabalera bat ematea aztertu ahal izango da, edo baita lagarraportlanean oinarria duten arzenak jartzea.

Zeharkako kontrakzio juntak dituzten hormigoi armatuzko zoladurentzat, ziriak jarriko dira beti juntetan, lehen aipaturiko ezaugarriekin.

Besterik ziurtatzen ez bada, zirik gabeko zeharkako kontrakzio juntak zeharretara ebakiak izango dira, galtzadaren ardatzarekiko 6:1eko inklinazio batekin zeharka ebakiak izango dira, ardatz bakoitzaren ezkerretikako gurpilak eskubikoak baino lehena-igo igaro ditzaten juntak (alboko lauzen arteko kargen antolaketa hobetzeko eta ardatz bakoitzeko bi gurpilak lauza batetik urrengora batera pasa ez daitezen). Junten arteko tarte aldakorra izango da eta 3,75 eta 4,50 m bitartekoa, 3,75 - 4,50 - 4,00 - 4,25 moetak sekuentzia batekin.

Besterik ziurtatzen ez bada, ziriak dituzten zeharkako kontrakzio juntak, ore hormigoizko zoladuretan, 5 m bakoitzeko jarriko dira, galtzadaren ardatzaren norabide normalean. Hormigoi armatuzko zoladuretako zeharkako kontrakzio juntentzat (lehenago jasotako bezala beti ziriak izango dituztenak) beren arteko tarte 8 m-tik gorakoa ez izatea gomendatzen da, onartzen den gehienezko tarte 12 m-koa delarik.

Luzetarako juntetan bezala, soka baten bidez zeharkako kontrakzio juntan behin-behineko herspena egitea gomendatzen da, itxitze produktua botatzen den arteko edo itxiak ez badoaz errepidea trafikoari zabaldu arteko garbitasuna segurtatzeko.

Era berean, lehenago aipatutako juntan elementu ezberdinak gomendagarri bezala dituztela finkatu diren trafiko mailentzat, erabilitako oinarrien kalitatearen eta ostantzeango erakuntza xedapenen arabera, gutxienez haietariko bat izan dezate'ako ahaleginak egingo dira.

b) Zeharkako dilatazio juntak:

Hormigoizko zoladuran agertzen diren esfortzuak, dilatazio juntak egiteratzen ez badira, arriskurik bate-re ez dutela egiaztatu da, batez ere nahiko hurbilean kontrakzio juntak egon ezker; kasu zehatzetan izan ezik, erradio txikidun bihurgunean dauden bidezatiak, eta lauzen mugimendua ezinezkotua egon daitekeen puntuak diren bezalakoetan. Bestalde, lan handikoak eta garestiak suertatzen dira beren egiteratzeko orduan, puntu makalak dira zoladuraren gordetze eta iraunkortasunarentzat eta errodaduraren kalitatea murrizten dute. Guzti horrengatik, ondorengo arauak jarraituko dira:

Zeharkako dilatazio juntak ondorengo kasuetan bakarrik jarriko dira:

- 200 m baino erradio txikiagoa duten bihurgunean dauden bidezatietan, eta beraz, bidegurutzeetan.
- Sakaldi garrantzitsuak jasan ezin dituzten fabrika-obren aurrean.
- Zoladura lauzen mugimendua ezinezkotua egon daitekeen gune berezietan.

Lehenengo kasuan, bihurgune itxienean, bidezati bihurriaren punta bakoitzean dilatazio junta bat ezartzea gomendatzen da eta, lerrokadura bihurriaren luzera 100 m baino handiagoa bada, beste erdiko bat. Orokorki, dilatazio junta hauek galtzadaren ardatzaren norabide normalean jarriko dira, eta ziriak eramango dituzte, zoladuraren lodieraren erdigune inguruan kokatuak eta juntarekiko simetrikoak izango direnak, beren luzeraren bi herenetan lubrikatuak, 25 mm-ko diametrokoak, 0,50 m-ko luzerakoak eta beren artean 0,30 m-ko tartekin. Bere gaineko aldean geroago itxiko den 20 mm-ko zabalera eta 30 mm-ko gutxienezko sakontasun bateko tarte bat jarriko da.

Fabrika-obretan tableroraino helduko den zubi tablero junta bat jarriko da, honen eta hormigoizko zoladuraren artean, beraz, estriboaren itxidura horma oinarri kaparen kotara utziz. 3.2.1., C.2. idazatian jaso zenaren arabera, fabrika-obretara sarbideko azken zoladura lauza, ore hormigoizkoa izan ezker, azpitikako armadura bat jarriko da, estriboak haitzaren gainean badaude, firmeren kapen azpian transizio lauza bat jartzearen kaltetan gabe. Bai kasu honetan eta bai dilatazio juntak behar dituzten beste gune berezi batzuetan ere, proiektuan definituko dira junta horien eta aipatutako beste eraikuntza xedapenen xehetasunak.

c) Zeharkako hormigoizko juntak:

Ore hormigoizko edo juntekin armatutako hormigoizko zoladuretan, hormigoizko junta hauek mihi eta tartedun moetakoak izango dira.

Hormigoi armatuzko etenik gabeko zoladuretan zeharkakoen diametro eta tarte berdina duten armadura gehigarri batzuk jarriko dira, zoladuraren azpi-

ko herenean hauengandik paraleloki jarriak, juntarekiko saimetrikoak eta 1,50 m-ko luzerakoak. Juntaren inguruan, beregandik 0,30 eta 0,60 m-tara kokatuta, 12 mm-ko diametroko zeharkako bi barrei lotuta egingo dira zeharkako armadurak.

Atalburu honetan aipatutako ziriak eta batasun-barrek BTOParen 550.2.2. atalean (PG-3/75) ezarritako betekizunak bete behar dituzte, eta juntan betetzea edo itxiera egiteko materialek, Plegu berdin honetako 550.2.6. atala.

3.2.4. Arzenak

Arzenak proiektatzerako orduan galtzadaren firmearn eta erabiliko den dreñaia moztaren irtenbideak oso kontutan hartu behar dira, lodierak galtzada firmearn kapa antolatetaren arabera finkatuz. Era berean, galtzadaren etorkizuneko zabaltzearekin bat datorren irtenbide bat aukeratzeko ahaleginak egingo dira. Guzti hau oinarritzat harturik, ondorengo eran jokatuko da:

Eraikuntza arrazoiegatik, 1,25 m baino zabalera txikiagoa duten arzenetako firma, alboko galtzadaren berdina ahal izango da. Kasu honetan batera eraikiko dira, arzena eta galtzadaren arteko luzetarako juntarik gabe.

1,25 m baino zabalera handiagoa duten arzenetan, galtzadan ustez emango den trafiko mailaren arabera emango da hauen firma (3.2.1., A idazatia) era, kontrakoa ziurtatua izan ezik, ondoren ematen diren irtenbideetakoren bat aukeratu da, galtzadaren firmetako kapen lodierei buruzko aipamenak honela ematen direlarik:

Z: Galtzadako zoladuraren lodiera.

O: Galtzadako oinarri lodiera.

A: Galtzadako kanpo aldeko ertzeko azpi-oinarri lodiera.

T0 eta T1:

a)- Nahaste bituminosozko 5 cm (3.2.1., C.10 idazatia)

- Legarra-porlanezko (C.4 atalb.) edo legarrazepazko (C.5 atalb.) edo lastra artifizialezko (C.7 atalb.) (Z-5) cm. (Azkenengoa, epe nahiko motzaren barruan galtzadaren zabalera egingo denetan, edo T1 trafikoarentzat).

- Material iragazkor tratatuzko (C.6 atalb.) edo harri-xeharik gabeko lastra artifizialezko (C.8 atalb.) B cm.

- Galtzadako firmearn, hau dagoenetan, azpi-oinarri drenatzailezko 5 cm.

- (Z+O-5) cm-ko lodierako eta oinarriaren gahizabalera baino 30 cm handiagoko zabalera erreten drenatzailea, galtzada eta arzenaren arteko juntan.

(Erreten drenatzaile honek, dagozkien zeharkako hustuketa hodiekin, zirrikituak dituzten hodiak izan ezker, material iragazkor tratatuzko edo harri-xeharik gabeko lastra artifizialezko kapa, lastra artifizialak (C.7 atalb.) edo lastra naturalak (C.9. atalb.) ordezkatu dute. Eta berdin egin ahal izango da azpi-oinarriko erretenarekin, egon ezker, erreten drenatzailea bere azpiko kotaraino sakonduz. Kasu honetan, material iragazkor tratatuzko taketak jarriko dira 45.ºtara, gutxigorabehera 50 m-ko tartekin, arzenaren kanpo-ko ertzean, firmearn azpi kotaraino).

b)- Nahaste bituminosozko 5 cm (3.2.1., C.10 idazatia)

- Legarra-porlanezko (C.4 atalb.) edo lastra artifi-

ziazko (C.7. atalb.) (Z-13) cm. (Azkenengo hau, epe mahiko motzaren barruan galtzadaren zabalteza egingo denetan, edo T1 trafikoarentzat).

- Material iragazkor tratatuzko (C.6 atalb.) edo harri-xeharik gabeko lastra artifizialezko (C.8. atalb.) (O+8) cm.

- Galtzadako firmearen, hau dagoenetan, azpi-oinarri drenatzailezko S cm.

c)- Nahaste bituminosozko 5 cm (C.10 atalb.).

- Harri-xeharik gabeko legarra-porlanezkoa ere izan daitekeen material iragazkor tratatuzko (C.6 atalb.) (Z+O-5) cm

- Galtzadako firmearen, hau dagoenetan, azpi-oinarri drenatzailezko S cm.

d) Galtzadakoaren berdina, kasu berezietan eta T0 trafiko mailentzat bakarrik. Irtenbide honek eraikuntza abantailak izan ditzake zenbait kasutan eta arzena zirkulazio karril bezala erabiltzea ahalbideratzen du beharrezkoa izan ezker. Galtzadaren zoladura hormigoi armatuzkoa bada, ore hormigoizko zoladura bat proiektatu ahal izango da arzenarentzat.

T2:

- Nahaste bituminosozko (3.2.1., C.10 atalb.) 5 cm.

- Lastra artifizialezko (C.7. atalb.) (Z-13) cm. (Zeharkako kontrakzio juntetan ziriak jartzen ez badira, galtzadan hormigoi pobrezko oinarriaren edo honen eskubiko ertzaren gehizabaierari irtenbide alternatibo bezala, legarra-porlanezkoak (C.4. atalb.) edo legarra-zepazkoak (C.5. atalb.) ahal izango dira).

- Harri-xeharik gabeko lastra artifizialezko (C.8. atalb.) edo lastra natural garbizko (C.9. atalb.) (O+8) cm; behar bezala mugatua geratu dadin, ertzean material iragazkor tratatuzko zerrenda bat jartzeko aukera aztertuz

- Galtzadako firmearen, hau dagoenetan, azpi-oinarri drenatzailezko S cm.

T3 eta T4:

a)- Nahaste bituminosozko (3.2.1., C.10 idazatia) edo azaleko tratamendu bikoitzezko 5 cm.

- Lastra artifizialezko (C.7. atalb.) edo lastra naturalezko (C.9. atalb.) (Z-5) cm.

- Galtzadako firmearen, hau dagoenetan, azpi-oinarri drenatzailezko S cm.

b) Zolatu gabeko arzena. T4 mailako trafikoentzat eta oso garrantzi txikiko bideen kasu berezietan arzena zoladura egin gabe geratu daiteke, beste kapentzat aurrerago ikusitako era berean jokatu delarik.

Kasu guztietan, material iragazlearen inguruneak (lehenago aipatutako material iragazkor tratatua edo harri-xeharik gabeko lastra artifiziala) harri-xehedun zelaidura edo kapekin ikutzen badaude, 3.2.1. C.2. idazatian jaso zen bezala, hauek kutsatu ez daitezten, geotextil batekin babestuak egon beharko dute. Arzen bukatuaren azala, uren hustuketa azkarra bermatzeko eran gelditu beharko da, batez ere urok galtzada eta arzenaren arteko juntetatik sartu ez daiteztenaren kontua hartuz.

3.2.5. Zelaiduraren eta firmearen kapen albotarako isuriak

Zeharkako sekzioaren gune bateko zelaiduraren i' zeharkako isuria, gune horretan firmearen azalaren zeharkako i isuriaren arabera emango da.

$$\begin{aligned} |i| > \%4 \text{ bada, } i' &= i \\ |i| < \%4 \text{ bada, } \%2 < |i'| < \%4, \end{aligned}$$

Nahiz eta, i-rentzat bezala, Taiuketa Arauaren arabera, gomendatutako gutxienezkoa %2,5-ekoa den. Sekzioak azpi-oinarri drenatzailea hartu ezker, nahitaz hau izango da:

$$|i| < \%4 \text{ bada, } |i'| = \%4$$

Arzenetan, dreñaia beren kapa iragazlearen bitartezkoa, eta ez luzetarako zirrikituak dituzten hodien bitartezkoa, izan ezker ere, $|i| > \%4$ emango da.

Peraltearen zentzuan aldaketa ematen den peraltea transizioetan, aipatutako gutxienezko aldapak mantentzeko, zelaiduran zeharkako limatesa bat jarriko da.

Era berean, zelaiduran itxi gabeko limatesa bat jarri daiteke, bere kokapena, i eta i' ren balio ezberdinen kasuetan lodiera aldakorrek azpiko kaparen guztizko bolumena gutxitzeko helburuarekin aztertuko delarik, 3.2.2. idazatian (4. parrafo) emandako eta beti errespetatu beharko diren arauen arabera, zirkulazio norabide bakoitzarentzat karril bi edo gehiago daudenetan, eta honetan ekonomia lortzeko, zoladuran egon daitekeen lodiera aldakorra ere kontutan hartuz.

Luzetarako aldapa garrantzitsua denean, ura jasoko duten zeharkako drenak jarriko dira, honek zelaiduraren aldapa gehieneko lerrotik jarraituko duen bideak 20 m-ak gainditu ez ditzan eran.

Horretaz gain, galtzada eta arzenaren arteko juntatik datorren (eta honentza 3.2.4. idazatian bere egite ratze egokiaren beharra jaso delarik) eta zoladurak oinarriarekin bat egiteko gunerarte sartu ahal izan dadin uraren behar bezalako dreñaia egiteko, izkina honetan mortairuzko taket txiki bat jartzea gomendatzen da, aldapa galtzadaren barrukalderantz denean, onarriari aldapa kontrako zentzuan emateko.

4. ERREPIDEETAKO SEINALEEI BURUZKO TEKNIKAZKO ARAUAK

Atalburu honen idazketa, 1814/89 zk.dun konstituzionaltasunik ezaren errekurtsoren emaitzaren arabera egingo da.

5. NEURKETA PLANA ETA TRAFIKOAREN AZTERLANAK

AURKIBIDEA

5.1. Sarrera.

5.2. Euskal Autonomi Elkarteko Trafikoaren Neurketa Plana.

5.2.1. Planaren eremua.

5.2.2. Neurketa Tokien Sarea.

5.2.3. Neurketa-toki moetak.

5.2.4. Neurketa-tokietako nomenklatura.

5.2.5. Neurketa datuen gauzatzea.

5.2.6. Planaren aldakuntzak.

5.3. Proiektuetan, aurreproiektuetan eta alternatiben azterketan egindako trafikoaren azterlanak.

5. NEURKETA PLANA ETA TRAFIKOAREN AZTERLANAK

5.1. Sarrera

Trafikoa errepideen azterlan edo obra guztietan oinarritzko baldintzailetariko bat da. Bere bolumenaren eta ezaugarrien ahalik eta ezaguera zehatzena

beharrezko da errepideei buruzko edozein alternatiben azterlan, aurreproiektu edo proiektu beharbezala burutzeko. Bestalde, makroekonomia eta plangintza-ren ikuspegirik trafikoa datuek duten garrantziak, hauek lortzeko eta gauzatzeko ordurako Administrazioa hartzen dute subjektu egokiena bezala (gutxienez errepide sare nagusiari dagokionez). Horrela, beren homogeneitatea, elkargarritasuna eta jarraikortasuna bermatzen dira, denboran. Bestalde, trafikoa ezaugarrien aldakortasun nabariak, neurketa metodoaren baldintzen aldizkako egokiera beharrezkoa egiten du.

Euskal Autonomi Elkarteko Trafikoaren Neurketa Plana sistematika honen garapenerako elementu egokia da. 5.2. idazatian definitzen da Neurketa Plan honek izango duen edukina.

Urtero egin beharreko Neurketa Plan honek, Euskal Autonomi Elkarteko Errepideei buruzko Plan Orokorren lanetan definitutako errepideen Sare Funtzionala bakarrik hartzen duenak, lehen aipatutako helburuak ahalik eta era merkeenean lortzea jarraitzen du, eta beraz, kasu bakoitzean egokitzat jotzen dituen neurketa-toki osagarriekin osatu ahal izango dute Diputazioek.

Bestalde, Neurketa Planaren barruan Euskal Autonomi Elkarteko Errepide eta Kaminuen Sare guztia hartzeko ezinezkotasunak, zenbait kasutan azterlan osagarriak egitera behartuko du. 5.3. idazatian ematen da zabalago trafikoen azterlanen eta hauek proiektuan ezartzearen alderdi hau.

5.2. Euskal Autonomi Elkarteko Trafikoaren Neurketa Plana.

Eusko Jaurlaritzak, gaiaren arabera eskudun den Sailaren bitartez, aldizkako Trafikoaren Neurketa Plan baten definizioa egingo du, ondorengo baldintzetara mugaturik:

5.2.1. Planaren eremua.

Euskal Autonomi Elkarteko Trafikoaren Neurketa Planaren aplikapen eremua, Euskal Autonomi Elkarteko Errepideei buruzko Plan Orokorren lanetan definitutako Errepide Sare Funtzionala izango da.

Foru Diputazio bakoitzak bere neurketak egin ahal izango dituzte beste sare zatian (funtzionala ez denean), egokitzat jotzen duten eran.

5.2.2. Neurketa Tokien Sarea.

Euskal Autonomi Elkarteko Neurketa Planean definitzen da Neurketa Tokien Sarea bere bi alderdietan: (ikus Eraskina)

- Neurtuko den sareko puntuen kokapena.

- Puntu bakoitzari dagokion neurketa tokiari ezaugarriak ematea (neurketa toki moeta).

Kokapena egiterako orduan jarraituko diren erizpideak, alde batetik oportunitatea, kontrolatu beharreko bidezatien garrantziagatik, eta bestetik sakabatatze geografikoarena izango dira.

Neurketa tokiei ezaugarriak ematea, urtean zehar eman beharreko oharren mailaren araberrako beren sailkapena da.

Neurketa Plana burutzeko erabiliko den metodologia adibideak aztertuz egingo da, eta horrela egingo da: bidezati errepresentagarrietan kokatutako eta denbora luzean zeharreko behaketa batekin, «arinak-astunak» programan (neurketa iraunkor eta lehen mailakoak) lanegingo zuketan gailu automatiko batzuekin egindako neurketa batzuetatik, trafiko nagusiaren zikloak definitzen dituzten aldakuntza fakto-

reak edo koefizienteak ondorioztatzea, eta horrela, urtean zehar eskuz behaketa gutxi batzuk egiten diren trafiko kopuru antzekoa duten beste puntu batzutarako erabili ahal izango ditugu emaitzak.

5.2.3. Neurketa-toki moetak.

Egindako behaketa mailen arabera, neurketa tokiak MOPUaren Aforo Plan Nazionalaren erizpide berdinari jarraituz sailkatuko dira, ondorengoetan:

a) Neurketa-toki iraunkorrak.

Behaketa urtean zeharrean ia egunero egiten da, hortarako orduzkako arakatzailak eta ibilgailu arinak eta astunak detektatzeko sistema duten gailu automatikoak erabiliz.

b) Lehen mailako kontroleko neurketa-tokiak.

Neurketak hogeitalau egun osotan zehar egiten dira, lau egun jarraian dituzten sei aldi aukeratuko direlarik, aldi bakoitzean bi lanegun, larunbata eta igandea izango dutenak. Hilak era alternatiboan aukeratzen dira. Behaketak bi hilabetetik behin egiten dira, eta urtero aldatzen dira behaketa hilak. Eskuz egindako neurketekin osaturiko orduzkako arakatzailak dituzten gailu automatikoak erabiltzen dira.

c) Bigarren mailako kontroleko neurketa-tokiak.

Kontrol nagusiko neurketa-tokiez gain egiten den sare bat dira, eta urtean zehar sei lanegun bakarrik neurtzen dira, bat bi hilabetetik behin. Bigarren mailako kontroleko neurketa-toki bakoitzak kide bat izango du kontrol nagusiko neurketa-toki bat edo gehiagotan, larunbat eta igandek duten eragina kontutan hartzeko. Eskuz egindako neurketekin osaturiko orduzkako arakatzailak dituzten gailu automatikoak erabiltzen dira.

d) Estaldura neurketa-tokiak.

Urtean zehar neurketa bakar bat egiten da lanegunetan eta hamasei ordutan zehar (6:00 - 22:00) eta datu honekin eta kide diren beste neurketa-tokietatik jasotakoekin, urteko egunez-eguneko batzbesteko trafikoa (EBZ) finkatzen da, eguneko/ibilgailutan neurtuta. Guztirakoa ematen duten gailuak eta eskuz egindako neurketa osagarriak erabiltzen dira.

Honela, behaketa puntuak kontu handiarekin aukeratuz eta dagozkien talde kidekoak finkatuz, trafikoa berri ematen duen osotasunezko sistema bat izango dugu, material eta giza eskakizun handiren beharrik gabe, neurketa-tokiei beharbezalako ezaugarriak emanez, behaketen kopurua ezinhobetuz.

Era berean, neurketa-toki iraunkorretan, lehen mailako eta bigarren mailakoetan, motoak eta autobusak bakarrik erregistratuko dituzten eskuz egindako neurketak egingo dira, ondorengo erizpidearekin:

- Kontrol iraunkorra eta lehen mailakoa dutenak: Lanegun bat sei ordutan zehar (8:00 - 14:00) bi hilabetetik behin guztira urteko sei lanegunetan (neurketa automatikozko sei egunetan).

- Bigarren mailako kontrola dutenak: Bi lanegun sei ordutan zehar (8:00 - 14:00) sei hilabetetik behin guztira urteko lau lanegunetan (neurketa automatikozko egunetan).

5.2.4. Neurketa-tokietako nomenklatura.

Nomenklatura honako hau izango da: Lurralde Historikoen siglek osatutako kodigu bat izango du, eta neurketa-toki bakoitzarentzat zenbaki bat, erantsitako taula sortzen delarik.

Neurketa Plan honetan ezarritako neurketa-tokiak zerrenda batetan jasotako datoz, errepidea, lehengo bere deituraz adierazia, eta neurketa-tokia jarriko den bidezatia, bere gutxigorabeherako kokapena, eta bigarren mailakokoak edo estaldurakoak izatera, beren izena, moeta eta dependentsia ere jasoko dituelarik.

Ikusi daitekeenez, kokapenak, orokorki, lehen zeuden eta MOPUaren Aforo Planarenak zirenekin bat datoz, hauen izenak mantentzen direlarik.

Kokapen berriko neurketa-tokiak gaurrenguen nomenklatura berdina jarraitzen dute (Lurralde Historikoen siglak eta zenbaki berria), eta beren kokapen zehatza Diputazioen proposamenen arabera egingo da.

Neurketa toki iraunkorrak orain arte hauekin elkarkidetutako lehen mailakoaren deituraz ezagutu dira.

Lehenago zeuden eta zerrendan jaso ez diren estaldura neurketa-tokiak, Diputazioek premiazkotzat jotzen badute jarriko dira indarrean.

5.2.5. Neurketa datuen gauzatzea.

Datuen prozesua Eusko Jaurlaritzak egingo du gaiaren arabera eskuduna den bere Sailern bidez, eta Foru Diputazioekin elkarlanean, Euskal Autonomi Elkarteko Errepideei buruzko Plan Orokorraren jarraipen egoki bat egin ahal izateko.

5.2.6. Planaren aldakuntzak.

Trafikoen bilakaeraren edo egoeraren ezaguera hobe direla, neurketa tokien kokapena edo beren ezaugarria aldatu beharra dagoenean, aldakuntza horiek Planaren Batzordearen akordio bidez egingo dira, bai Eusko Jaurlaritzako eskuduna den Sailaren, bai Foru Diputazioen proposamenez.

5.3. Proiektuetan, aurreproiektuetan eta alternatiben azterketan egindako trafikoaren azterlanak.

Errepideei buruzko edozein azterlanen idazketa egiteko orduan, datuen gutxiegitasuna ikusten bada, bai hauek ez izategatik (azterlanaren xede den errepidea Diputazioen edo Euskal Autonomi Elkarteko Neurketa Planetan jasotako artean ez egotera), bai horretarako duten zehastasun ezarengatik, dagokion proiektuaren barruan egingo dira errepideak zeharkatzen duen inguruan trafikoa definitzeko beharrezkoak izan zitezkeen azterlanak.

Oinarrizko datuak jasotzeko metodo garrantzitsuenak hauek dira:

- Errepidearen sekzio bateko ibilgailuak neurtzea, norabideen arabera.
- Merkatalgai arrikutsuen neurketa.
- Nondik-norako inkestak.
- Aparkalekuen zerrenda.

Edozein kasutan, memoriaren eraskinean, trafikoaren azterlanean jasotako informazio guztia ezarriko da, bai landu gabeko datuak, bai hauen gauzatze eta ondorioak.

NEURKETA PLANA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA

VI 1

ERREPIDEA	BIDEZATIA	EBZ BATAZ BESTE	KASE TARI DAGOEN	NEURKETA-TOKIA					KOKAPENA	
				IZEN.	1.	2.	K.	DIP.		
B-1	Burgos-Gasteiz muga	11.000	X	VI-12a			X		VI 106	Gasteizko sathesbide berria hasi baino lehen Gasteizko sarrera.
		10.000	X	VI-106	X					
				VI-13				X		
B-1	Gasteiz-Bafarroa muga	10.000		VI-1			X			B-1 aireportu zaharraren pareko Gasteizerako itzea.
				VI-1a				X	VI 1	
				VI-36				X	VI 14	
				VI-14			X		VI 1	
				VI-37				X		
B-232	Arandón-Leza	5.000		VI-12b			X		VI 106	B-1 bidegurutzea baino lehen. Labastida
				VI-58				X	VI 51	
B-232	Lezu-Logroño	2.000	X	VI-51			X			Págenos VI 50. Laserna
				VI-50				X	VI 51	
L-122	Gasteiz-Leza	1.000	X	VI-16			X			Gasteizko portua. Peñacerrada
				VI-54				X	VI 16	
C-132	Gasteiz-Kanpezu	4.000	X	VI-15			X		VI 1	Azazeta Kanpezu
				VI-42				X	VI 15	
L-12b, L-121 L-12c	Salvaterra-Oñon	2.000		VI-49				X	VI 51	Oñon
				VI-44				X	VI 16	
				VI-39				X	VI 16	

NEURKETA PLANA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA

VI-2

ERREPIDEA	BIDEZATIA	EBZ BATAZ BESTE	KASETARI DAGOEN	NEURKETA TOKIA						KOKAPENA	
				IZEN.	I	1.	2.	K	DEP.		
E-6210	Gasteiz -Altube	10.000	• •	1084 VI-2084 VI-83	X						Mendiguren
E-6210	Altube-Amurrio	5.000	•	VI-82 VI-77			X			VI-84	Altubeko portua
E-6210	Amurrio-Balmaseda	2.000	X	VI-91			X			VI-84/B BI-151	Arenau Respaldiza
E-6210	Orduña-Barrerillako Gaina	1.000	•	VI-76				X		VI-82	Barrerillako Gaina
L-6212	Orozco-Ziurraga	2.000	•	VI-80				X		VI-82	
E-6211	Legutiano - Urkola	3.000	X	VI-31			X			BI-171A	
N-240	Gasteiz-Legutiano	10.000	X	VI-11		X				-	Retana
N-625	Burgos-Amurrio muga	2.000	•	VI-108				X		VI-68	Fresneda
L-622	Valdegobia-Langraitz		• • X	VI-75 VI-74 VI-68				X		VI-68 VI-68 VI-16	Tobillas Villanueva de Valdegobia Mandaita
E-122		1.000		VI-107				X		VI-68	Komunioi
E-6213	Urbina-Eskoria	4.000	X	VI-105			X			VI-11	Lenda

NEURKETA PLANA

GIPOZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA

SS-1

ERREPIDEA	BIDEZATIA	EBZ BATAZ BESTE	KASETARI DAGOEN	NEURKETA-TOKIA						KOKAPENA	
				IZEN.	I	1.	2.	K.	DEP.		
E-6213	Urbina-Eskuriatza	4.000		SS-52				X		VI-11	Eskuriatza. 86.K.gn. bidegileen etxea
E-6213	Esauriatza-Bergara	7.000	X	SS-53 SS-09		X		X		SS-55	San Andrés. 80. K.gn. Muxibar etxea San Prudentzio
E-6213	Bergara-Maltzaga	5.000		SS-13a SS-11b				X		SS-55 SS-11	Mekulalde 74. K. gn. bidegileen etxea Soraluze. 73.5 K.gn. saih. sarrera baino lehen
E-6322	Elurrio-Bergara	4.000		SS-63				X		BI-174A	Elgeta-Bizkaia muga
BI-1225 + SS-610	Elurrio-San Prudentzio	3.000		SS-54				X		BI 174A	Arrasate. muga Kanpanzar
E-6322	Bergara-Zumarraga	7.000		SS-99a				X		SS-87	Deskargako portua 63. k.gn.
E-6322	Zumarraga-Beasain	10.000	X	SS-87 SS-146		X		X		SS-55 SS-87	Ormaiztegi. 52,70. K.gn. Iberdueroren parean Diputazioaren etxea. Salbatore bidegurutzea
E-6317	Zumala-Azpeltia	3.000		SS-58				X		SS-58a	Azpeltia. 51. k. gn. Gasolindegia baino lehen
E-6317	Azpeltia-Azkoltia	5.000		SS-58a		X				-	Loiola. 54. k.gn. Autoeskolaren parean
E-6324	Azkoltia-Elgotbar	2.000	X	SS-62			X			SS-58a	Elgotbar. 63,8 k.gn. bidegileen etxea
E-6324	Azpeltia-Tolosa	2.300		SS-61 SS-40				X		SS-58a SS-58a	43. k.gn. Begilerako sarrera 34. k.gn. Santutzu.
E-6317	Azkoltia-Zumarraga	2.000		SS-59				X		SS-87	Urretau. 43. k.gn. kantera (Azpeltiarako sarrera)

SS-2

NEURKETA PLANA

GIPUZKOAKO HISTORIKOA

ERREPIDEA	BIDEZATIA	EBZ BATAZ BESTE	KASETARI DAGOEN	NEURKETA TOKIA						KOKAPENA	
				IZEN.	I	1.	2.	K.	DEP.		
N-240	Tolosa-Mafarroa	4.000	X	SS-4h		X					30,20 k.gn.
SS-411	Tolosa-Letza	3.000		SS-75					X	SS-4H	Berastegi. 34 k.gn. Berastegirako sarrera
E-130	Basain-Etxarri Aramaz	3.000		SS-14c SS-64					X	SS-4B SS-4H	46.k.gn. Lazkao Lizarrustiko gaina. 62 k.gn. Probintzi Arbitr.muga
SS-413 - SS-500	Andoain-Hernani- Renteria	5.000		SS-35 SS-69 SS-68			X		X	SS-49 SS-16 SS-09	Astigarraga Iceta Orbegozo garajea Andoain. 13,700 k.gn. Lasako.gaina Kraffterantz.
E-6213	Elgoibar-Markina-Ondarroa	2.000		SS-83					X	SS-45	Elgoibar. 67 k.gn. Elgoibar-Urtarregi irteera
N-634	Lasarte-Zumala	10.000		SS-1b SS-37					X	SS-1 SS-10	Usurbil. 41,00 k.gn. Errasti etxea
N-634	Zumala-Elgoibar	7.000	X	SS-55 SS-10a SS-45	X				X	SS-10 SS-10	Arrona Zumala. 31 k.gn. Rezola baino aurrerago Alzola. 54,100 k.gn. Alzolako irteera
N-634	Elgoibar-Eibar	9.000	X	SS-11 SS-47			X		X	SS-10 SS-11	Eibar. 61,30 k.gn. Azitaineko gasolindegia Ermua. 66 k.gn. muga
E-6212	Gernika-Deba	2.000		SS-49					X	SS-45	Mutriku. 56 k.gn. Mutrikurako sarrera
N-1	Mafarroa-Idiazabal muga	7.000		SS-30		X					Etxegarateko portua. 405, k.gn. Etxegarateko gaina
N-1	Idiazabal-Tolosa	13.000	X	SS-16h SS-31 SS-17a	X				X	SS-16h SS-12	Olaberría. 419. k.gn. Ikaztegieta. 431,2 k.gn. Bihurgunetik irteera Tolosa. 438 k.gn. N-240 eta E-6324 arteko lotunea

NEURKETA PLANA

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA

SS-3

ERREPIDEA	BIDEZATIA	EBZ BATAZ BESTE	KASETARI DAGOEN	NEURKETA-TOKIA						KOKAPENA	
				IZEN.	I	1.	2.	K.	DEP.		
N-1	Tolosa-Lasarte	17.000		SS-1012 2012 SS-90 SS-33			X			SS-14 SS-12 SS-12	Tolosa. 441,20 k.gn. Diputazioaren almazena Orta.453, k.gn. Bazkardoko kantera, Arranzu
N-1	Lasarte-Donostia	25.000		SS-1a 1001 SS-2001				X		SS-12 SS-10	Lasarte. 458,00 k.gn. Lasarte. 458,40 k.gn. Cocacolaren parean.
A-8	Donostiako Saihesbidea	35.000	X	SS-1016 2016		X					Donostia. 20,70 k.gn. Misericordiako tunela
N-1	Donostia - Renteria	22.000 20.000		SS-2a 2036 SS-2036				X		SS-36 SS-3	Pasala. Gurutz-gorria-Kaputxinoen tunela Renteria 475 k.gn. tunela
N-1	Renteria-Irún	10.000	X	SS-1003 2003 SS-3a SS-3b		X					Irún. 480 k.gn. bidegileen etxea Mendia. 485 k.gn. Gipuzkoako seinalea Behobia.486 k.gn. Faisane Iria
E-133	Oyaregui-Irún	5.000		SS-78					X	SS-3	Behobia.87 k.gn. Behobia

NEURRETA PLANA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

BI-1

ERREPIDEA	BIDEZATIA	EBZ BATAZ BESTE	KASERARIK DAGOEN	NEURKETA-TOKIA						KOKAPENA
				IZEN	I	1.	2.	K.	DEP.	
N-614	Barakaldo-Muskiz	13.000		BI-41A		X				Barakaldo - Trápaga
N-614	Muskiz - El Haya	9.000		BI-41a BI-42A				X	BI-41A BI-40A	Muskiz El Haya
E-6322	Durango-Elorrio	8.000		BI-174A BI-176A				X	BI-111A BI-174A	Durango-Elorrio irteera BI-1225 (BI-98) Bidegurutzea baino lehen Elorrio
E-6210	Amurrio-Balmaseda	3.000		BI-61b				X	VI-91	Arzobispo
E-6210	Balmaseda-Lantabria	1.000		BI-62C BI-63A BI-64A				X	BI-60A BI-62C BI-62C	Balmaseda (Burgoserantz)
E-6316	Bilbo-Sudupe	10.000		BI-57A BI-57A				X	BI-57A	Bilbo Sudupe
E-6316	Sudupe-Balmaseda	5.000		BI-59A BI-58A BI-60A				X	BI-59A BI-57A BI-59A	Gueñes Llantada
E-6211	Urdulaz-Olatola	3.000		BI-171A				X	BI-171A	Urdulaz
E-6211	Olatola-Durango	4.000		BI-172A				X	BI-172A	
E-6213	Elgotbar-Markina-Ondarrosa	2.000		BI-147A				X	SS-45	Markina (Ondarroarako irteera)
BI-140	Durango-Markina	3.000		BI-144A				X	BI-117A	Markina

NEURKETA PLANA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

BI-2

ERREPIDEA	BIDEZATIA	EBZ BATAZ BESTE	KASERARIK DAGOEN	NEURKETA-TOKIA						KOKAPENA
				IZEN	I	1.	2.	K.	DEP.	
E-6315	Amorebieta-Bermeo	7.000		BI-123A BI-124B BI-104A				X	BI-110A BI-123A BI-124B	Amorebieta (Amorebietarantz). Bermeo Bermeo (Gernikarantz)
BI-124 ? BI-110	Gernika-Markina			BI-140A				X	BI-123A	
N-614	Elgotbar-Durango	8.000		BI-116A BI-34b				X	SS-11 SS-14	Arletto Durangorako sarrera
N-614	Durango-El Gallo	9.000		BI-113A BI-112A BI-111a BI-110A				X	BI-113a BI-110A BI-109F	Amorebieta-Durango Erleches-El Gallo
N-614	El Gallo- N-625 bidegurutzea	20.000	X	BI-109A BI-109A	X				BI-109F	N-625 bidegurutzea
N-614	Bilbo-Barakaldo	25.000	X	BI-110F BI-210F BI-19A BI-32A	X				BI-109A	E27 Neurketa-toki iraunkorra Zurruta
N-614	A-B hego irteera	45.000		BI-27A BI-26A BI-24A BI-22A BI-40A				X	BI-22F BI-22A BI-22F	Basauriko A-68 bidegurutzea Zabalburu A-68 bidegurutzea S. Corazón-Zabalburu Corazón-Barakaldo Monte1

NEURKETA PLANA

BIZKAIako LURRALDE HISTORIKOA

BI-3

ERREPIDEA	BIDEZATIA	EBZ BATAZ BESTE	KASERARIK DAGOEN	NEURKETA-TOKIA						KOKAPENA
				IZEN.	I	1.	2.	K.	DEP.	
N-240	Iregullano - Geanuri	4.000	X	BI-159B		X				Ubidea
N-240	Geanuri-EI Gallo	7.000	X	BI-164A BI-165A BI-166A BI-163A			X	X	BI-165B BI-166B BI-165C BI-169C	Geanuri Igorre (gaurregun iraunkorra) Lemus (Gasteizerako irten bidea) Usansulo
N-625	Burgos-Amurrio muga	2.000	X	BI-167B BI-161B		X		X	BI-161B	Orduna (Burgoserantz) Amurrio (Amurriora baino lehen)
N-625	Amurrio-Llodio	4.000		BI-161A BI-160A				X	BI-161B BI-157F	Llodioko saihebidia baino lehen
N-625	Llodio-Basauri	10.000		BI-157A BI-156A		X	X		BI-157A	Uxau-Miraballes Basauri
N-629	Lanestosa	-		BI-60F				X	BI-67C	Lanestosa
E 6313	Derio-Derio	10.000		BI-95A				X	BI-101A	Derioko bid. Jrutzea (Bilborantz)
E 6313	Derio-Mungia	8.000	X	BI-101A			X		BI-79A	Mungia bidegurutzea (Deriorantz)
E 6313	Mungia-Bermeo	3.000		BI-102A				X	BI-101A	Sollubeko gaina
BI-120, BI-121, BI-122	Mungia-Mustika	2.000		BI-123A				X	BI-111A	

NEURKETA PLANA

BIZKAIako LURRALDE HISTORIKOA

BI-4

ERREPIDEA	BIDEZATIA	EBZ BATAZ BESTE	KASERARIK DAGOEN	NEURKETA-TOKIA						KOKAPENA
				IZEN.	I	1.	2.	K.	DEP.	
BI-103 + BI-112 BI-113	Algorta-Asua	20.000		BI-113B			X		BI-79A	
	Asua-Derio	15.000		BI-79A		X				
	Derio-Erlesches	7.000		BI-113B BI-113B				X	BI-79B BI-113A	Zanetzu
C-6320	Algorta-Plentzia	15.000		BI-90A				X	BI-91B	Sopelana
C-6320	Plentzia-Muntzia	5.000		BI-90A					BI-111F	Andreaka
C-6212	Gernika-Deba	2.000		BI-134C BI-132A				X	BI-126A BI-126A	Lekeitio-Ondarroa Gernika-Lekeitio
BI-500 + BI-501	Sumorrostro-Balmaseda	2.000		BI-69A				X	BI-67C	

6.- INGURUGIROAREKIKO ERAGINAREN AZTERLANA

6.0. Sarrera.

Irailaren 30eko 1131/88 EDan ezarritako Ingurugiroarekiko eraginari buruzko azterketa Arautegiak, zehazki 2. idazatik bigarren sailatalean, ingurugiroarekiko azterlan orok izan behar duen hedadura definitzen du. Euskal Autonomi Elkarteke Errepideei buruzko Plan Orokorren garapen aldi honetan, praktikan onartutako edozein moetak prozedura edo gidaliburu erabiliz aztertu beharrezko gutxienezko elementu haiek aipatzera mugatuko gara. Ondoren ematen dira idazati horiek eta bere hedadura.

6.1. Proiektuaren eta bere ekintzen deskribapena. Alternatiben azterketa.

- Ihardutzearen definizioa: Bai proposatzen den proiektu moeta eta aurkitzen den garapen aldia hartuko ditu kontutan.

- Kokapen geografikoa eta funtzionalitatea: Ahal izan ezker, 1:25000 edo 1:50000 eskalak erabiliko dira. Funtzionalitateari dagokionez, azpiegitura sistema orokorraren barruan bere ezarpena mugatuko da eta zeintzu guneentzat den erabilgarria.

- Ihardutzearen ezaugarriak:

A.- Proiektuarenak. Inguruarekiko ondorioak dituzten agente eta ekintzak.

Gutxienez lehen hurbiltze batetan, egon izan ezker, alternatiba bakoitzarentzat proiektuaren honako alde hauek ezagutu beharko dira:

- Eraginpeko herriak.
- Lurren mugimendua:
 - * Luzetarako eta zeharkako perfilaren ezaugarriak.
 - * Erauzketak egiteko beharra.
 - * Beharrezko materialak.
 - * Erabiliko diren materialek izan dezaketen jatorri eta garraioa.
 - * Materialen isurien finkatzea.
 - * Lur-ebaketek eta terraplenek ustez izango dituzten aldapak eta beren altuera.

- Beharrezko egituren moeta eta kopurua.
 - * Trenbide pasaguneak.
 - * Tunelak.
 - * Zubiak.
 - * e. a.
- Lurren premiak.
 - * Azpiegitura berarentzat.
 - * Eraikuntzak dirauen bitarteko lan osagarrientzat (materialen pilaketa tokiak, tratamendu eta muntaia plantak, e. a.).

- Pista eta sarbide gehigarriak.
- Lan premiak.
 - * Eraikuntzak dirauen bitartean.
 - * Operazioak dirauen bitartean.
- Obraren Plana eta ustez iraungo duen denbora.
- Ubideen desbideratze, kanalizazio, e. a. egiteko premiak.
 - * Behin-behinekoak.
 - * Behin-betikoak.
- Tartekatutako beste azpiegitura edo zerbitzuak (elektra sarea, kaminuak, bide-txiorrak, biltegiak, e. a.).

- Desjabetzeko diren eraikin eta lursailak.

- Itxiturak.

- Obraren kostu ekonomikoa.
 - * Guztizko eraikuntza kostua eta urteroko mantentze kostua.
 - * Materialen ustezko kostua, bai bukatutako produktua, bai beteketak egiteko materialena.
 - * Langileen ustezko kostua.
- Operazioaldian ustez emango den trafikoa.
 - * Lehenengo eta hurrengo urteetarako ustez emango den zirkulazio eta ibilgailu moeta.
 - * Merkatalgai arriskutsuen garraioa.
- Prestamenen eta obretarako garraioen azterketa.
 - * Legar-tokiak, harrobiak, e. a.
 - * Erabilgarriak ez diren materialen kokapena eta bolumenak.
- Zerbitzu guneak eta atsedeen tokiak.
- Bestelakoak:
 - * Seinalizazioak.
 - * Neurri zuzentzaileak.
 - * e. a.

B.- Ondoriozko edo elkartutako ihardutzeak.

Autopista, autobide edo errepide bat gauzatzeak, komunikaziorako bide baten proiektuaren osotasuneko eragina ikusterakoan kontutan hartu beharreko ondoriozko edo elkartutako ihardutzeen sorta oso bat dakar. Ihardutze hauek, era handi batetan, proiektuaren eta onartuko duen inguruaren ezaugarrien arabera ematen dira, nahiz eta, orohar, ondorengoak kontutan hartuko diren:

- Obrari lotutako erauzteko eta zabor-tegiak sortzeko ihardutzeak.
- Eraikin edo/eta gune industrialen hazkunde eta sorketa.
- Behin-behineko sarbide berriak eta pistak zabaltzea.
 - Inguruko bideetariko kamioi astunen trafikoa-ren hazkundera eta honek dakartzan arazoak.
 - Bidearen itsatsietan maiztasunaren hazkundera.

6.2. Ingurugiro zerrenda eta ekologia eta ingurugiro elkarrekintza klabeen deskribapena:

Gutxienez, ondorengo elementuen gaurregungo egoera ezagutu beharko da:

6.2.A. Inguru fisikoa.

1. Giroa.
2. Airearen kalitatea.
3. Zaratak.
4. Geologia eta geomorfologia. Faktore fisiografikoak.
5. Azaleko eta lurrazpitikako hidrologia.
6. Lurrak.
7. Landaretza.
8. Fauna.
9. Paisaia.

6.2.B. Inguru sozioekonomiko eta instituzionala. Giza habitata.

1. Demografia.
2. Faktore soziokulturalak. Kultura ondarea.
3. Lehen mailako sektorea.
4. Bigarren mailako sektorea.
5. Hirugarren mailako sektorea.
6. Lurralde sistema. Jabegoa.
7. Inguru instituzionala.

C. Zerrendaren baloraketa eta sintesia. Operaziourreko egoera baloratzeko orduan, hauek izan daitezke erabiliko ditugun erizpideak:

- Legeria.

- Aniztasuna.
- Bitxitasuna.
- Naturaltasuna.
- Produktibitatea.
- Bakartasun gradua.
- Kalitatea.

6.3. Eraginen finkatze eta baloraketa:

6.2. A. eta 6.2. B.n jasotako puntu bakoitzari, bertan ustez emango den eragin bat dagokio. Eraginaren erakusle hau, Proiektu zehatz baten ondorioz ematen diren aldakuntzen zenbatekoa mugatzea ahalbideratzen duen indize bai kualitatibo bai kuantitatibo bat izango da. Aldakuntzarik dagoen ala ez jakiteko ondorengo zerrendan jasota datozen erizpideak erabiliko ditugu:

- Ezaugarria.
- Iraupena.
- Proiektzioa denboran.
- Proiektzioa espazioan.
- Bitxitasuna.
- Gertatzeko probabilitatea.
- Bihurgarritasuna.
- Birlortze gaitasuna.
- Sinergia.

Aldakuntzek hartutakoa ezagutu ondoren, proiektuari dagokion osotasuneko eragina zein den finkatuko da, bai obretako aldian, bai egiteratzekoan. Horretarako ondoren ematen dira oinarritzko aldakuntzak antolatzen dituzten eta proiektuaren osotasuneko azterketa bat ematen duten metodoak.

- Berrikustapen zerrendak. Eraginak egiaztatu eta «sentimentuzko» bere osotasuneko eragina erabakitzen da.

- Metodo matrizial bakunak. Aldakuntzak sortzen dituzten ihardunak aldatutako osagai fisiko eta sozialekin lotzen dituzte.

- Transparentzien gainjarpena. Mapan egindako aldakuntzen gainjarpen grafikoaren bidez ikusten da eraginaren zenbatekoa.

- Metodo matrizial konplexuak. Eraginaren zenbatekoaren bidez zergatiak eta ondorioak mugatzen dituzte.

- Elkarrekintzen sareak. Eraginaren eta bere neurri zuzentzaileen probabilitate eta garrantzia jasotzen dituzte.

- Kalitate indizearen azterketa metodoa (Battelle). Eraginaren zenbatekoa eta balio guztiaren barruan duen neurria ematen dituen metodo konplexua.

Guzti horren emaitza, proiektuaren gauzatzearen ondorioz emango diren eragin elkargarri, urri, zorrotz eta kritikoen zerrendaketa bat izan beharko da.

- Eragin elkargarria: eragin oso txikia, garrantzirik gabekoa, ekintza bukatu ondoren berehalako birlorpena. Zuzenketak ez dira beharrezkoak, baina zaintzea eta behaketa edo praktika sinpleak bai.

- Eragin urria: ez da puntu kritikorik gainditzen, parametroen baloreak bitarte normaletan kokatzen direlarik; osagai bakunik ez dago eraginpean; hasierako baldintzak birlortzeko edo oreka berri bat lortzeko denbora bat behar da; ez dira zuzenketak behar, edo errazak egitekoak dira.

- Eragin zorrotza: eraginpeko osagaiaren ahultasun puntuak ikutzen dira, osagaiak bere inguruan duen bihurgarritasuna eta esanahia arriskuan jarri daitekeelarik; neurri zuzentzaileak eskatzen ditu, eta

hala eta guztiz ere, birlorpenerako beharrezko denbora luzea izango da.

- Eragin kritikoa: neurria onargarria den puntutik gorakoa da; ingurugiro baldintzen galera iraunkorra ematen da, birlorpena neurri zuzentzaileekin ere lortuko ez delarik. Osagai horrek ez du ingurugiroa definitzerakoan lagunduko, edo askoz neurri txikiagoan egingo du.

6.4. Neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena eta ingurugiroa zaintzeko programa:

Neurri babesle eta zuzentzaileei dagokienez, proiektuaren idazketa egiten duenak horretarako gertatutako gidaliburuak jasotako gomendioekin eta praktika onarekin bat datozen egokienak aukeratuko ditu. Gehienetan, gainera, zaintze eta kontrol programa bat proposatuko da. Neurri zuzentzaileak erakuntza proiektuaren elementu bat gehiago direla gogoratu behar da, eta hauen finkatzeak Baldintzen Plegu bakoitzean sartu.

Ingurugiroa zaintzeko programak, Ingurugiroarekiko Eraginari buruzko Azterlanean ezarritako neurri babesle eta zuzentzaile eta adierazleak betetzea bermatzen duen sistema bat indarrean jartzea du oinarritzko funtzioztat.

Oinarrian, jarraipen programa batek honako aldi hauek izan beharko ditu:

- Xedeak: izan behar dituen xedeak finkatzean datza. Xede hauek, eraginpeko sistemak, eragin moetak eta aukeratutako adierazleak mugatu beharko dituzte. Programak eraginkortasuna izan dezan, baldintza ezin hobeak, adierazle hauek gutxi izatea, erraz neurtzekoak eta eraginpeko sistemaren errepresentagarriak dira.

- Datuak biltze eta aztertzea: datuak jasotzea, bildu eta hauetara heltzea, eta hauek aldagaiaren arabera sailkatzea. Datuak jasotze horrek kontrolatzen ari den aldagaiaren arabera emango den denborazko maiztasun egoki bat izan beharko du.

- Interpretazioa: jasotako informazioaren interpretazioa da jarraipen plan baten alderdirik garrantzitsuenak. Lehenago onartzen zen aldakuntza baino lehenagoko egoerei buruzko desbideratzearen arabera neurtu zitekeenaren oinarritzko ikuspegia ez da guztiz balioduna; gaurregun, sistemak, maiztasun eta hedadura ezberdineko aldaketak jasaten dituztela ezagutzen da, desbideratze eza aldakuntza garrantzitsu baten ondorioa denaren paradoxa eman daitekeelarik. Aldakuntzak interpretatzeko erabilgarri diren teknika biak, obra baino lehenagoko epealdi garrantzitsu bateko datuen base bat edukitzea edo lekuko diren inguruetan hauen kontrola izatea.

- Emaitzek eragindako aldaketak: lortzen diren emaitzak hasierako helburuak aldatzeko erabiliak izan daitezke. Beraz, jarraipen programak bihurkorra izan beharko du, ahalik eta epealdi luzeenak izateko asmoz aldaketarik ez egiteko komenigarritasunaren alde batetik, eta honek ingurugiroarekiko arazoak ahalik eta era egokienean erakutsi ditzan helburuarekin programa aldatu beharrenean bestetik, arteko oreka bat aurkitu beharko duelarik.

Alderdi guzti hauek kontutan hartuz, emango diren eraginek baldintzatua dago bide zehatz batetako zaintze programa, proiektu guzti eta bakoitza hartzen duen programa orokor bat finkatzea ezinezkoa egiten delarik. Programa honek, beraz, proiektu bakoitzarentzat izan beharko du zehazki eta hartuko

duen eremuan emango diren eraginaren nondik-norakoak emango du, bere idazati ezberdinetan ustez emango diren eragin ezberdinak jaso beharko dituztelarik.

7.- LANEKO SEGURTASUN ETA HIGIENEARI BURUZKO AZTERLANA

AURKIBIDEA

7. LANEKO SEGURTASUN ETA HIGIENEARI BURUZKO AZTERLANA

7.1. SARRERA.

7.2. Segurtasun eta Higieneari buruzko azterlanaren helburua.

7.3. Memoriaren edukina.

7.4. Baldintza Partikularren Pleguaren edukina.

7.5. Agiriaren edukina. Planoak.

7.6. Neurketak.

7.7. Aurrekontua.

7.1. SARRERA

Otsailaren 21eko 555/1986 Errege Dekretuak, Herrilan eta eraikuntza proiektuetan hasiera batetan 100 milioiko edo gehiagoko aurrekontua duten, 50 edo langile gehiago erabiltzen duten edo arrisku berezia dutenetara mugatzen den Segurtasun eta Higieneari buruzko azterlan bat ezartzeko betebeharrak finkatzen du.

Azterlan honek ondorengo agiriak jasoko ditu guztienez:

- 1 Memoria.
2. Baldintzen Plegua.
3. Planoak.
4. Neurketak.
5. Aurrekontua.

Eta eraikitzaile edo kontratista nagusiak bere obren egiteratzeko sistemaren arabera Segurtasun eta Higieneari buruzko Plan bat egin dezan oinarritzko norabideak finkatuko ditu.

7.2. SEGURTASUN ETA HIGIENEARI BURUZKO AZTERLANAREN HELBURUA.

Laneko Segurtasun eta Higieneari buruzko azterlanak, eraikuntza prozesuaren aldi ezberdinen barne, eta mantentze eta konponketa lanen barne ere dauden Segurtasun eta Higieneari neurrien plangintza, indarrean jartze, jarraipen eta kontrolaren bidez egindako arrisku profesionalen aurreko alde aurreko ihardutzea izango du helburutzat.

7.3. MEMORIAREN EDUKINA.

Memorian, eta eraikuntza prozesuan aurrikustea ezartzeko, direlako aurrikustea egiteko neurriak eta arriskuak aztertuko dira aurretik.

Obren ezaugarriak deskribatuko dira, hauei buruz informatzen:

- Obra moeta eta egoera.
- Topografia eta ingurua.
- Lurrazpia eta dauden lurrazpitikako instalakuntzak.
- Eraginpeko beste zerbitzu batzuk.
- Osatzen duten eraikuntza unitateekin egindako

obraren deskribapena.

- Ustez behar izango den lanarigoa.
- Obraren aurrekontua.
- Lanen Plana.
- Erabiliko diren materialak.
- Lagungarriak.

Arrisku orokorrak aztertuko dira, eraikuntza proiektutik eta gordetze eta mantentze lanetatik datozenak zehaztuz, eta hauen artean bereiziz:

- Arrisku profesionalak.
- Hirugarrengoei egindako kalteen arriskuak.

Aipatutako arriskuei dagozkien Aurrikuste neurriak finkatuko dira, obraren egiteratzeko aldi ezberdinetarako eta mantentze eta gordetze lanetarako egingo delarik.

Aurrikuste neurri hauek hauetan sailkatuko dira:

1. Lanaren antolaketako aurrikuste neurriak.
2. Babeste kolektiboak.
3. Babeste pertsonalak.
4. Formazio ekintzak.
5. Alde Aurrezko Medikuntza eta Lehen Sorospetak.

Lan Zentruak izan beharko dituen aldagelak, jangelak, komunak, e. a. bezalako Zerbitzu Arruntak eta Sanitalak deskribatzen dira azkenik.

7.4. BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUAREN EDUKINA.

Baldintza Partikularren Pleguan jasoko dira egiten diren lanetan eragina izan dezaketen Laneko Segurtasun, Higieneari eta Medikuntzari buruzko Legezko eta Erreklamenduzko Arauak.

Makina, lanabes, tresna, sistema eta alde aurretiko ekipoen ezaugarri, erabili eta gordetzeari buruz bete beharko diren betekizunak finkatuko dira.

Babeste ekipo eta bideen erabilera eta gordetzeari buruzko betekizun zehatzak, babeste kolektiboak pertsonalengandik bereiziz.

Obrako Aurrikuste Zerbitzuak zehaztuko dira, bereziki Segurtasun eta Higieneari Zerbitzu Teknikoa, Medikuntza Zerbitzua eta Segurtasun eta Higieneari Batzordea.

Instalakuntza Sanital eta Arruntak berdin, Zerbitzuen kopurua, kokaera, neurriak, e. a. eta araupetzen dituzten legezko xedapenak finkatuz.

7.5. AGIRIAREN EDUKINA. PLANOAK.

Agiri honek Memorian definitutako aurrikuste neurrien definizio eta ulertze hobea du helburutzat.

Batez ere osatu beharreko informazioa alderdi hauei buruzkoa izango da:

- Euspen sistemak (Finkarazteak, zurkaizteak).
- Sare perimetralak.
- Hutsuneak itxitzea.
- Gainaldeetako lanen babestea.
- Makinak, bulegoak, aldagelak, e. a. kokapena, materialen biltze guneak, sarbideak.
- Babes pertsonal eta kolektiborako bideen ainguratze xehetasunak, bai eraikuntza aldi, bai mantentze eta gordetzearenean, e. a.

7.6. NEURKETAK.

Agiri honetan proiektatu edo definituak izan diren Laneko Segurtasun eta Higienearen elementu edo unitate guzti haien kopurua jasoko da, ondorengo kontzeptuen arabera taldekatuak:

1. Babes kolektiboak.

- Seinalizazioak
- Sareak
- Eskubaranda
- Hutsuneak istea, e. a.

2. Babes pertsonalak.

- Segurtasun kaskoa
- Segurtasun gerrikoa, e. a.

3. Makinak eta ekipoen babestea.

- Lur hartzea
- Etengailu diferentzialak
- Ibilbide mugatzaileak, e. a.

4. Zerbitzu Sanital eta arruntak.

- Aldagelak
- Armairuak
- Aulkiak

- Dutzak
- Berogailuak
- Kakoak, e. a.

5. Alde aurrezko Medikuntza eta Lehen Sorospen Zerbitzuak.

- Larrialdietarako Botikinak
- Horretan ari den langileria
- Azterketa medikoak, e. a.

6. Langilegoaren Heziketa Plana.

- Komitearen batzarrak
- Segurtasun eta Higieneari buruzko ikastaroak, e. a.

7.7. AURREKONTUA.

Agiri honetan Segurtasun eta Higieneari buruzko aztelanaren aplikapen eta egiteratzearentzat aurrikusitako gastuen multzoa zenbatuko da, bai guztiaren batuketa eta bai elementuen banan-banako baloraketari buruzkoena.

Guztiaren neurketak aurrikuste zaileko operazio edo elementuen kasuetan bakarrik egin ahal izango dira.

**EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO ERREPIDEAK
ZAINTZEARI BURUZKO ARAUTEGI TEKNIKOAK**

**EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO ERREPIDEAK
ZAINTZEKO ARAU TEKNIKOAK**

AURKIBIDEA

I ATALBURUA.- ARAUTEGI HONEN HELBURUA

- 1.1. ARAUTEGI HONEN HELBURUA
- 1.2. IHARDUNEAN JARTZEKO EPEAK
- 1.3. EDUKINAREN ANTOLAERA

II. ATALBURUA.- FIRMEAK ZAINTZIA

**2.1. EBALUATU BEHARREKO ZERNOLAKOAK,
HORIEN ADIERAZLEAK ETA INDIZEAK**

- 2.1.0. Laburpena
- 2.1.1. Egituraren integritatea
- 2.1.2. Lurgainaren degradazioa
- 2.1.3. Lurgainaren erregularitatea
- 2.1.4. Atxekidura

**2.2. FIRMEEN INBENTARIOA ETA HORI EGUNE-
RATZEA**

**2.3. EGOERAREN DATO BILKETA ETA FIRMEEN
BILAKAERA**

**2.4. INBENTARIOKO DATOEI BURUZKO ERREFE-
RENTZIAK ETA HORIEN IDENTIFIKAZIOA.**

2.5. FIRMEEN EBALUAKETA

**2.6. IHARDUTZEEN PROGRAMAZIO ETA DIFIZIO
ERIZPIDEAK**

III ATALBURUA.- FABRIKA-OBREN ZAINKETA

**3.1. FABRIKA-OBREN INBENTARIOA ETA ESPE-
DIENTEAK**

**3.2. FABRIKA-OBREN ALDIAN ALDIKO IKUSKAKE-
TAK**

**3.3. FABRIKA-OBREI BURUZKO IKUSKAKETA-TXOS-
TENAK**

3.4. FABRIKA-OBREN EBALUAKETA

**3.5. PROGRAMAZIOETARAKO ERIZPIDEAK ETA
EKINTZEN DEFINIZIOA**

**3.6. FABRIKA-OBREI BURUZKO INSTRUKZIOAREN
EDUKINA**

**IV ATALBURUA.- ZELAI DURATZE,
DRENAIA OBREN ZAINKETA ETA HAREN
BABESKETA**

**4.1. ZELAI DURATZEAREN OBRA GATAZKATSUEN
INBENTARIO ETA ESPEDIENTEA**

**4.2. ZELAI DURATZE OBREN ALDIAN-ALDIKO IKUS-
KAKETA**

**4.3. IHARDUTZEEN PROGRAMAZIO ETA DEFINIZIO
ERIZPIDEAK**

**V ATALBURUA.- SEGURTASUN
ETA SEINALIZAZIO INSTALAKUNTZEN
ZAINKETA**

**5.1. INSTALAKUNTZEN INBENTARIO ETA ALDIAN-
ALDIKO IKUSKAKETA**

**5.2. IHARDUTZEEN PROGRAMAZIO ETA DEFINIZIO
ERIZPIDEAK**

**ERASKINA.- ARAUTEGI HAU PRAKTIKAN JARTZE-
KO GUTXIGORABEHERAKO ZATIKAKO EPEAK ETA
KRONOGRAMA**

A.1. Osotasuneko

A.2. Firmearen zainketa

A.3. Fabrika-obren zainketa

A.4. Zelaiduratze obren zainketa

**A.5. Seinalizazio eta segurtasun instalakuntzen
zainketa.**

I ATALBURUA. ARAUTEGI HONEN HELBURUA

1.1.- ARAUTEGI HONEN HELBURUA

Errepide sarean egin behar diren zainketa-lanak definitzea eta programatzea erraztuko duen sistematika bat ezartzea da Arautegi honen helburua, era honetan, errepide ezberdinek osatzen dituzten ibilbideen homogeneitate-baldintzak eman daitezen eta horretarako beharrezko diren baliabideen erabilkerari emaitzik onenak atera ahal izateko. Dena dela, honako hauek sartzen dira: E.A.E.-ko errepide guztietako biabilitatean artez edo zeharka eragina izan dezaketen firmeak, fabrika-obrak, zelaiduratzea eta seinalizazioa.

Horiek horrela, honako Arautegi hau ematen da, ondoren aipatzen diren hauek ezarri ahal izateko:

- Errepide bateko obrek eta instalazioek bete behar dituzten zernolakoak, erabiltzaileen beharrei behar bezala erantzun ahal izateko.

- Aurreko parrafoan aipatu diren zernolakoak, horien eboluzioa eta obra eta instalazioen integritatea ezagutzeko bideak emango dituzten erizpideak.

1.2.- IHARDUNEAN JARTZEKO EPEAK

Egokia izango litzateke, Arautegi honen bidez ezartzen den sistematika, onarpena eman ondorengo lau urteko gehienezko epean osatu ahal izatea, sistematika bakoitzarentzako ezartzen diren epeen barruan sistematikak dituen aldi ezberdinak gauzatzuz.

Onarpena eman, sei urte igaro eta lortu diren esperientziak bildu ondoren, bidezkoa izango litzateke, ezarri diren arauak berraztertzea, gehiagotzea eta eguneratzea.

**1.3.- ARAUTEGIAREN EDUKINA ETA HARTZEN
DUTEN EREMUA ANTOLATZEA**

Bezeroaren beharrei behar bezala erantzun ahal izateko bete beharrezko zernolakoak, errepide-moetak dituen baldintzen pean gelditzen dira. Ondorio haue-tarako, sarearen hierarkizaketari jarraituz, hiru errepide-moeta bereizten dira:

- Autopistak eta autobideak
- 2.000tik gorako EBZ-a duten errepideak
- 2.000tik beherako EBZ-a duten errepideak

Planarren Gai den Sarearen barruan sartzen diren errepideentzako izango da aplikagarri Arautegi hau eta ez Arautegi honek aholku-indarra dueneko gai-nontzeko errepideentzako.

2.000 autotik beherako EBZ-a duten errepideei eza zaie aplikagarri izango Arautegi hau, hala ere, interesgarria izango litzateke, moeta honetako errepideei dagozkien eta garatu diren kontzeptuak kontutan hartzea errepideen zainketarako.

Errepidea osatzen duten instalazioetako obren ezaugarriak oso ezberdinak direnez, zainketa-arazoak, banan-banan eta lau talde eta atalburutan aztertzen dira:

- II Atalburua - Firmeak
- III Atalburua - Fabrika-obrak
- IV Atalburua - Zelaiduratzea, dreinaia obrak eta haren babesketa
- V Atalburua - Seinalizazio eta segurtasun instalazioak

II ATALBURUA. FIRMEEN ZAINKETA

2.1.- EBALUATU BEHARREKO ZERNOLAKOAK, HORIEN ADIERAZLEAK ETA INDIZEAK

2.1.0 Laburpena.

Honako zernolako hauen arabera ebaluatuko da firmeen egoera:

1. Egitura integritatea
2. Lurgainaren degradazioa
3. Lurgainaren erregularitatea
4. Atxekidura

2.1.1. Egitura integritatea

Egitura degradazioaren egoeraren adierazle gisa, egitura-integritatearen indizeak erabiliko dira deflexioari dagozkionetan, erredimendu handiko gailuz neurtuko dela hori.

Ebaluaketaren gai izan den aldean egin diren neurketen halako ehuneko batek bakarrik gaintutuko duen deflexioa izango da indizearen adierazle gisa hartuko den balorea.

Firmearen halako edo holako egiturak, zimentuetako hezetasun-baldintzak eta kapa asfaltikoen tenperaturak jasoko dituzte deflexioaren baloreek.

Horretarako eta aurrez, honako hauek zehaztuko dira:

1. Firmeen zernolakoak, beroien egituraren inbentario bat ezarriko dela.
2. Trafikoari buruzko datoak, errepideak jasaten dituen kargei buruzko inbentario bat ezarri dadinaren aholkua ematen dela.
3. Firmeen iraupena eta iraungo luketeneko aldia zehaztea eredu analitikoaren bidez, lehen aipatu diren inbentarioetako datoetan oinarri hartuz.

Ondorio hauetarako, honako era honetan definituko da firme baten iraupena: Errepidea egin eta degradatzen hasi arte, 13 Tm-ko ardatzduen ibilgailuak igarotze-aldien kopurua. Eta iraungo lukeen aldia: Ardatzen kopuruaren portzentaia, hots, aurreantzean jasan lezakeena.

Honako hauetarako erabiliko da deflexioa:

a) Adierazle gisa, zamagatik degradazioa hasi deneko aldeak zehaztu ahal izateko eta, hori, degradazio hori azalera etorri baino lehen edo, konplementarioki, degradazio-sintomak azaleratu baino lehen.

b) Zimentuek orekarako hezetasuna hartzean, horrek ekartzen dituen hezetasun-aldaketak direla eta, zimentuek karga jasateko duten gaitasunaren eboluzioa zaintzeko.

Horretarako, firme berri bat egin edo firma berrituta berehala neurtutako deflexioaren balorea hartuko da erreferentziaz, horren eboluzioa eta firmearen iraupena eta iraun lezakeena konparatuko direla.

Egituraren agiango degradazioaren berri eman dezaten lehenengo deflexio-indizeak, honako hauen

arabera finkatuko dira: Errepideetako trafiko, deflexioak neurtzeko erabili daitezkeen gailu eta inbentarioek eman ditzaten firmeen zernolakoaren arabera eta, hori, gutxigorabehera hiru urteko epearen barruan egingo den Instrukzioan sartu beharko da.

Egituraren integritateari buruzko egoera-adierazleak erabiliko dira deflexioaren osagarritzat firmeei dagozkionetan, eta aldian-aldian eta sistematikoki egingo diren arakaketen bidez lortuko direla adierazle horiek.

Egituren degradazioak non dauden eta horien kausak emango dizkigute aditzera adierazle horiek. Adibidez, honako degradazio hauek:

- Luzetarako pitzadurak, errodaduran.
- Krokodiloaren azalaren itxurako laurkiketak.
- Ertzek, errodadurek eta toki jakinek behera egitea.
- Losak apurtzea, ormigoizko firmetan.
- Pitzaduretatik eta juntetatik lokatz arinak irtezea, autoak igarotzerakoan.

2.1.2. Lurgainaren degradazioa

Lurgaineko degradazio-indizeetan, ikusbidezko arakaketa sistematikoz jaso ohi diren honako degradazio hauek jasoko dira:

- Krokodiloaren azalaren itxurako pitzadurak.
- Luzetarako eta zeharretarako pitzadurak.
- Zaharkildu izanaren ondoriozko pitzadurak.
- Errodadurako materialaren degradazioak.
- Batxeak edo batxeak konpontzeko partxeak.

Firmearen ikusbidezko ikuskaketa sistematikoa egiterakoan, honako hauek jasoko dira degradazio hauetako bakoitzari dagozkionetan, hau da, ebaluaketaren gai izan den aldeak duen degradazioaren larritasun-graduak eta degradazioaren hedadura.

Firme moeta bakoitzarentzako taula bat sortuko da, indize baten balore partzialak eta degradazioaren hedaduraren larritasuna jasoko direla bertan.

Gutxigorabehera hiru urtetako epearen barruan sortu beharko litzatekeen Instrukzioan, ekintzen komenigarritasuna aztertu beharko deneko unbralak finkatu beharko dira, inbentarioak, trafikoak eta zirkulazioaren abiadurak eman ditzaten firme-moeten arabera.

Hori osatzeko, sistematika ezarriko da lehenengo urtean, honako hauek burutu ahal izateko: Hau da, ikusbidezko ikuskaketa, datoak lortze eta artxibatze moduak eta bai indizeko balore partzialen taula ere.

Ikusbidezko arakaketa sistematikoaren ondorio gisa, urteko txostena emango da, ekintza bereziak definitzeko eta programatzeko komenigarriak diren datoak jasoko direla bertan, azalaren integritate-baloraketarako datoez aparte. Eta honako hauek bereziki:

- Erroderak daudenari eta duten sakontasunari buruzko datoak.
- Aguaplaneoa egiteko erriskudun guneak sortzea.
- Errodaduraren azaleko ondulazio edo deformazio handiak, eta
- Plataformako dreinaia eskasiak.

Irregularitate hauek kontutan hartu beharko dira eta, segurtasun arrazoiak direla medio eta ebaluaketaren indize ezberdinegatik, lehentasuna eman, ekintzen komenigarritasuna aztertu ahal izateko.

2.1.3. Azalaren erregularitasuna

Firmearen egoera orokorraren adierazle bat da azalaren erregulartasuna.

Azal, egitura eta zimentuetako degradazio asko eta askok edo ormigoizko firmeetako losen desnibelaketak, azaleko erregulartasunik eza ekarri ohi dute.

Konserbazioa, zainketa moduan planteiatzen baldin bada, (azalak erregulartasun urria baldin badu, konpondu egin beharko da beti, modurik onenean noski), P.S.I.(Present Serviceability Index) indizea, funtsezko parametro gisa hartzen da firmearen egoera aztertu ahal izateko. Otiak 5era arteko indize-balorea duen P.S.I. delakoak, arrazoizko onargarritasuna ematen du 3 balorera arte eta ekintzaren komenigarritasuna 3tik 2ra.

Hala ere, kalteei aurre hartzeko konserbazioa lortu ahal izateko, beharrezkoa da, irregularitateen kausak bereiztea eta horietako batzuez kobetzea, irregularitatea eman baino lehen ihardunari ekiteko.

Azalaren erregulartasun indizeek, luzetarako perfilaren erregularitateari dagokion kalifikapena jasoko dute, errendimendu handiko gailuz neurtuko dela erregulartasun hori.

Azalaren erregulazioa ekar dezaten ekintzen komenigarritasuna aztertu behar deneko gutxienezko baloreak, aldatu egingo dira firmearen moztaren eta errepidetikako zirukulazioaren abiaduraren arabera.

Gutxigorabehera urteren barruan egingo den Instrukzioan finaktu beharko dira gutxienezko baloreen indizeak, neurketak egiteko erabili daitezten gailu eta inbentarioetako firmeek zernolakoan arabera.

2.1.4. Atzekidura.

Gurpila-kalzada deslizaftnenduaren koefizientearen eta kalzadaren azal-testuraren pean egon ohi da gurpilak, baldintzak normalak direnean, kalzadarekiko duen atzekidura.

Errodadura gainetarako erabili daitezten materialen aukera egiterakoan, kontutan izan beharko da hori, bai atzekidura egokia lortu ahal izateko eta bai zernolako horiek luze iraun dezaten ere.

Hala ere, trafikoa eta denbora igarotzeak murriztu egiten ditu lehenengotan lortu ziren baldintzak; eta hori dela medio, zaindu egin behar da eboluzioa eta, hala behar izan dadinean, egoki diren ekintzak burutu trafikoaren segurtasunerako behar diren mailei eutsi ahal izateko.

Atzekidurari dagozkionetan, firmeak izan dezakeen egoeraren adierazle gisa, deslizamenduaren indizeak erabiliko dira zeharretarako deslizamenduaren koefizientearen balioaren arabera, «Scrim» gailuak neurtuko dela hori.

Errendimendu handiko beste gailu bat erabiltzea gertatuko balitz, «Scrim» gailuak eman ditzan neurriekin korrelazionatu beharko dira neurriak, gailu hori erabiltzeko argibide-arauek aditzera eman dezatenaren arabera.

Koefizientea hobetzea ekar dezaketen ekintzen komenigarritasuna aztertu beharko deneko gutxienezko balore gisa, CDT = 0,50 balorea jartzen da eta, ekintza horiek lehentasuna izan dezateneko gutxienezko balore gisa, CDT = 0,30 jartzen da.

2.2.- FIRMEEN INBENTARIOA ETA HORI EGUNERATZEA

Sareko errepideen firmeei buruzko inbentario oso

bat egindo da, zernolako homogeneousak dituzten aldean arabera.

Honako hauek zehaztuko dira firmeen zernolako gisa:

- Kalzada eta arzenen zabalera.
- Errodadurak duen azal moeta eta egin zeneko data.
- Firmearren egitura eta errodadura eragin handia izan zuten azken obrak egin zireneko data.
- Zimentuaren zernolakoak.

Zernolako hauek ezezagunak izan daitezenean, ahal den onduen neurtuko dira, erasota utziko dela hori.

Inbentarioa gaurkotu egin beharko da, bertan azaltzen diren datoen aldaketa ekar dezaketen ekintzak burutu daitezenean.

Horiek zehaztu ahal izateko, urtebeteko epea ezartzen da laguntzabide gisa, Instrukzio bat egingo dela aurretik koordinazioa eman dadin eta honako hauek zehaztuko direla bertan: Bere egitura, edukin zehatza, datoak eskuratzeko-moduak eta artxibaketa, burutu diren ekintzen berri emateko sistematika.

2.3.- FIRMEEN EGOERA ETA BILAKAERARI BURUZKO DATOAK BILTZEA.

Firmeen egoera eta bilakaerari buruzko datoak eskuratzeko, honako indize hauek jasoko ditu:

1. Deflexioak, egituraren integritatea ebaluatu ahal izateko.
2. Azalaren erregulartasun indizeak, azalaren erregulartasuna ebaluatu ahal izateko.
3. Zeharretarako deslizamenduaren koefizientea, atzekidura ebaluatu ahal izateko.
4. Ikusbidezko arakaketa sistematikoa, azalaren degradazioa ebaluatu ahal izateko.

Ebaluaketaren pean dauden errepide guztiei buruzko datoak lehenengo aldiz hartzea, bi urteren barruan egingo da.

Lehenengo hiru indizeak errendimendu handiko gailuz jasoko dira, autopista, autobia eta trafikorik ugariena duten errepideei buruzkoak jasoz ekin eta, horien artean, bistarako itxurarik eskasena duten errepideei buruzko datoak izango dutela lehentasuna.

Ekintzen komenigarritasunaren gutxienezko baloreak lehenengo ebaluaketan gaintu ditzaten aldeetan egingo da bigarren datu bilketa: Komenigarri izango litzateke ekintzak burutu baino lehen gauzatzeko, azken dato bilketa egin zenetik bi urte baino gehiago igarotzea gerta dadinean eta, seigarren urtea baino lehen, ekintzarik burutzen ez baldin bada.

Gerorako bilakaeraren erreferentzi gisa, berriro egingo dira neurketak eta, ahal baldin bada, ekintzak burutu zireneko hurrengo urtearen barruan.

Ekintzen komenigarritasuna aztertzeko gutxienezko baloreak lortu ez dadineko aldeetan, ez da beharrezkoa izango, indizeekiko neurri berriak hartzea arauteria osatzeko finkatuta dagoen sei urteko epearen barruan.

Ikusbidezko arakaketa sistematikoa, urtean-urtean egingo da ahal baldin bada, era honetan, 2. urtean eskuratutako datoetan oinarri hartuz, sare osorako, azalaren degradazioagatikako ebaluaketa egin ahal izateko.

2.4.- INBENTARIOKO DATOEI BURUZKO ERREFERENTZIAK ETA HORIEN IDENTIFIKAZIOA.

Inbentarioko dato guztiak, hau da, obrak lehenengo aldiz egitea, geroagoko ekintzak, ikusbidezko arakaketak eta errendimendu handiko gailuez hartutako datoak, erraztasunez identifikatzeko moduan utziko dira erasota eta okerbiderik ez emateko moduan.

Errepidearen izenaren eta puntu kilometrikoen arabera egingo da aldean aipamena, egin zeneko eguna zehaztuz eta, izenetan edo puntu kilometrikoetan aldaketak egotea gertatzen bada, datoak eguneratuz.

2.5.- FIRMEEN EBALUAKETA.

Komenigarri da, alde guztietako firmeen lehenengo ebaluaketari hasiera ematea, inbentarioari eta lehenengo dato-bilketari eman zaizkien bi urteko epea ainaitu ondoren.

Urtean-urtean egingo da ebaluaketa, eskuarteko datoez baliatuz. Honako hauek jasoko dira bertan alde bakoitzari dagozkionetan: Egoeraren eta bilakaeraren indizeak eta ekintzak programatzeko kontutan hartu behar diren irregularitate bereziak. Ikuskaketa-txostenaren bidez eskuratuko dira indizeak.

2.3. puntuan aipatu diren zernolako bakoitzaren ebaluaketa, banan-banan egingo da.

Egituraren integritatearen ebaluaketa eginez emango zaio hasera eta, hori oinarri hartuz, iraupen residual handiagoa edo txikiagoa duen firmearen protzentaiak finkatuko dira.

Honako bi prozedura hauetakoren batez baliatuz egingo da ebaluaketa hori:

a) Egitura, materialen zernolako, trafikoko eta deflexio neurriei buruzko datoak oinarritzat hartuz, bilakaera-eredua erabiliz.

b) Ikusbidezko arakaketa sistematikoari eta trafikoari buruzko datoak oinarritzat hartuz, aztertu egingo dira antzeko firmeetan estatistikoki ikusitako bilakaeraren funtzioak.

Honako hauek oinarritzat hartuz egingo da azalaren integritatearen ebaluaketa: Trafiko eta meteorologiari buruzko datoak, gaineko kapa egin zeneko zernolakoak eta ikusbidezko arakaketa sistematikoari buruzko datoak kontutan hartuz alegia, estatistikoki bildutako bilakaera-funtzioak aplikatuz.

Honako era honetan egingo da deslizamenduari buruzko ebaluaketa, hau da, «Scrim» delakoak emandako, errodadura egite aldiko eta jasan beharreko eta jasadako trafikoaren datoez eta, hori, antzeko meteorologia duten aldeetan antzeko materialek izan duten bilakaera konparatuz egingo da.

Firmearen aldeak aukeratzekoan, aparteko arduraz tratatuko dira, geometria edo erabilpen mailan dituzten zernolakoak direla eta, erabiltzaileek aparteko eskabideak dituzteneko aldeak: Frenaketa edo maniobrak.

Era berean, errepidea bustita dagoela eta, gertatu diren istripuak ere kontutan hartuko dira eta bai, ikusbidezko arakaketa sistematikoaren bidez, urak biltzeko erraztasuna dutentzat jo diren aldeak ere.

Azkenik, firmeak dituen degradazioen arabera egingo da azalaren erregulartasunaren ebaluaketa, moeta, zirkulazioaren abiadura eta indizetik jasotako neurriak kontutan hartuz.

2.6.- EKINTZAK PROGRAMATZEKO ETA DEFINITZEKO ERIZPIDEAK.

Firmeak zaintzeko egin ohi diren operazioak, egoeraren eta bilakaeraren indizeen ebaluaketak eta jaso daitezkeen bereiztasunak kontutan hartuz egingo da ekintzen programazioa.

Honako hauek hartuko dira oinarritzako erizpidetzat, programazio egiteko:

- Segurtasun arrazoiegatikako lehentasunak.
- Baliabideak erabiltzearen ekonomikotasuna.
- Erabil daitezkeen baliabideen murriztasuna.
- Ekintzen koordinaketa, bideak homogeneizatu ahal izateko.

Egituraren integritatearen ebaluaketa izango da abiapuntua, hori zaintzeko bi ekintza-moeta direla beharrezko:

1) Egitura sendoagotzea, iraupenaldia amaitu baino lehen (aurre hartze zainketa).

2) Utiltasun epealdia amaitu eta degradatzen hasita dagoen egitura bereoneratzea (osatzezko zainketa).

Estrategia jakin bati dagokion egitura-integritate-tarako ekintzekin batera, ekintzetarako behar diren osagarriak aurkeztuko dira, azaleko integritate, azaleko erregularitate eta deslizamenduaren ondorioetarako.

Ekintzek honako hauetan laguntzeko dituzten posibilitateak ere kontutan hartu behar dira, hau da, atxekidura, egituraren integritatea edo gaineko kaparen integritatea zaintzeko posibilitateak alegia eta, aldi berean, zoladuraren azal-erregularitatea hobetzeko bideak ere kontutan hartu behar dira.

Zehaztasunez formulatu behar dira programak eta, behar bezala tipifikatu gabe dauden ekintzak, definitu egin behar dira behar hainbat ezaguna den eta behar bezalako onarpena duen proiektu-metodologiak baliatuz.

III ATALBURUA. FABRIKA-OBREN ZAINKETA

3.1. FABRIKA-OBREN INBENTARIOA ETA HORIEI BURUZKO ESPEDIENTEA.

Errepideetako fabrika-obren bilakaeraren azterketa egin ahal izateko, guztiei buruzko inbentarioa egingo da. Obra bakoitzaren aipamena, errepidearen izen eta kilometraiaren arabera egingo da, eguna ere aipatu behar dela, era honetan, izenean edo kilometroetan aldaketak egon daitezenean, aipamenetan ere aldaketak egin ahal izateko.

Aipamena jasotzeaz aparte, honako hauetan sailkatzen dira fabrika-obrak:

- Zubiak eta biaduktoak (honako hauetarako egiten diren fabrika-obra moeta guztiak aipatuko dira: depresio naturalak, eskualde bitxiak, komunikabideak salbatzeko egiten direnak, sei metrotik gorako argia duten egituradunak).

- Pasabide eta alkantarilak (honako hauetarako egiten diren fabrika-obra moeta guztiak aipatuko dira: ibilgailuak, oinezkoak, animaliak edo ura pasatzekoak, errepide azpitik, sei metrotik bi metrora arteko argia dutela).

- Hormak (bi metrotik gorako altuera duten horma moeta guztiak sartuko dira).

- Tunelak (errepidea pasatzeko egin diren tunel

guztiak sartuko dira, nahiz lurra zulatuz egindakoak izan, nahiz tunel artifizial gisa egindakoak izan).

Obra bakoitzaren inbentarioko datoen artean, honako hauek jaso beharko dira gutxienez:

- Eusten dion bidea; haren gainetik pasatzen deneko bia, bide edo parajea; eusten dion biderearen kilometro puntua eta, hala behar izan dadinean, gurutzatzen duenarena; udalerrria.

- Obraren izena, baldin badu.
- Egin zeneko data.
- Egituraren tipologia, neurriak eta argiak.
- Gutxienezko galibak eta konprobazio-data.
- Junten moeta, hala behar izanez gero.
- Eusgailuen moeta, hala behar izanez gero.
- Onar lezakeen gehienezko karga.
- Azken ikuskaketaren data.
- Obraren egoera eta Ikuskaritzak egindako txostenean aholkuaren gai izan diren ñabardurak.

Espediente bat zabaiduko da inbentarioan sartu den obra bakoitzarentzako eta, bertan, inbentarioan jasotzen diren datoez aparte, honako hauei buruzko informazio zehatza jasoko da:

- Bidearen geometria plantan eta altzatuan eta zeharkako sekzioak.

- Obraren eta armadurarik nagusien plano orokorrak.

- Erabili diren materialak eta proiektuan eskatzen diren erresistentziak.

- Egitean lortu diren erresistentziak. Egiterakoan egon diren gorabeherak

- Zimentazioa eta zimentuak edo lurrak duen agiango gaitasuna.

- Egiterakoan lortu diren zimentu edo lurraren zernolakoak.

- Proiektuan onartuak izan ziren zama-trena, dimensionamendu erizpideak eta kalkulu-metodoak.

- Sekzioak eta ur-isurketa gaitasunak, hala behar izan dadinean.

- Egituran ezarrita dauden elemento bereziak eta ekipoak.

- Defentsak eta babesgaiak.

- Inguruaren bitxitasunak.

- Lehenengo ikuskaketaren eta ondorengo ikuskaketaren txostenak.

- Onartzen den gehienezko zama zehazteko ebaluaketaren justifikapena eta aholkuperako murriztapenak.

Espedientean edo inbentarioan sartuta dauden datoetan aldatetaren bat ekar dezaketen eta sareko fabrika-obretan burutu daitezkeen ekintza guztiak, eguneratu egin beharko dira.

3.2. FABRIKA-OBREN ALDIAN-ALDIKO IKUSKAKETA.

Aldian-aldian ikuskatu egin beharko dira fabrika-obrak, horretarako bereziki gaitutako langileek egingo dutela hori, Ikuskariak horretarako behar bezalako baimena emango dueneko ikuskaritzaren enaitzen laburpen zehatza egingo dela.

Espedienteari hasera ematerakoan, fabrika-obra bakoitzaren lehenengo ikuskaketa egingo da.

Honako hauek jasoko lirateke lehenengo ikuskaketan: Proiektuari eta obra gauzatzeari buruzko agiri guztiak jaso eta aztertzea; ikuskaketa bera; ikuskaketaren oharren laburpenaz aparte, obran onartuak izan daitezkeen gehiegizko zamei, hondaketaren agiango eboluzioari, edozein eratako murriztapenen agiango

komenigarritasunei edo sarritako berrikusketa bereziki buruzko arrazoi eta guztizko txostena.

Ikuskaketaren txostena fitxero-inbentarioan sartuko litzateke; eta obraren ebaluaketan eragina izan dezaketen akatsen batzuk somatuko balira ikuskaketa egiterakoan, ebaluaketa berri bat egingo litzateke, espedienteko zernolakoetan eta zainketa-ekintzetarako programazioan aldatetak sartu ahal izateko.

Fabrika-obretako ikuskaritzak egin ditzan ikuskapenez aparte, ustiaketa eta zainketarako ohizko zebitzuek ikus ditzaketen akatsen eta fabrika-obretan eragina izan dezaketen istripu edo gorabeheren berri emango diote ikuskaritzari.

Ikuskaketa bakoitzaren ondoren, espediente osatu egingo da, eguna, onar daitezkeen kargak eta beste murriztapen batzuk aldatuko direla bertan hala behar izan dadinean eta honako ñabardura hauek gehituko direla:

- Obraren egoera.

- Azken ikuskaketa egin zeneko eguna.

- Hurrengo ikuskaketa egin beharko litzatekeeneko eguna.

- Istripu kopuruari buruzko azken informazioa.

Komenigarri izango litzateke, fabrika-obra bati buruzko Espediente zabaldu ondoren egin beharreko ikuskaketak egiteko epea, sei urtetik beherakoa izan dadila.

Kanpoko obrena baino sarriagotan egin beharko da tunelen ikuskaketa, argiteria, balizeketa, segurtasun eta kontrol zerbitzuak instalatu beharrekoa hainbateko luzeera duten tunelak izan daitezenean batez ere.

Honako hauek hartuko ditu egiturari buruzko ikuskaketak, hau da, estalduraren integritatea, drenaien iharduera, zoladuren eta espaloien egoera etab... Egituraren bilakaera zaintzeko tresna bereziak jarrita dauden tuneletan, zainketa horri buruzko datoak jasoko dira.

Bereziki gaitutako teknikariek egingo dute instalazioen ikuskaketa.

Errepideen sarean obra bitxiren bat egitea gertatuko balitz, adibidez, zintzilikako zubiren bat edo argi handiko zubiak, proiektistaren edo era honetako zubien proiektuak egiten, horiek eraikitzen eta zain-tzen esperientzia duen espezialista baten lankidetzaz manual berezi bat sortuko da, horien ikuskaketa egin ahal izateko.

3.3. FABRIKA-OBREN IKUSKAKETA-TXOSTENAK.

Ikuskaketa bakoitzari buruzko txosten formal egingo da, Ikuskariaren izenpe emango dela baimena horretarako. Ikuskaketaren gai izan den obra identifikatuko litzateke txostenean, Ikuskariaren izena eta bai ikuskaketaren egunak ere. Honako hauen egoera derrigorrez aipatu beharko da bertan:

- Barandilak.

- Segurtasun barrerak.

- Argiteria.

- Espaloiak.

- Zoladura.

- Bideetako markak.

- Zutikako seinalizazioa.

- Inpostak.

- Ur isurtegiak.

- Dilatazio juntak.

- Euskariak.

- Ezoizko bibrazioak, ibilgailu astunak igarotzetarakoan.

- Tabieroa eta tableroaren elementuak.
- Tablerotikako hezetasunak.
- Kapitela, egon baldin badaude.
- Pilak.
- Pilen zimentazioa eta deskaltzea.
- Estriboak, aletak eta estribo-hormak.
- Laguntza edo euskai hormak.
- Inpermeabilizazio juntak.
- Kaltzada obrari gerturatzeko aldeak.
- Lur konoak estriboetan.
- Enkatxaketa.
- Babesgaiak.
- Eragindun erosioak, suteen eraginez.
- Igarotzeko, zubia erabiltzen duten instalazioak eta zerbitzuak.

Somatu daitezkeen akatsak, zehatz-mehatz jaso beharko dira (pitzadurak izan daitezenean: Egoeraren krokisa; luzeera; neurketa egin zenean, pitzadurak zuen zabalera ingurugiroko tenperaturaz etab...). Tipifikazioa ez besteko agirietan jasoko dira.

Bi akats moeta jarriko ditu nabarmen ikuskaritzaren txostenak: Ohizko zainketari dagozkionak (elemento metalikoak pinatzea, juntak eta euskariak konpontzea, etab...) eta, beste kausa batzuk direla medio, taiuketan, egitean edo egitura-degradazioetan egon daitezkeen akatsei dagozkienak. Konserbaziorako ohizko ekintza-programak formulatzeko erabiliko dira lehenengoak eta ekintza bereziak ikertzeko bigarrenak.

3.4. OBRA-FABRIKEN EBALUAKETA.

Honako hauek jasoko dira fabrika-obren ebaluakeran:

- Obrak, behar bezalako segurtasun baldintza dituela, jasan ditzakeen gehienezko zamak.
- Materialak zaharkildu izanaren ondorioz, zama horiek gutxiagotu beharra.
- Epe jakin batzuren barruan, egiturako halako edo holako elementu konpondu edo berriak jarri beharra, zerbitzuak segurtasuna izan dezan (medio kaltekorren eraginpean dauden junta, euskari, kable eta ormigoizko pieza berriak jarri beharra, etab...).
- Obra egokitzea, zeharretarako igarobideak behar bezala izan ditzan (isurtegiak, zeharretako bideetako galiboak, etab...).
- Jasan behar duten trafikoaren zernolakoak, bide ezberdinen homogeneitatearen eraginez.

Batabestearen ondoren egin diren ikuskaketetako datoez osatuko den inbentarioaren eta poliki-poliki eguneratutako fitxen arabera egingo da ebaluaketa hau.

Fitxa-inbentarioko datuak oinarritzat hartuz ebaluaketa egin ondoren, honako datu hauekin osatuko da:

-n (eguna) onar dezakeen zama.
-n (eguna) beste murrizketa moeta batzuk.

3.5. EKINTZAK PROGRAMATZEKO ETA DEFINITZEKO ERIZPIDEAK.

Zainketa programetan jaso behar diren zainketa ekintzak, ohizkoak izango dira, hots, hasierako zernolakoak berriro jartzeko balio dutenak, dendora igarotzeak eta beste eragile berezi batzuk zaharkildu egin dituztelako.

Ekintza bereziak, egitura mailako arazoak ekar ditzaketen akatsak ikuskaritzak nabaritu ditueneko

obrak berregokitze edo sendotze-obrak izango dira, akats horien kausa izan direnen ikerketa bereziari ekingo zaiola eta horiek izan dezaketen eraginaren eboluzioa zaintzeari buruzko lanek hasera emango zaiela.

Ohizkoak izan ohi diren zainketa-operazioak eta ikuskaketen txostenetan jaso daitezkeen ohizko akatsak oinarritzat hartuz eta jaso diren bilakaeren akatsak sakontasunez aztertu izanak ezarri ditzan ekintzak kontutan hartuz, ekintze programazioa egiteari ekingo zaio.

Honako hauek hartuko dira ekintzetarako oinarritzko erizpide gisa:

- Lehentasunak, segurtasun arrazoia direla medio.
- Baliabideak erabiltzearen ekonomikotasuna.
- Erabil daitezkeen baliabideen murriztasuna.
- Ekintzen koordinaketa, bideak homogeneizatu ahal izateko.

Zehaztasunez formulatu behar dira programak eta, behar bezala tipifikatu gabe dauden ekintzak, definitu egin behar dira behar hainbat ezaguna den eta behar bezalako onarpena duen proiektu-metodologiaz baliatuz.

3.6. FABRIKA-OBRAK ZAINTEKO INSTRUKZIOAREN EDUKINA.

Honako hauek zehaztuko dira Fabrika-Obren Instrukzioan:

- Inbentarioaren egitura, bere edukin zehatzak, datuak lortzeko moduak eta datuak artxibatzea.
- Espedientearen egitura eta horien edukin zehatza.
- Ikuskaketak egiteko modua eta horiek egin ditzaten profesionalek izan beharrezko titulua eta espezializazioa.
- Ikuskaritzaren txostenen egitura eta edukina.
- Tunelen, obra handien eta zernolako bereziak dituzten obren ikuskaketa egiteko onar daitezkeen gehienezko baldintzak.

IV ATALBURUA. ZELAIDURATZE ETA DRENAIA OBREN ZAINKETA ETA BERE BABESKETA

4.1. ZELAIDURATZEAREN OBRA GATAZKATSUEN INBENTARIOA ETA ESPEDIENTEAK

Finkotasun txikiko mendi ebaketa eta terraplenen, lur konprimagarrien gainean edo aldapa irristakorretan finkatutako guneen, uholde edo alboko ibai baten etorrera erasoak erraz ematen diren guneen, edo, beste edozein arazoigatik, hobekuntza arruntak edo ohiturazko lanak baino ihardutze garrantzitsuagoak beharrezko edo komenigarri egin ditzazkeen zainketa arazoak erraz azaltzen direneko guneen inbentarioa egingo da.

Bidezatan agertzen diren arazo zehatzekin lotutako jarraipen, egiteratze eta proiektu informazio guztia bakoitzarentzat jasoko duen espediente bat ezarriz, jarraipen zehatza izan behar duten bidezati hauek finkatuko dira inbentarioa honetan.

4.2. ZELAIDURATZE OBREN ALDIAN-ALDIKO IKUSKAKETA

Jokaera ezagutzera ematen duten datuak jasoko dituen (mugimenduen kontrol topografikoa, onartuta-

ko azterketa bideak) eta bere aipamen eta diagnostikoaren txosten bat egin beharko zatekeen aldizkako ikuskaketa bat egingo da Inbentarioan jasotako zelaiduratze bidezati bakoitzean.

Inbentarioan jasotako bidezati guztien lehen ikuskaketa bat egitea eta jarraipena egiteko beharrezko erreferentzia edo azterketa gailuak finkatzea gomendatzen da (Inbentarioa bukatzen denetik) lau urteko epe baten barruan. Lehenengo ikuskaketaren txostenean egingo da jarraipen hau egiteko aldiak mugatzea (hurrengo ikuskaketetan aldatu ahal izango delarik) eta hau bukatzen denetik hasita egingo da. Obren arazoak uren etorrerekin, uholdeekin, sismoekin edo eman daitezkeen beste kanpoko kausekin zerikusia dutenetan, kanpotiko kausa hauen agerpena kontutan hartuko da ikuskaketa aldiak finkatzerakoan.

4.3. IHARDUTZEEN PROGRAMAZIO ETA DEFINIZIO ERIZPIDEAK

Aurreko parrafoan aipatutako ihardutze bakuneez gain, lurgainetikako urek (erriaren edo inguruko ubideetakoek) mendi-ebaketa, terraplen eta zoladuraren higadura eta degradazio batetik, eta lurrazpitikako urek forma aldaketak eta irristadurak ez sorterazte bestetik egiten duten dreñaia eta hustuketa zainketa arruntak egiteko lanen egiteratze sistematikoa egitea eskatzen du zelaiduratzearen zainketak.

Iragazkaiztasun edo gaineztadura bezalako zaintze arrunteko lan sistematikoak gutxitzea ahalbideratzen duten obra osagarri edo hobekuntzakoak ere ezarriko dira.

Ohizko zainketa lanen eta lehenengoen garrantzia mugatzeko hobekuntza arrunten arabera, eta inbentarioan jasotako bidezatien jokaeraren azterlanen ondorioz ematen diren iharduketak kontutan hartuz, iharduketon programaketari ekingo zaio. Ihardutzearen oinarriko erizpide bezala hartuko direnak:

- segurtasun arrazoiegatiko lehentasunak.
- errekurtsoen erabileran ekonomitasuna.
- dauden errekurtsoen mugatzea.
- ibilbideak batzeko ihardutzeen koordinaketa.

Programak zehaztasunez egingo dira, eta jasota ez datozen ihardutzeak aski ezagutu eta onartutako proiektu metodologia batekin definituko dira.

V ATALBURUA. SEGURTASUN ETA SEINALIZAZIO INSTALAKUNTZEN ZAINKETA

5.1. INSTALAKUNTZEN INBENTARIOA ETA ALDIAN-ALDIKO IKUSKAKETA

Instalakuntza hauei dagokienez, zehaztasunezko Inbentario bat egingo da hauek zaintzeko, eta konpokena eta birjarpen larriez gainera, zaintza maila eta osotasunezko aldi-aldi ikuskaketak egingo dira.

Benetan errepresentagarriak, daudenen artean, zeintzu seinale eta babespeide diren, eta bere kokaera eta bisibilitateari dagokienez jarrita izan direneko helburua erabat betetzen dutenaren egiaztapena egingo dute Ikuskaketa hauek. Baldintza hauek gaez eta eguraldi txarrarekin ere egiaztatzeko egingo dira ikuskaketak.

Behaketa hauen ondorioz egin beharreko aldakuntzak bere zaintzea egiterakoan lanen multzo bat osatuko dute.

Ikuskaketak urtero egitea gomendatzen da, aurkitutako akats eta hutsuneen zuzenketarako gomendioen eta jasotako datuen aipamenarekin txosten bat egingo delarik.

Era berean, bi urteko epearen barruan, lehenengo Ikuskaketa eta Inbentarioa osotzea komeni da, aurretik ikuskaketa hauek eta ondorengo txostenak egiteko Argibide bat onartuz. Jasoko direnak:

- Indarrean dauden gomendio eta arauteriari, marka, seinale, zutoleztatze eta segurtasun hesien egokitasuna.
- Inguruko seinale eta elementuak erabiltzaileak bisibilitate ona izan dezan jartzea.
- Garbiketa, konponketa edo birjartzearen kome-nigarritasuna dela eta, zainketa eta erabiltze maila.

Gainera, zirkulazioaren segurtasuna zuzenean eraginpetu dezakela uste den hutsuneak aipatuko dira.

Epe hori bukatzen denetik, ikuskaketa eta txostena urtero egin daitezkeen komeni da, aurrerago jasotakoarekin bat etorriz.

5.2. IHARDUTZEEN PROGRAMAZIO ETA DEFINIZIO ERIZPIDEAK

Inbentarioko datuak hartu eta aldizkako ikusketetakoekin osaturik finkatuko da ihardutzeen programaketa.

Ihardutzeen programaketa egiteko oinarriko erizpide bezala honako hauek hartuko dira:

- segurtasun arrazoiegatiko lehentasunak.
 - ibilgailuen gidatzean batasuna eta ibilbide osoetan trafikoaren antolaketa laguntza.
 - errekurtsoen erabileran ekonomitasuna.
 - dauden errekurtsoen mugatzea.
- Azkenik, jasota ez datozen ihardutzeen definizioa egingo da.

ERASKINA

ARAUTEGI HAU PRAKTIKAN JARTZEKO GUTXIGORABEHERAKO ZATIKAKO EPEAK ETA KRONOGRAMA

Ondoren zehazten dira gutxigorabehera Euskal Autonomi Elkartearen zaintze araua praktikan jartzeko zatikako epeak eta kronograma.

A.1. Osotasunekoak.

- Praktikan jartzea: onartzen denetik 4 urte
- Berrikustapen, hedatze eta eguneratzea: 6. urtea. 6 urteko denboraldi hau bukatzean, zaintze prozesuaren nondik-norakoaren balantzea egingo da, urtero dagozkion programaketa eta azterketak egiteari jarraituz.

A.2. Firmearen zainketa.

- Firmeen Inbentarioa finkatzea: Urte bat.
- Jasandako zamen sorta finkatzea: urtero.
- Antzerako gune meteorologikoak finkatzea: behin.
- Argibideak ematea: Bi urte.
- Indize guztien datuak jasotzea:
- Deflexioak eta azaleko berdintasuna: Bi urte.
- Irriadadura koefizientea eta begi-ezagutza: Bi urte.
- Azterketa: 2. urtetik aurrera urtero.

A.3. Fabrika-obren zainketa

- Inbentarioa finkatzea: Bi urte.
- Espedienteak finkatzea:
- Zubi eta Biaduktoak: onarpenetik hirugarren urtearen bukaeran.
- Horma eta tunelak: 4. urtearen bukaeran.
- Bestelako Fabrika-Obrak: 5. urtearen bukaeran.
- Aldizkako Lehenengo Ikuskaketa: Espedientea finkatzean.
- Azterketa: 2. urtetik urterokoa.

A.4. Zelaiduratze obren zainketa

- Inbentario eta espedienteak finkatzea: Bi urte.
- Lehenengo Ikuskaketa: Inbentarioa egitetik Lau urte.
- Azterketa: hirugarren urtetik aurrera urterokoa.

A.5. Seinalizazio eta segurtasun instalakuntzen zainketa

- Inbentario eta aldizkako Lehen Ikuskaketa: Bi urte.
- Azterketa: 2. urtetik aurrera urterokoa.

E.A.E.KO. ERREPIDEEN ZAINKETARAKO ARAUTEGIA PRAKTIKAN JARTZEKO KRONOGRAMA

URTEAK KONTZEPTUA	1.	2.	3.	4.	5.	6.
PRAKTIKAN JARTZEA						
BERRIKUSTAPEN, HEDAPEN, EGUNERATZEA						
FIRMEAK						
ARGIDEAK AMATEA. AZALEKO OSOTASUNA AZALEKO DEGRADAZIOA ZALEKO BERDINTASUNA						
FIRMEEN INVENTARIOA FINKATZEA						
1. AZTERKETA DATUAK DEFLEXIOAK AZALEKO BERDINTASUNA IRRISTADURA KOEFIZI. AZALEKO DEGRADAZIOA						
1. AZTERKETA IHARDUTZEAK				---	---	---
IHARDUTZEEN 1. PROGRAMAKETA				---	---	---
FABRIKA-OBRAK						
INBENTARIOA						
ESPEDIENTEAK. ZUBI ETA BIADUKTOAK H6 HORMAK ETA TUNELAK BESTE FABRIKA-OBRAK						
1. IKUSKAKETA						
1. IHARDUTZEEN AZTERKETA				---	---	---
1. IHARDUTZEN PROGRAMAKETA				---	---	---
ZELAIDURATZE-OBRAK						
INBENTARIOA ETA ESPEDIENTEAK						
1. IKUSKAKETA						
1. AZTERKETA, PROGRAMAKETA. IHARDUTZEAK						
SEINALIZAZIO ETA SEGURTASUN INSTALAKUNTZAK						
1. ALDIAN-ALDIKO -- IKUSKAKETA						
1. AZTERKETA ETA -- PROGRAMAKETA				---	---	---

**CAPITULO III: NORMAS TECNICAS
Y DE SEÑALIZACION**

INTRODUCCION

La Ley de Territorios Históricos (Ley 27/83 de 25 de Noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos) establece en su Art.7 a).8 que:

«Al objeto de asegurar la debida coordinación de las redes de carreteras de la Comunidad Autónoma, los Territorios Históricos pondrán en vigor para sus redes las normas técnicas y de señalización que se establezcan en el Plan General de Carreteras aprobado por las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma».

Por otra parte el Real Decreto 2.769/80 de 26 de Septiembre sobre traspaso de competencias y servicios del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de carreteras, establece que:

«En ejecución de dichas facultades, la Comunidad Autónoma aplicará para los tramos de las carreteras N-1, N-240 y autopistas actuales no sujetas a régimen de concesión estatal, que discurren por su territorio, como mínimo las normas técnicas y de señalización previstas en la legislación vigente del Estado.

Así mismo la Comunidad Autónoma Vasca se sujetará a las normas técnicas que dicte el Estado sobre construcción y conservación de carreteras, con carácter general, en aplicación de convenios, acuerdos o recomendaciones de carácter internacional, de acuerdo con lo establecido en el Art.20.3 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco.

Igualmente la Comunidad Autónoma Vasca se ajustará a las instrucciones del Estado sobre construcción, conservación y explotación de carreteras, que motivadamente le curse éste por razones de defensa nacional».

Así pues, para dar cumplimiento a la citada Ley de Territorios Históricos, teniendo en cuenta los mínimos establecidos por el Real Decreto de Transferencias, se recogen en el presente documento las Normas Técnicas y de Señalización que para el Proyecto y la Conservación de Carreteras han de regir en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Para la confección de la Norma Técnica sobre Proyectos se ha tomado como base los trabajos realizados en la Diputación Foral de Bizkaia (BAT), extrayendo de la misma aquellos principios y criterios que son de aplicación a los tres Territorios Históricos de la Comunidad, complementados con aquellos otros que por ser aplicables al conjunto, no estaban contenidos en aquellas, y los que se han adaptado a partir de la nueva legislación vigente del Estado.

Finalmente para la Norma Técnica sobre Conservación no se ha encontrado ningún precedente legal en el Estado español, por lo que para su confección, se ha acudido a las normas existentes de países extranjeros: Francia, Suiza y Estados Unidos principalmente, habiéndose elaborado un documento cuyo objetivo principal es el inicio de la puesta en práctica de una sistemática más acorde con el momento tecnológico actual, incidiendo principalmente en el establecimiento de los Inventarios y las Instrucciones que determinen los datos de partida, los aparatos de medida y los umbrales a mantener en determinadas

características de las carreteras, en base a establecer una conservación preventiva con preferencia a la curativa y con unas características mínimas para los tres Territorios Históricos.

Es preciso destacar que de esta forma se aborda por primera vez la tarea de agrupar en un sólo documento las condiciones a aplicar en obras de carreteras de competencia del País Vasco. Por ello mismo, este documento no es cerrado en el tiempo sino que se mejorará como consecuencia de la experiencia que se vaya acumulando durante su aplicación así como de la corrección de errores o imperfecciones de la primera versión y las propias de la innovación tecnológica en materia de carreteras.

**NORMA TECNICA PARA PROYECTOS DE CARRETERA
DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO**

**NORMA TECNICA PARA PROYECTOS DE CARRETERA
DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO**

INDICE

1. BASES DE ACTUACION
2. NORMA DE TRAZADO
3. FIRMES Y PAVIMENTOS
4. NORMAS TECNICAS DE SEÑALIZACION DE CARRETERAS
5. PLAN DE AFOROS Y ESTUDIOS DE TRAFICO
6. ESTUDIO DE IMPACTO AMBIENTAL
7. ESTUDIO DE SEGURIDAD E HIGIENE EN EL TRABAJO

1. BASES DE ACTUACION

INDICE

- 1.1. Introducción
- 1.2. Planificación del tráfico.
 - 1.2.1. Tráfico de base o determinante.
 - 1.2.2. Capacidad y carga admisible según niveles de servicio.
- 1.3. Fases de desarrollo del proyecto.

1.- BASES DE ACTUACION.

1.1. INTRODUCCION.

En este Capitulo se pretende plantear las bases de actuación y establecer conceptos previos a la redacción del Proyecto o fase de planificación y al contenido general de un estudio o proyecto. Se recomiendan seguir para cualquier estudio o proyecto a realizar en carreteras de obra nueva dentro de la Red Objeto del Plan.

Dado el caracter no exacto de los cálculos de capacidad de tráfico, se podrán utilizar otros métodos similares siempre que quede suficientemente justificado. Todo esto siempre, dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

1.2. PLANIFICACION DEL TRAFICO.

1.2.1. Tráfico de Base o Determinante.

Definición.-

El tráfico de base o determinante es aquél que se emplea para dimensionar las infraestructuras viarias (secciones transversales, n.º de vías, etc.), así como otras instalaciones de ayuda a la circulación (intersecciones, señalizaciones, etc.).

Habitualmente este tráfico de base se mide considerando el flujo de vehículos que pasa por una sección en una hora determinada que se denomina: Intensidad horaria determinante (IHD) u hora de proyecto y se expresa en vehículos por hora y, más concretamente, en unidades de vehículos ligeros por hora, estableciendo una equivalencia entre vehículos pesados y ligeros.

Datos de partida.-

a) Situación y función de la vía.

El tráfico determinante de una vía es función de su situación y su función y, en consecuencia, del tipo de circulación.

A estos efectos deben distinguirse, al menos los siguientes tipos de vías:

